

# DEMOKRAZIA ZURI-BELTZEAN

**Ricardo Arana eta  
Hernán Echevarría (koord.)**



bakeaz  
↑

**ZUZEN ZINEMARA**

**3**



# DEMOKRAZIA ZURI-BELTZEAN

Liburu hau argitara eman ahal izan  
dugu Eusko Jaurlaritzako Kultura  
Sailaren Gazteria Zuzendaritzaren  
finantziazioari esker.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
*Gazteria Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
*Dirección de Juventud*



# DEMOKRAZIA ZURI-BELTZEAN

**Ricardo Arana eta  
Hernán Echevarría (koord.)**



## Zuzen Zinemara

Bildumaren zuzendaria: Ricardo Arana Mariscal  
Argitalpenaren koordinazioa: Blanca Pérez Fraile

**Zuzen Zinemara** liburu monografikoen bilduma bat, proposamen pedagogiko bat jartzen du hezitzaileen eskura, eta proposamen horrek balioetan oinarritutako hezkuntzarako zinemak duen indarra eta erakarpena baliatu nahi ditu. Bilduma osatzen duen ale bakoitzak gai desberdin bat aztertzen du, eta gai guztiek giza eskubideekin dute zerikusia. Bakeaz erakundearen Bake eskolak duen proiektuetako bat da.

**Bake eskola** elkartzeko eta elkarrizketan aritzeko toki bat da, bai eta prestakuntzarako eta ikerkuntzarako institutu bat, informazioko eta dokumentazioko gune bat, hezkuntza-arloan aholkularitza, bitartekotza eta esku-hartzeko lanak egiteko talde bat, azterketa kritiko eta jendaurreko salaketarako tresna bat ere. Bake eskolaren helburua bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza da, betiere, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak, garapen iraunkorra, herritartasun demokratikoa eta kosmopolita, eta tolerantzia eta kultura arteko elkartasunean oinarritutako herritar etika abiarazten hartuta.

**Bakeaz** 1992an sortutako gobernu kanpoko erakundea da eta ikerketan aritzen da. Unibertsitateekin, bakezaletasunarekin, giza eskubideekin eta ingurumenarekin lotutako pertsonak sortu zuten, eta haren helburua hainbat gairi buruzko gogoetarako eta gizalegeko ekintzarako irizpideak ematea da; hala nola, nazioarteko harremanen militarizazioari buruz, segurtasun politikei buruz, armen ekoizpen eta salerosketari buruz, ekonomia eta ekologiaren arteko lotura teorikoari buruz, politika hidrokologikoari eta uraren kudeaketari buruz, tokiko Agenda 21eko prozesuei buruz, kooperazio politikei edo bakerako heziketari buruz eta giza eskubideei buruz. Jarraian horiek garatzeko, liburutegi espezializatu bat du; aditu sare zabal baten parte hartzei esker, azterketak eta ikerketak egiten ditu; hainbat liburu eta berripaper teoriko sortatzen, bere ikerketak eta nazioarteko erakundeekin ikerketak argitaratzen ditu —besteak beste, Worldwatch Instituterekin, ICLEIrenak eta UNESCOrenak—; ikastaroak, mintegiak eta hitzaldi zikloak antolatzen ditu; elkarte, erakunde eta komunikabideei aholkuak ematen dizkie; egunkarrietan eta aldizkari teorikoetan artikuluak argitaratzen ditu; eta mintegietan eta biltzarretan parte hartzen du.

Liburu honen jatorrizko argitalpena gaztelaniaz atera zen 2009. urtean, *La democracia en blanco y negro* izenburupean, eta Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirolerako Ministerioak emandako finantziarioari esker argitaratu zen.

Gaztelaniatik eginiko itzulpena: Irene Hurtado Mendieta.

Bildumaren diseinua: Álvaro Pérez Benavente.

© Egileak, 2011

© Bakeaz, 2011

Arriquiribar plaza, 3-1. esk. • 48008 Bilbao • Tel.: 94 4790070 • Faxe: 94 4790071  
Posta elektronikoa: [escueladepaz@bakeaz.org](mailto:escueladepaz@bakeaz.org) • <http://www.escueladepaz.org>

ISBN: 978-84-92804-07-8


Lege-gordailua: BI-3255-2011

Lan honetan azaltzen diren iritziak ez dira nahitaez bat etorriko Bakeaz erakundeak dituen iritziekin.

Liburu hau inprimatzeko erabilitako papera % 100 birziklatua eta klororik gabea da.

ABOKATUA:            Tratua egiteko prest daude.  
HOWARD PRINCE:    Izenik ematen badiet, ezta?  
ABOKATUA:           Howard, oso zentzudunak izaten ari dira. Bat  
                              baizik ez diezu eman behar.  
HOWARD PRINCE:    Bai? Zein?  
ABOKATUA:           Zuk nahi duzuna. Inguratuta zaituzte,  
                              espetxera joan zaitezke, zer axola dizu izen  
                              batek! Hala nahiago baduzu, emaezu Hecky  
                              Brown-ena.  
HOWARD PRINCE:    Hecky?  
ABOKATUA:           Nolanahi ere, hilda dago, zer ardua izango  
                              du orain? Izen bat besterik ez dute nahi, zure  
                              lankidetzaz frogatuko duen zerbait. Horixe da  
                              dena!

*La tapadera (The Front), Martin Ritt (1976)*





ikusteko

Filmak ikustea



behatzeko

Sekuentziak behatzea



aditzeko

Soinuak, elkarrizketak... aditzea



entzuteko

Kantak entzutea



ulertzeko

Testu teorikoak ulertzea



aztertzeko

Filmak, pertsonaiak, elkarrizketak... aztertzea



pentsatzeko

Pentsatzea eta hausnartzea



iruzkintzeko

Taldeka iruzkintzea



ikasteko

Kontzeptuak ikastea



jarduteko

Jardutea eta egitea



# aurkibidea

**Sarrera** 11

**Lan honen beharra eta izaera**

**Ricardo Arana eta Hernán Echevarría** 13

Demokraziaren aurrean dauden ideiak eta sinesmenak 15

Giza eskubideak eta demokrazia 16

Askatasuna eta berdintasuna 18

Politika aldarrikatzea 19

Demokrazia Mendebalde hurbilean 20

Ortodoxo baten heterodoxia 21

Herritarren betebeharrak 23

Eguneroko bizitzaren bidez 25

Batzuk beste batzuk baina berdinagoak ote? 26

Memoria berreskuratzea 27

Gure ekintzen erantzule 28

Gu denok gara besteak 30

Bibliografia 31

**Demokraziari buruzko hiru ikuspegi** 33

**Demokrazia eraikitzen:**

**begiratu historiko bat**

Antonio Rivera 35

**Zuzenbideko Estatua, demokraziaren**

**bermea eta babes**

Juan Luis Ibarra 45

**Demokrazia eta parte-hartzea**

Imanol Zubero 57

## **Lanerako proposamenak**

Ricardo Arana, Hernán Echevarría,  
Fernando Ganzo, Laura García  
eta M.<sup>a</sup> Ángeles Ricondo

**69**

- |   |     |
|---|-----|
| 1. 'El hombre que mató a Liberty Valance' | 71  |
| 2. 'Solo ante el peligro'                 | 79  |
| 3. 'Persépolis'                           | 87  |
| 4. 'Rebelión en la granja'                | 95  |
| 5. 'El gran dictador'                     | 103 |
| 6. 'Vencedores y vencidos'                | 107 |
| 7. 'La vida de los otros'                 | 111 |
| 'Post-it' bat foroan                      | 115 |

**Azken hitza**

**117**

Bakeaz erakundearen Bake eskola giza eskubideak lortzeko hezkuntzaz arduratzen da, eta giza eskubideak gizateriaren oinarritzko bi ezaugarriren adierazpena dira: askatasunaren eta berdintasunaren adierazpena. Biek ala biek eratzen dituzte pertsonaren duintasunari eusten dioten arkuko zutabeak.

Demokraziak duintasun hori garatzeko aukera ematen digu. Lan honen bidez, hausnarketa eta proposamen metodologiko bat egin nahi dugu, irakaskuntza arautuan eta ez-arautuan sistema politiko hori ezagutu eta aintzat har dadin.

Azterlan honek Bakeaz erakundearen Bake eskolak duen lan-ildo batekin du zerikusia, zehazki, Zuzen zinemara izenekoarekin. Lan-ildo horrek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzari heldu nahi dio, zinema eta bere ahalmenak erabili nahi ditu baliabide pedagogiko gisa, eta irakaskuntzako arduradunei proposamen pedagogiko bat eskaini nahi die, dagozkion material didaktikoz hornituta.

Ale honetan, hainbat mailatan aztertuko dugu demokrazia —oro har, baina baita sakonago ere—, nola sortu zen, zein zentzu duen eta zein ahalmen izan ditzakeen, alde horietako batzuk ez baitira gehiegi ikeritu orain arte. Era berean, azterketa zehatza eta proposamen metodologikoa egingo ditugu (ikus-entzunezkoen buruzko alfabetizazio kritikoaren ikuspegitik), zazpi film oinarritzat hartuta, zirkuitu komertzialean ikusteko moduan baitaude eskuragarri eta lanerako aukera ugari eskaintzen baitituzte adinaren edo asmoen arabera.

*Demokrazia zuri-beltzean* izeneko lan hau ikusgai duzu web orri honetan: <<http://www.escueladepaz.org>>.



## ESKER ONAK

Sarritan gertatzen denez, talde oso bat da lan honen egilea, kredituko tituluen buruan agertzen diren izenak baino askoz lagun gehiago. Hala, bada, bereziki nabarmendu behar dugu Bakeaz taldearen lan-kidetza, batez ere, bake eta giza eskubideen arloko arduraduna den Asun Merineroren laguntza, eta, ondoren, argitalpeneko koordinatzailea den Blanca Pérezeren eta erakundearen zuzendaria den Josu Ugarteren laguntza.

Haiek eta zirriborroen irakurketa kritikoa eta iradokitzaileak egin dituzten beste lagun askok egindako lanik gabe, ezinezkoa izango zen hausnarketa hau argitara ematea.



# **LAN HONEN BEHARRA ETA IZAERA**

**Ricardo Arana  
Hernán Echevarría**

- **Ricardo Arana Mariscal** maisua eta kazetaria da. Bizkaiko Barakaldo herriko ikastetxe publiko batean ematen ditu eskolak. Irakasleen sindikatuko ordezkaria, eta Euskadiko Langile Batzordeen komunikazio konfederalaren arloko eta irakaskuntzako federazioko arduraduna izan da. Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kidea eta Giza Baliabideen Batzordeko burua izan da. Hainbat herri-ekimenetan eta jardueratan parte hartzen du, balioetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatzeko eta etorkinak gizarteratzeko. Bere hausnarketetan, komunikazioaren teknologia berriek gizartean duten eragina aztertu du. Lankidetzan aritu da euskal prentsako iritzi-orrietan, eta argitalpen profesional batzuekin, esate baterako, *Trabajadores de la Enseñanza* eta *Escuela*, argitalpenekin.
- **Hernán Echevarría Calvo** maisua, eta Geografia eta Historian lizentziaduna da. Irakaskuntza-lanetan aritu da Euskal Herriko hainbat ikastetxe pribatu eta publikotan, hala Lehen nola Bigarren Hezkuntzan; horrez gain, irakasleen ordezkari sindikala izan da. Gaur egun, irakasle-lanetan ari da pertsona helduen hezkuntzara zuzenduta dagoen Bizkaiko zentro publiko batean, eta, aldi berean, zentro horretako zuzendaria da. Arteak eta historiak pizten dute bere arreta. Irakaskuntza-lanetan, zinemagintza erabiltzeko egiten diren ikerketetan hartzen du parte.



ulertzeko



pentsatzeko

## DEMOKRAZIAREN AURREAN DAUDEN IDEIAK ETA SINESMENAK

Sarritan, gertuen duguna eta egunerokoena dena izaten da aintzat hartzeko eta sakonkien duen esanahia ulertzeko zailago egiten zaiguna. Horrelako zerbait gertatzen da demokraziarekin. Espainiako biztanleen heren batek 1978ko Konstituzioak babesten duen erregimen demokratikoa besterik ez du ezagutu. Hala ere, helduaroan Franco jeneralaren diktaduratik oraingo sistemara bitarteko trantsizioa ezagutu zuten lagun gutxi dira gai izan den oinarritzko aldaketa azaltzeko, eta ez hautematen diren desberdintasunetako batzuk aipatuta. Honelakoxeak dira kalean, bertatik bertara, entzun ahal izango dituzun ohiko esaldi batzuk: «Orain botoa emateko eskubidea duzu», «orain hitz egin daiteke», «bilerak egin ditzakezu, manifestazioak...».

Alabaina, edozein gauzari buruz erabaki ahal da? Edozein unetan egin al duzu manifestazioren bat edo zeri bultzada emateko? Dirudienenez, gai horiek edota antzeko beste batzuk arautzen badira, eta (gehiengoaren) erantzunak herriaren burujabetasunak gehiengoaren erabakiz finka daitekeena edota talde batek jendaurrean azal dezakeena mugatzen badu, demokrazia mugatzen ari da eta, beraz, herritarren askatasuna ere bai. Ezta hurrik eman ere. Eta, hargatik, adierazi ditugunen antzekoak diren demokraziari buruko herri-adierazpen asko, egia izanagatik ere, arriskutsuak dira.

Sinekdoke moduko mota horiek dena (demokrazia) azaltzen dute, zatietakoren bat erabiliz; eta, Andoni Unzalu zutabegileak maiz azpimarratu duenez, arriskutsuak izan daitezkeen estereotipoak dituzte. Hausnarketa batean Unzaluk aditzera ematen duenez, «imaginariorik ohikoenean» demokraziaren aurkakoak



High Noon Fred Zinnemann (1952)

diren topikoz beterik dago demokrazia, eta topiko horietako asko ideia izatetik sinesmen izatera iritsi direnez (komenigarria da Ortegaren esaldia gogora ekartzea: «Ideiak eduki egiten ditugu, sinesmenetan, berriz, egoten da»), benetan zaila da haiek kritikatzeko.

Fernando Savater-en esanetan, historia demokratikoa atsekabeen, tragedien eta saiakuntza etsigarrien batuketan bat da; baina, haren hitzak ostera ere hona ekarri, zera ere bada: «gizakiaren autodeterminazioa lortzeko historian izan den proiektu politikorik garrantzitsuenak, subertsiboena eta, ditugun albisteen arabera, gizarte legezkotzeko sekula izan den ikuspegirik berritzaileena» (1994: 245). Inoiz ez da denbora galtzea demokraziari buruz hausnarketa egitea, haren oinarriak eta hatsarreak ezagutzeko, eta haren balioak barnerrazteko eta eskuratzeko. Are gehiago, demokrazian egonik, hari buruz ikastea, ulertzea eta gauzatzea beti da herri-tartasunean lan egitea. Demokrazia lortzeko heztea ere edozein estatu demokratikoren betebeharrak bat da, ez estatu espainiarrarena soilik. Gure ingurunean finkatuta dauden demokraziek horrelaxe ulertzen dute.

Egoeraren araberako polemikak alde batera utzita, Zuzen Zinemara bildumako gainerako liburuekin bezalaxe, material hauekin ere hurbildu nahi gara erregimen politiko horretara eta harekiko estimura, eta zinema baliatu nahi dugu horretarako. Ideia ez da jatorrizkoa edo berezia. Hainbat aldiz adierazi dugunez, bilduma hau zorretan dago Mario Onaindiak jendaurrean egin zuzen azken esku-hartzearekin. 2003. urtean José Luis López de Lacalle izeneko saria eman zioten, eta, sari-banaketan, orduan senataria zenak bi film aipatu zituen, hain zuzen, hemen iruzkinduko ditugun bi film (*The Man Who Shot Liberty Valance* eta *High Noon*), zuzenbidearekiko eta legearekiko arbuioa salatzen —hori ezarri eta babestu behar dutenen artean ere bai—, eta demokrazia bizikidetzako eta giza duintasunaren babesa lortzeko formula gisa aldarrikatzeko.

Lehen esan bezala, kontzeptuaren azalpenak berak hainbat zailtasun dakartza berekin, etimologiak berak ere ezin konpon ditzakeen zailtasunak. Ezagutzen eta lortu nahi dugun demokrazia ez da herriak (*demos* izenekoak) boterea (*kratos* deitutakoa) baliatzea soilik; horrez gain, mugatu behar da horren erabilpena. Ez da harrizkoa ikasgelaren batean gertaera horri buruz hausnarketa egitera eramango gaituen galderaren bat azaltzea, eta gure erantzunak horrelakoetan haxe izan behar du ezinbestez: «demokrazian, dena ez da onargarria». Ezin dugu erabaki lagunik ahulenari ogitartekoa kenduko diogun, edota sexua dela-eta beste lagun bati eskolako jokalekuan aritzeko aukera galaraziko diogun.



## GIZA ESKUBIDEAK ETA DEMOKRAZIA

Luigi Ferrajolik gogora ekartzen duenez, gehiengoak ezin du inoiz erabaki gutxiengoa edo herritar bakar bat ezabatzea (eta, era berean, ezin du ez erabaki babesik ez ematea). Eta, jarraian, sendo baieztatzen du, baldin eta herriaren boterea mugarik gabea balitz, denik eta demokrazia politikorik perfektuena ere erregimen absolutua eta totalitarioa izango litzatekeela.

Victoria Campsen esanetan, demokrazia parlamentarioek aurrerapena dakarte monarkia absolutuekin erkatuta, baina, hala ere, ez daude salbuetsita, haien baitan ere ager baitaiteke botere absolutuaren araua, eta, horri jarraiki, justizia egiteko boterea duenak,aldi berean, badu botererik justizia egin dadin galarazteko ere: «Arrisku hori ikusita, agerikoa da Estatuaren botereak —Estatu demokratikoarenak ere bai— muga





batzuk eduki behar dituela. Muga horiek zera besterik ez dira: oinarrizko eskubide gisa positibatu eta konstituzioan barneratutako giza eskubideek marrazten dituzten mugak» (2003: 21).

Hala, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako eskubideek gure demokrazia neurtzen eta arautzen dute, sistemak pertsonen eskubide horiek babestu behar baititu. Babes horrek ez du formazkoa izan behar soilik; Legeak eta Zuzenbideak ere jaso behar dute, estatu demokratikoa legezkotzat jotzen duten tresnak baitira, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Juan Luis Ibarra magistratuak orri batzuk aurrerago gogora ekarriko duenez.

Ezin da aski izan guretzat gazteenei demokraziaren kontzeptua bazterketa hutsez azaltzea, alegia, demokrazia zer ez den edo zer izatera iristen ez den soilik agertuta. Giza duintasunaren babesean oinarrizkoa den hitz horri buruzko baieztapen argiak behar ditugu, zentzu onekoak. Norberto Bobbiok demokrazia egiten duen oinarrizko definizio kanonikoa, a priori, ez da oso zaila: «taldeko erabakiak prozedura batzuei jarraiki hartzeko baimena duten horiek finkatzen dituzten arauen multzoa» (1991: 14).

Bobbioren hitz horien sakoneko zentzuaren azalpenak, baina, hausnartzeko prozesua behar du, demokrazia oso zailak diren egoerei heltzeko baliatzen den sistema soil bat baita. Antonio Rivera historialariak eta legebiltzarkideak orri hauexetan adierazten duenez, demokrazia hobetu daitekeen errealitate bat da, eta, aldi berean, soziala da —ez naturala—, eta, beraz, barneko nahiz kanpoko era guztietako arazoen mehatxatzen dute, eta etengabe berrikusi beharra dago.



The Great Dictator Charles Chaplin (1940)

Juan Luis Ibarra eta Antonio Rivera dira, izan ere, argitalpen honetara gonbidatutako hiru sinaduretako bi, eta sakon eta kontzeptuzko zorroztasunez aztertzen dute ezagutzen dugun demokrazia. «Eraikitzen ari den demokrazia» hau azertu behar dugu, azken egile horrek bere azken lanean dioenez, eta haren sorburua diren iturri historikoak berrazertu behar ditugu, gaur egun demokrazia ulertzeko gako batzuk eduki ahal izateko. Bera gabe, herritartasuna muga genezake, pertsonaren eskubideen multzo batera murriztu, erkidegoarekiko betebeharrak eta erantzukizunak alde batera utzita.

Demokraziaren esanahi sakona bistatik galtzen badugu, edo gaizki ulertzen badugu, mota guztietako arazoetarako irtenbidea balitz bezala, gerta liteke azkenik demokrazia «persona zintzoak» sortu nahi dituen dotrina bat dela sinestaraztea. Alabaina, demokrazia ez da ideologia bat, gehienbat sistema politiko bat

baita, era zentzuzkoan eta herritar guztien parte-hartzea izanik arazoetarako irtenbide negoziatuak bermatzen dituen. Manuel Azañaren esaldi aski ezaguna da honakoa: «Askatasunak ez ditu gizakiak zoriontsu bilakatzen, gizaki bilakatzen ditu, besterik gabe».

Juan Luis Ibarra magistratuaren ekarpenean, sarrien aipatzen den eta hausnarketa gai gisa gutxienik hartzen den alderdietako bat azaltzen da: Zuzenbideko Estatua izenekoak demokraziari ematen dizkion bermea eta babesa. Ibarrek gogora ekartzen du nola sortu zen European, «antzinako erregimenaren» aurrez aurre jarria, hura monarkaren mugaezinezko botereen frogatzen baita; halaber, Ibarrek adierazten du nola hartu zen legezkotzat, estatua bera baino lehenagotik dauden pertsonaren oinarriko eskubideei euste aldera.

## ASKATASUNA ETA BERDINTASUNA

Handik gutxira irakurleak aurkituko duen testua, aurreko biak bezalaxe, argitalpen honetarako landu dira berariaz. Gaur egun senataria den Imanol Zubero soziologoak egin duen lanaren abiaburua lan hau eta, ziurrena, Zuzen Zinemara bilduma osoa gidatzen duen gogoeta bat da; honakoa: ezinezkoa da sistema instituzional demokratiko bati eustea, gutxieneko lagun-talde bat ez badago horri eusten, lagun eraginkor eta arduratsuz osaturiko taldea. Material didaktiko hauek bat egiten dute ideia horrekin, azken batean, hezkuntza-sistemak duen zeregina ikuspegi dialogikotik hartzen baita, talde-eztabaida eta «demokrazia deliberrazteko» lantzeko asmoz.

Horren ildoan, Mario Onaindiaren eta, besteak beste, Arabako ahaldu nagusia izan zen Emilio Guevararen hitz hauek ekarriko ditugu hizpidera: «Demokraziaren oinarrian dagoen balio moralen ordena balio politiko unibertsalak dira, eta, legetan bilduta, azkenean balio juridiko bilakatzen dira: jakina denez, horien bilduma justizia da. Balio horiek bereziki zehazteko, eta dagokion unean gai publikoetan ezartzeko, arrazionaltasunaren irizpidera jo behar da. Horrek esan nahi du, beste oinarri politiko batzuek ez bezala, oinarri demokratikoak herritar eraginkorrak nahi dituela, eta herritar horien iritzirik politikokoak prestatu nahi dituela, eztabaida publikoko prozesu etengabe baten bidez» (2003: 15).

Zubero irakaslearen ekarpena harantzago iristen da, demokrata eraginkorren jendetza kritikoa behar dela azpimarratzen baitu. Tradizioz, demokrazia modernoaren ondoan agertzen diren ikusmolde liberalak eta errepublikanoak aztertu ondoren, soziologoak berdintasunaren zeregina azpimarratzen du, «ezinbesteko baldintza baita askatasunerako». Izan ere, sistema demokratikoa ezin bereizizkoa baita bi balio hauetatik: askatasun eta berdintasunetik.

María Cruz Minak gogora ekartzen duenez, demokrazia modernoa hobekien zehazten duena ez da parte-hartzea, ez eta erkidego bateko kidea izatea ere, baizik eta norbanakoaren askatasuna eta guztion eskubideak bermatzea helburu gisa izatea. Hala, berdintasuna ezin uko eginezko baldintza da. Minak dioenez, «herritartasunaren lotura politikoak eta kontratuaren abantailek ezin dituzte inor bazter utzi» (2003: 29).

Demokraziak pertsona askeak behar ditu, gogoeta egin eta beren ideiak aldeztu ahal dituzten pertsonak, eta, hargatik, ez da soilik askatasuna. Norberaren autodeterminazioa gauzatzeko, herritarrek berdintasuna



izan behar dute beren eskubide guztietan. Hemen eta orain balio berezia du giza eskubideen bigarren belaunaldi hark, gizarte- eta ekonomia-arloko eskubide gisa ezagututakoek. Hortaz, askatasun eta berdintasun kontzeptuak ez daude bata besteari eremua kentzen; aitzitik, bata zein bestea demokrazia garatzeko bermea dira. Gaur eguneko Zuzenbideko Estatua, Ibarak gogorarazten digunez, tresna erabakigarria da askatasun publikoak benetan bermatzeko. Berriro ere baliagarri zaizkigu Mario Onaindia eta Emilio Guevararen hitz hauek: «Pertsonaren duintasuna zutabetzat harturik gizarte zibila arautzen duen oinarria da demokrazia. Norbanako guztien ezinbestezko berdintasuna eta askatasuna (berdintasunezko askatasuna) onartzea da haren abiaburua» (2003: 14).

## POLITIKA ALDARRIKATZEA

Orri hauek ikusi nahi duten etorkizun horretan balio gehiago eman behar zaio politikari; izan ere, politikari buruzko liburua da honako hau. Zehazkiago, argitalpen honek politika aldarrikatu, eta herritarren ahalmena akuilatu nahi du, arazo politikoak konpontzean gehiago parte har dezaten. Demokraziak gune bat bermatu nahi du pertsonak bertan elkarrekin bizi ahal izan daitezen, baina ez du «behin betiko» irtenbiderik aurkitu nahi haien elkarbizitzako arazoei begira. Are gehiago, Andoni Unzaluk nabarmentzen duenez, sistema demokratikoaren atzean ezkututzen den baieztapenak dio ezinezkoa dela irtenbide bakar bat egotea. Demokraziak ahaleginak egiten ditu desadostasunak kudeatzeko, onuragarritzat eta gizakiarengan berezkozat jotzen diren desadostasunak.

José M.<sup>a</sup> Ruiz Soroaren ustez, «gizarteko kohesioak ez du inola ere ezartzen norbanakoen eskubideen gainetik dagoen eskubiderik», (2008: 135). Teoria horri jarraiki, pertsonak ideia eta identitate aldetik duten aniztasuna egiturazkoa da gizarte modernoan, eta aniztasun horrek ez du kohesioa mehatxatzen; aitzitik, pertsonak bereganatzeko, bizitzeko eta askatasunez adierazteko dituzten aukeren artean dagoen berdintasun ezak sortzen du mehatxua. Ezin da gizartea kohesionatu, haren konplexutasuna murriztuz; aldiz, bideak zabaldu behar dira askatasunez eta era baketsuan adieraz dadin. Azkenik, adiztera eman behar dugu demokraziak ezin duela pertsonen aniztasuna ukatu; herritartasun inklusiboan onartu behar ditu.



Persepolis Marjane Satrapi  
eta Vincent Paronnaud (2007)

Argitalpen honetan ez daude soilik jasota demokrazia kontzeptuari buruzko hausnarketa teorikoak, hemen aurkezten saiatu garen moduan. Neurri handi batean, argitalpen hau hezkuntzako gune formaletan eta ez-formaletan gauzatu behar den proposamen praktikoa bat da, eta demokraziari buruzko talde-hausnarketa bat ere bada, alde batetik, demokrazia lortzeko moldeei eta demokraziak izan dituen arerio historikoei buruzkoa (faxismoa, nazismoa, estalinismoa, sorgin-ehiza edo fundamentalismoa argi eta garbi agertzen baitira bilbeetan), eta, bestetik, demokraziaren sakoneko esanahiari buruzko eta zineman izan duen tratamenduari buruzko hausnarketa.

Izan ere, politikari buruzko liburua izateaz gain, zinemaren gaineko liburua ere bada honako hau; eta arrazoi subjektiboek bultzatuta hautatu ditugun film batzuk dira bertako izarrak. Beste film batzuk ere hauta genitzake, baina ez da hain erraza izenburuak aurkitzea —gutziz eta erabat biografikoak direnak alde batera utzita—, demokraziari egindako bortxaketarik larrienak aztertzen dituzten gaiak buruz, edota gaia «alboko edo zeharreko» gai gisa hartzen ez duten filmak buruz, eta, betiere, banaketa-sarean DVD bezalako formatu eskuragarrian izanik. Nolanahi ere, hemen proposatzen ditugun filmak izugarri baliagarriak dira, hala berez aztertzeko, nola, aitzakia gisa, eztabaida errazago pizteko, hain zaharra den zineforuma bezalako jarduera batean arituta.



## DEMOKRAZIA MENDEBALDE HURBILEAN

Hurrengo orrietan aztertuko dugun oinarriko proposamenaren zutabea, ustez, askatasun, berdintasun edo justizia bezalako kontzeptuetatik urrutiratuta dagoen genero bat da: *westerna*. Genero hori Greziako mitologiarekin eta tragediarekin dago ahaidetuta forma aldetik. André Bazinek, alegia, zinemagintzako azterketaren esparruan gehien nabarmentzen den pertsonetako batek, honakoa zioen, beharbada destaina pixka batez (Bazinek harreman kontraesankor samarra izan baitzuen genero horrekiko): Mendebaldeko filmen sorrera «mitologia eta adierazpide baten arteko» elkartzea zela (1985: 219). Zuzentasun osoz, André Glucksmann soziologoak honelaxe deskribatzen du generoa: «mitologia sekularizatu bat da, eta, bertan, gizarte batek ahaleginak egiten ditu bere kontraesanak islatzeko, bere jatorria gogora ekartzeko aitzakiaz» (1966: 71).

*Western* generoaren gunea, geografikoa izateaz gain, mitologikoa ere bada. Glucksmannek dioenez, generoaren handitasunaren arrazoia da pertsonaiak bizi diren unean «zibilizazio bat bere oinarriak proban jartzen ari dela: legea ezartzeko unea da. Egoera horixe bera genuen tragedia grekoan: konkista burutu, eta Agamenon itzuli ondoren, Orestesek eta jaingo apolotarrek irudikatzen duten lege politikoa ezarri behar da, garaitu behar du, Clitemnestrak eta gauaren alabek irudikatzen dituzten, eta sumin eta indarkeria bilakaturik dauden, odol-lotura zaharren gainetik. Koru zaharrak, bere beldur eta jakituria pasiboarekin, legee probetxua ateratzeko gai den baina legeak ezartzeko gai ez den erkidego bat irudikatzen du Mendebaldeko herritarrek bezala: erkidego epiko bat, bere heroien kontzientzia behatzaile bilakatua».

Mendebaldeko filmetan agertzen diren tragediek, beraz, nolabaiteko hausnarketa dakarte oso une berezi bateko gizarteari berari buruz, gure «haurgintza historikoari» buruz, Ángel Fernández-Santosen hitz egoiak erabilia. Mario Onaindiak honakoa idatzi zuen berariaz gai honi buruz (1997): «zuzeneko harremana dago tragedia eta gizarte irekiaren artean. [...] Periklesen mendean loratu zen tragedia generoa, Greziako ilustrazioarekin batera. Hortaz, lotura du polisetako demokraziarekin». Eta haxe gaineratzen du gero: «Tragedietatik ateratzen dudana irakasbiderik garrantzitsuena da gizarte irekietan nola bizi irakasten



digutela. Gizarte ireki horien bereizgarria da herritarra leialtasun-mota batzuen mende egotea —familia, klasea, herrialdea, etab.—, eta herritarra jakitun izatea leialtasun horiek behin baino gehiagotan elkarren aurkakoak direla, baina, hala ere, tirabira horren erdian bizi behar duela ezinbestez. Era berean, ondotxo daki leialtasun horiek batzuetan legezkoak direla eta beste batzuk ez direla legezkoak».

## ORTODOXO BATEN HETERODOXIA

Lehenik proposatzen dugun filma, lehen postu hori merezi duela ondo oharturik, John Forden *The Man Who Shot Liberty Valance* da. Ipar Amerikako zuzendariaren aldekoek nahiz aurkakoek, denek egin dute bat film hau zinemagintzak sortu duen lanik handienetako bat dela aitortzeko. Literatura eta itzulpengintza lantzeaz gain zinemagintzako kritikaren esparruan aritu den Javier Maríasen ustez, film hau bere generoko lanik onena da, eta, *western* generotik harantz joz ere, oso leku onean kokatu behar da. Horretarako ematen duen arrazoia da filmean «gai handi» guztiak agertzen direla, hala pertsonalak nola sozialak.

Zinemagintzako mintzaira hutsari dagokionez, mugak urratzen dituen harribitxi berezi bat da. Eta hala da, Fordek halaxe zizelkatu nahi izan zuelako bere ibilbidearen eta bizitzaren amaieran: kodeak hausten. Estatu Batuetako zuzendariak desegin egin zuen zinemagintzako genero hau filmatzeko molde berezi bati lotzeko asmoa (askok ere hari leporatu nahi izango zioteten arren). *The Man Who Shot...* filmeko estetika oso urruti dago *westernaren* paradigma formaletik. Bazinen arabera, hauek dira genero honen bereizgarriak: zerumuga zabalak, gizakia naturaren aurrez aurre jartzen duten multzoko plano handiak, hurbileko planoak alde batera uztea eta *travelling-arekiko* joera. Ezaugarri horietatik, gutxi daude film honetan baina (ustez zaharkitutako zuri-beltzean filmatuta dago gainera, zuzendariak hala ezarri baitzuen): estudiora mugatzen da agertokia, xehetasunezko planoak dira nagusi eta kamera ia ez da mugitzen. Horiek horrela, gainbeherako kutsu nabarmena du filmak.

*The Man Who Shot Liberty Valance* filmaren hasieran, *flashback* baten bidez ematen da aditzera nola iristen den Shinbone herrixkara Ransom Stoddard abokatu gaztea, nola hasten den gatazkan Liberty Valance-rekin, hau da, lurjabeen bizkartzainekin (Lee Marvin), eta nola jartzen den harremanetan herriko heroia den Tom Doniphonekin (John Wayne). Doniphon-Wayneren ustez, Mendebalde basak berezko arauak ditu, hasierako garaian pistolari azkarrek idatzitakoak. Mundu horretan, Stoddard-Stewartek arrazoia, zuzenbidea eta demokrazia irudikatzen ditu.

Pertsonaia legegizonaren zeregina betetzen ahalegintzen da, eta eskolako maisuarena ere bai, ezin galtzeko moduko irakasgai bat ematen, hain zuzen, askori oraingo Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaia gogora ekarriko dien bat. Eszena (Fordek ikusleari emandako irakaspena) ez da zinemagintzako gune bat soilik, askoz gehiago baizik, bertan, demokraziaren sorrerari buruzko aipamen guztiak zehatz neurtuta baitaude eta planoak ardura handiz antolatuta baitaude, era honetako zinemagintzako erretratueta oso gutxitan erakusten dena azalarazi ahal izateko: demokrazia hasi berriak bazter utzi dituenak erakusteko. Ikuspegi hori nabarmen agertzen da, filmeko beste eszena gako batekin erkatuta: lurraldeko Konbentzioan herriak izango duen ordezkariarako hautagaiak izendatzeko herritarrek (gizon zuriek) *saloonean* egindako batzarra jasotzen duen eszenarekin alderatuta.

Egia esan, eta hori da filmak duen alderdirik harrigarriena, bizkartzain mehatxagarriak eta Liberty Valance bera ez dira ezabatuko justiziazko ekintza baten bidez, Doniphon-Wayneren esku armatuak —eta gainera traizioz— emandako azken astindu batek baizik, Mendebalde zaharrea ohi zenez. Hala, filmak areago nabarmentzen ditu Forden kutsuko tonu grisak. Badirudi sistema demokratikoak eta, harekin batera, askatasunak, berdintasunak eta justiziak berak Jünger-ek iradokitzen dituen sorburu ilunak dituela: indarra erabiltzeko behararen aurreko zalantza, zuzenbidea eta arrazoia armagabe geratzen direnean erabateko gaiztakeria irudikatzen duen arerio baten aurrean. Fordek zinemara aldatzen ditu Brecht-en hitz hauek: «indarkeria bakarrik da lagungarria indarkeria nagusi den tokian»; zehazki, Stoddard-Stewartek adierazitako hitz hauen bidez azaltzen ditu: «Indarra mehatxua denean, hitzek ez dute ezertarako balio».



The Man Who Shot Liberty Valance  
John Ford (1962)

Era horretan, konplexutasun morala maila gorenean adierazita dago. Filmean ez dago heroi perfekturik, eta legearen —eta, hargatik, askatasunaren— azken garaipenak berak kutsu samina uzten du. Zinemagintzan darabilen diskurtsoaren bidez, Fordek aditzera ematen du garai berriak onartzen dituela (eta, beharbada, aldi berean, miraz begiratzen dituela iragandako garaiak). Eta, diskurtso horrekin, urrutiratu egiten da XXI. mende betean legearen indarrak indarraren legea ordezka dezan onartzen ez duten horiengandik. Gaur egun, oraindik, Doniphon asko ibiltzen da aldarrika, Stoddarden aurrez aurre jarrita, eta filmaren bukaera aldatzea proposatzen du, zuhurtasuneko tiroaren nagusitasuna eskatuz.

Zalantzarik gabe, filmean aukeratu den bukaera ederra eta zintzoa da, esanahiz beteriko mezuak bidaltzen baitizkie ikusleei etengabe: Liberty da lurjabeen bizkartzainaren izena, zartailua baita haren armarik gogokoena, jaioberria den estatuaren ikurrak suma baitaitezke sakontasun handiko planoetan... Are gehiago, «metazinemaren» adibide bat dugu honako hau (hitz hori erabili ahal baldin bada): benetan gertatutakoaren kontakizuna diligenzia baten aurrean hasten da, eta «lehen *western* modernotzat» jo izan den filmeko pertsonaia nagusia izan zen diligenziaren antz handia du horrek.

Elegia hasiko da Stoddard-Stewart ohartzen denean Doniphon-Wayne armarik gabe lurperatuko dutela. Armak non dauden galdetuko du, eta, horren ondoren, zinemagintzako testuak ematen duen erantzuna hauxe da: «azken aldietan ez zituen aldean eramaten». Errebolberrik behar ez zuen gaizkile pistoladuna da filmeko zuzendariak garaiak aldatu direla adierazteko hautatu duen ikurra; horren bidez, adierazten du



legea eta ordena —Europar arrunki «Zuzenbideko Estatua» deitzen duguna— iritsi direla azkenean Mendebalde urrunera.

## ○ HERRITARREN BETEBEHARRAK

Aurkezten dugun bigarren filma, Fred Zinnemann *High Noon* izenburukoa, beste adibide heterodoxo bat da, denbora «garai baten amaieraren eta beste garai baten hasieraren artean lipar batez gelditu dela» erakusten duena. Izan ere, Fernández Santosen ustez, Mendebaldeko filmak denbora horretan daude kokatuta (2007: 79). Kontakizunean, ekintza, tokia eta, bereziki, denbora bat eginik azaltzen dira, pantailan agertzen den istorioak errealtatearekin bat datorrelako irudipena indartzeko (kontatzen den ekintzaren iraupena 105 minutukoa da, gutxi gorabehera, eta filmaren iraupena, berriz, 85 minutukoa). Film honek ere berrikuntza nabarmena ekarri zuen, batez ere osagai psikologikoen duten zeregin garrantzitsua dela-eta; dena dela, Fordek zabalik utzi zuen bide hori generoan urte batzuk lehenago, *Stagecoach* filmean.

Filmak suspense-giroa azaltzen du lehenbiziko unetik: Will Kane (Gary Cooper) *marshall* eta Amy Fowler (Grace Kelly) bakezale kuakeroaren arteko ezkontza ospatzen ari da, eta, horren ondoren, biek ala biek herritik alde egiteko asmoa dute, baina, ezteiak diren bitartean, argi sumatzen da Frank Miller (Ian MacDonald) gaizkileak berehala iritsi behar duela, bere taldearekin batera, mendekuzko egarriz beterik. Horixe da bilbe nagusia (bigarren mailako beste bilbe batzuk bai baitaude, interes handikoak gainera). Bilbe horretan, Kane-Cooper-ek hautua egin beharko du: bere planekin aurrera jarraitu, eta hiria eta horko jendea babesgabetuta utzi —gainerako guztiak egiten duten bezala, Mettrick (Otto Kruger) epaileak barne, bere zereginaz arduratu gabe, Justiziaren ikurrak maletan gorde, eta ospa egiten baitu—, edo gaizkile pistoladunen aurrez aurre jarri, ia bakar-bakarrik arituta.



High Noon Fred Zinnemann (1952)

«Intsignia eta errebolberrera dituzu, *sheriff*. Ez duzu hau egiteko eskubiderik.» Horrelaxe erantzungo dio Kane-Cooper-i herritar batek, *saloon*ean haren kolpea hartu ondoren, haren isekekin sumindurik. Izan ere, *High Noon* filmak ez du heroiaren aurrean amore ematen. *Marshalla* legez eraturako agintaria da, eta, hartatik, bere jokaerak legezketasuna zedarritzen duten mugen barruan mugitu behar du (jakina, une eta leku hartako legezketasunaz ari gara).

Gaur egungo Humanitate Klasikoei buruzko sinposioa izan zenean, Mario Onaindiak azterketa bat egin zuen film honi buruz, itzal handiko filma baita, eta sari eta onarpen garrantzitsuak jaso baititu (American Film Institute-ren arabera, hogeita zazpigarren postua betetzen du, filmik onenen zerrendan, eta lehenbiziko postua bere generoan), eta, era berean, hainbat *remake* saiakera, omenaldi, ondorio eta «erantzun filmiko» izan baititu —hala nola Howard Hawksen *Rio Bravo* edo *El Dorado*—. Hitzaldian barrena, Onaindiak filmaren garrantzia azpimarratzen du, tragedia grekoekin formaz duen bat-etortze horretatik harantz joz, eta bereziki nabarmentzen du filmean bi aukeren artean hautatzeko beharra agertzen dela: protagonistak hautatu behar du guztiz bidezkoak diren bi helbururen artean, hain zuzen, ezkondu eta emaztearekin bizitzea, edota bidelapurren burua hiltzea, hau da, helburu pribatu eta helburu publiko baten artean egin behar du hautua» (1997: 84).

Forden filmean lakonikotasuna da nagusi; Zinnemannen filmean, berriz, hanpadura. Filmak argi eta garbi azpimarratzen du (Fernández-Santosen ustez, gehiegi) begien bistako asmo bat. Gidoilariak, Carl Foremanek, hasieran, Nazio Batuen alegoria gisa azaldu zuen filma, eta, hargatik, Joseph McCarthy senatariak zuzentzen zuen eta —2001eko irailaren 11ko atentatu terroristen ondoren Estatu Batuetan sortu den giroaren ondorioz— azken urteetan hainbat aldiz gogora ekarri den Jarduera Antiamerikarren Batzordeak egiten zuen sorgin-ehizaren xedeetako bat zen. Asmo horrekin, bada, filmak areago nabarmentzen du herritartasunak ezartzen duen demokrazia babesteko betebeharra alde batera uzteko arriskua.

*High Noon* filmean gizarte-arloko ekintzarik eza nagusitzen da erabat. Oso herritar gutxi azaltzen dira Kane-Cooper-en alde, ezta ahoz ere; eta andre batek (bere emazteak) baizik ez dio laguntzen tiroketa denean. Salbuespen horiek eta bere andregaiak zenak ildo horretan betetzen duen zeregin anbigua alde batera utzita, gazte batek baizik ez dio laguntzarik eskaintzen *marshallari*, baina haren adina ikusita ezin du laguntza hori onartu.

Peter Stockinger-ek dioenez, kontakizunaren semiotikan, ezer ez egitea zerbait egitea da, eta filmak areago nabarmentzen du balioespen hori. Pertsonaia askok, laguntzarik ez emateaz gain, ahaleginak egiten dituzte *sheriffa* herritik azkar joan dadin, era horretan, beren merkataritzako interesak babesteko izan litekeen gatazkaren aurrean, askatasunaren aurkako suizidio soziala eginez.

Askatasuna hilarazteko ekintza horren erdian, bi pertsona baizik ez dira arituko bidelapurren aurkako borrokan: batek (Fowler-Kelly) maitasunezko leialtasunari jarraiki egingo du; bestea (Kane-Cooper), berriz, herritar gisa duen konpromisoa betez. Onaindiak honelaxe argitzen du Zinnemannen filmaren mezua: norbanakoaren erantzukizuna bultzatzea herritar gisa ditugun betebeharrak betetzeari begira, eta leialtasun desberdinak eta bidezko betebeharrak izatean sortzen diren tirabiren erdian elkarrekin bizitzen ikastea.

Bestetik, «azken belaunaldiko» *westernen* beste proposamen batzuk baliagarriak izan daitezke gazteekin demokraziari eta askatasunari buruzko eztabaidari ekiteko. Hala gertatzen da, adibidez, Lawrence Kasdanen *Silverado* filmarekin, Kevin Costner-en *Open Range* izenekoarekin (iradokitzailea, baina eszena batzuetan huts egiten du, eta mezua anbigua da), edota DVD euskarrian lortzeko zailagoa den John Hustonen *The Life and Times of Judge Roy Bean* (hausnarketa interesgarria baita Zuzenbideko Estatuak duen sakoneko esanahian murgildu nahi dutenentzat). Hala ere, hemen aurkeztu ditugun bi filmek aukera ugari eman-go dizkigute gazteekin gaia eztabaidatu ahal izateko.





## EGUNEROKO BIZITZAREN BIDEZ

Zuri-beltzarekin (ia) hautsi gabe, Marjane Satrapi eta Vincent Paronnauden *Persepolis* filma aurkeztuko dugu. Animazio-zinemako film frantziar honen oinarrian, izaera autobiografikoko lau eleberri grafikoa daude. Horietan, zuzendariak berak argi azaltzen digu Reza Palheviren diktaturako azken urteetan Iranen jaiotako neskato bat nola koskortzen den, emakume bihurtu arte.

Maiz esan dugunez, animazio-zinema tradizioz haurtzaroari loturik egon da, baina, hala ere, istorioa ugari ez daude zorrotz zuzenduta ikusle-mota horri. *Persepolis* filma horren adibide nabarmena da. Filmaren estetikak ez du zerikusirik Disney-ren tradiziozko animazioko filmekin, ez eta manga edo ordenagailu bidezko animazioarekin ere. Eskuz egindako marrazkia da, ederra bere soiltasunean, ekialdeko eredu gogora ekartzen diguna. Itxuraz erakartasun gutxiagokoa den zuri-beltzean eginda dago, eta zinemagintza-arloan esanahi sakonez beterik dauden kolorezko keinuak gaineratu zaizkio horri. Horretan datza, hain zuzen, filmaren indar estetikoaren zati handi bat.

*Persepolis* oso kontakizun bizia da, baina ez da batere azalekoa; mintzaera gogor, zintzo eta zuzen batez ematen du aditzera, hala ahoz nola ikusmen aldetik, Irango gobernuak eragin zuen boikota (ezin baitzuen bestela adierazi). Etengabeko *flashbacken* bidez, filmak herrialde horretarako aspaldi honetako historiako itxaropenak eta desengainuak azaltzen ditu.

Filmaren egilea eta jatorrizko komikiaren marrazkilaria den Marjane Satrapik dioenez, hau ez da «film politiko bat, saldu nahi duen mezu bat duena»; ez, film honetan bere familiarekin duen maitasuna ematen du aditzera. Iraganera egindako etengabeko bidaietan, protagonistak hainbat aldiz jartzen da Jainkoaren eta Marxen aurrez aurre, eta beti agertzen da amonarekin batera. Pertsonaia biografiko horrek kutsu sinboliko garrantzitsua du, alde batetik, giza duintasunaren alde egindako dei bat baita, eta, bestetik, ukoaren eta alienazioaren aurreko aurre egitearen ikurra baita.



*Persepolis* Marjane Satrapi  
eta Vincent Paronnaud (2007)

Zuri-beltza gorabehera, filmean garatzen den egoera ñabardurez beterik dago. Filmak aurrera egiten duen heinean, ikuslea Pertiako herriaren eguneroko bizitzan barneratzen da, hasi Pahlevi familiak boterea eskuratu zuen garaian (1925) eta 1979ko iraultzaren ondotik sortutako erregimen fundamentalista ezarri arte.

Hargatik, nolabait esan daiteke film honetan demokraziari ekiten zaiola bere absentziaren bidez, edo, hobeto esanda, demokrazia lortzeko irrikaren bidez.

## ◎ BATZUK BESTE BATZUK BAINA BERDINAGOAK OTE?

*Animal Farm* (Abereen etxaldea) zuri-beltzean eginda ez egoteaz gain, Technicolor britainiarraren lehenbiko estreinaldia dela esan daiteke, 1955. urte urrutiratuan egina. Atera zen garaian, maisu-lantzat jo zuten, eta helduentzako film gisa sailkatuta egon da urte luzez, metrajeetan barrena agertzen diren indarkeriazko eszenak direla-eta.

Zinemagintza-arloan, film hau Europako animazioko zinemaren irteera izan zen, ordura arte Errusia eta Txekiako tradiziozko filmak baizik ez baitzeuden. Handik urte batzuetara *Watership Dow* film britainiarra aterako zen honen atzetik. Richard Adamsen eleberri batean oinarritutako film hori gerrazaletasunaren eta totalitarismoaren zentsura argia da.

*Animal Farm* filma, formaz, koloreetan eginda dago, baina gidoiaren abiaburua den George Orwellek idatzitako izan bereko liburua, aldiz, zuri-beltzean egindako fabula satiriko bat da, eta Errusiako Iraultza eta ondoko urteetako bilakaera islatzen du. Orwellen lanak arrakasta handia izan zuen mendebaldeko Europa osoan, eta, hortaz, filmaren gertakizuna aski ezaguna da. Etxalde bateko abereek kontrolpean hartzen dute etxaldea, eta jabe maltzurra egozten dute; baina, horren ondoren, iraultza zuzentzen ibilitako txerriek esklabo bihurtzen dituzte, eta, hala, haien poza etsipen bilakatzen da.



*Animal Farm*  
Joy Batchelor eta John Halas (1954)

Filmak literatura-lanari jarraitzen dio oro har, baina garrantzi handirik gabeko salbuespenen bat egiten du, esaterako, Orwellen lanean aurreikusten den amaiera eszeptikoa kendu, eta bukaera baikorragoa agertzen da, abereek erakusten baitute gai direla beren burua berriz antolatzeko eta traizioa egin dieten buruzagien aurka borrokatzeko. Askok Orwellen lanaren manipulazio politikoa ikusi dute bukaera horretan, *gera hotzean* ohikoa zenari jarraiki.



*Animal Farm* film berritzailea izan zen, Disneyren mintzairaren aurrez aurre jarritako hautabidea. Filmak dituen bereizgarrien artean, ikuspegi subjektiboa nabarmentzeko erabiltzen diren enkoadratzeak azpimarratu behar ditugu. 1999. urtean jatorrizko literatura-lanaren beste egokitzapen bat filmatu zuten. Hor, ordenagailuz egindako marrazkiak eta benetako irudiak agertzen dira nahastuta, eta efektu berezi mordo bat ere bai. Hasieratik helduei zuzenduta egon zen egokitzapen hori. Era berean helduei zuzenduta, *Antz* film interesagarria dugu, 3D euskarrian osorik egindako animazioko lehen filma, Eric Darnellek eta Tim Johnson-ek zuzendu eta Dreamworks-ek ekoitzi zuena. Film horretan, inurrien istorio bat agertzen da, baina giza eskubideei eta askatasun demokratikoei buruzko kontakizuna ere bada.

Orwellek bere lanaren hitzaurrean zioenez (beranduago aurkitu zen «Prensa-askatasuna» izeneko hitzaurre horretan), «ortodoxia baten ordezkariak ez du ezinbestez aurrerapena ekarri behar, benetako etsaia zera baita: pentsaera "gramfoniko" errepikakorra sortzea, berdin dio une horretan jotzen ari den diskoarekin bat gatozen edo ez» (2008: 41) Beharbada, horregatik, *Animal Farm* filmak demokraziari buruzko irakurketa sakona egiteko aukera ematen digu, batez ere hasierako iraultzaren zazpi aginduak bakar batera murriztuta geratzen direla erakusten duen sekuentziak: «Abere guztiak berdinak dira, baina abere batzuk beste batzuk baino berdinagoak dira». Esaera horrek Mohandas K. Gandhiren hitz hauek ekartzen dizkigu gogora: «Benetako askatasuna ez da lortuko batzuek boterea eskuratzen dutenean, baizik eta denek noiz-bait agintarien gehiegikeriei aurre egiteko boterea lortzen dutenean» (hemen aipatua: Sábado, 2000: 104).

## MEMORIA BERRESKURATZEA

Badaude beste film batzuk, zinema eta demokraziari buruzko hausnarketa honetan arreta erakartzen digutenak. Azterketa gutxiago garatuta egon arren, orri hauetan beste film eta proposamen batzuk agertzen dira erabiltzeko. Gure oroimenak multzo horretatik berreskuratzen duen lehen filma Charles Chaplinen *The Great Dictator* film ezaguna da.



The Great Dictator Charles Chaplin (1940)

*High Noon* filmeko gidoiariari gertatu bezala, Jarduera Antiamerikarren Batzordeak Chaplin salatu zuen; hala Chaplinek erbestera jo zuen, eta bere bizitzaren amaieran baizik ez zuen berriz zapaldu Ipar Amerika-ko lurra. *The Great Dictator* filmak zerikusi handia izan zuen Chaplinek jasan zuen jazarpenerekin.

Filma eta, batez ere, azken diskurtsoa egin zeneko testuingurua aztertzeke, orduko inguruabar berezi hauek izan behar ditugu kontuan (filma egin ondoren prestatu zuen diskurtsoa, eta behin eta berriz berregin zuen —diotenez, bostehun aldiz baino gehiagotan—): nazien erregimena eta Bigarren Mundu Gerraren hasiera, eta egoera horrek zenbateraino hunkitu zuen Chaplin. Hitler-en «gaitik» harantz joz —Alexander Korda lagunak iradoki zion—, muturreko egoera horretan kokatu behar ditugu Chaplinen arrazoiak.

Egia esan, Chaplinek berariaz egin zion uko amaiera zoriontsu bat egiteari, bere beste film batzuetan horrela jokatu bazuen ere; adibidez, *Modern Times* filmean, bukaeran, bi protagonistak eskutik helduta agertzen baitira, zerumugarantz doan bide batetik aurrera. Itxuraz, hain idealizatua ez zen eta gizatiarragoa zen bukaera bat egiteko hautua egin bazuen ere (zuzendariak zioenez, «ez dago tokirik zerumugatik harantz»), filmak izaera erlijioso handia du, eta hori ustezko izaera marxistaren gainetik gailentzen da. Film honetan Chaplinek ez dio Marxi deitzen, San Lukasi baizik.

*The Great Dictator* filmeko azken diskurtsoak ez du aurrez aurre jartzen gerra eta diktaduren mehatxua jasaten duen benetako mundua eta klaserik gabeko komunismoaren gizartea. Hori egin beharrean, aurrez aurre jartzen du kutsu judu-kristau batez idealizatutako gizarte baketsuaren nahasketa bat, eta gizarte laikoa, aurrerapen, arrazionalismo, askatasun eta tolerantzian oinarri-tutakoa. Laikoen eta, bereziki, sinestunen artean adostasuna piztea zuen xede, nazismoari aurre egin ziezaioten. Hortaz, filma guztiz «zamatuta» dago, garai hartan «esku-hartzearen aldeko» jarreratzat hartzen zenaren zentzuan, faxismoaren aurrerapenaren aurrean demokrazien babesa sustatzeko.

## GURE EKINTZEN ERANTZULE

Nazismoaren porrotaren ondoz ondoko urteak zuri-beltzean islatzen ditu Stanley Kramer-ek (*High Noon* filmeko ekoizleak) *Judgment at Nuremberg* filmean. Filma aukera bikaina da demokraziaren sakoneko esanahia eztabaidatzeko. Bere ekarpenik handiena, funtsean, oinarritzko ardatz baten jiran dago; eta hauxe da: Estatuko botereen banaketa, botere judizialaren independentzia, eta legeak eta zuzenbidea, herritarren askatasuna bermatzen duten tresna gisa ulertuta.

Kramer-ek 1948. urtean kokatzen du ekintza, Nurenbergeko epaiketak deitutakoen bigarren aldia. Epaiketa horietan, hierarkia naziaren zati handi batek akusatuen aulkian eseri behar izan zuen. Epaiketa horietan epaitu zituzten pertsonak Rubensen margolanen aurrean hunkitzen ziren edo negar egiten zuten Pucciniren aria bat entzutean, baina, aldi berean, gai ziren milioika pertsona duintasunik gabe uzteko, torturatzeko, esterilizatzeko edo, zuzenean, deuseztatzeko, pertsona horiek juduak, komunistak edo desgaitu psikikoak zirelako.

Filma hainbat multzotan egituratuta dago, eta multzo horietan aparatu judizial nazionalsozialistako lau kideri egindako epaiketaren pasarteak tartekatzen dira, gerra ondoko Alemaniako errealtatea islatzen duten beste pasarte batzuekin batera. Dinamika horren bidez, zera lortu nahi da: ikuslea auzitegiko are-



toan kokatu nahi da, epaitutako gertakariak eta argudioak entzun ditzan, eta etenaldi edo atsedenaldietan aretotik atera dadin.

Epaileen ikuspegia bi kasuen inguruan ardaztuta dago: kasu batek nazien garaiko Alemanian izan zen zapalkuntzako politika arrazistan zeuden hautatze eugenesikoko jarduteak azaltzen ditu; beste kasuak, berriz, ariarren eta juduen arteko harremanak debekatzen zituzten Nurenbergeko arrazari buruzko legeak bete ez zirela aztertzen du. Abokatu defentsariak eta akusaziokoek argudioak ematen dituzte, eta, bitartean, epaile nagusiak, epaile osagarriak eta ikusleek aukera dute beren iritzia eratzeko («lege demokratiakoek, Zuzenbideko Estatuak bidezko epaiketa batek dituen legezko bermeak eman behar dizkiote denik eta pertsonariak zitalenari»).

Epaiketako gai nagusia ez da salaketen larritasuna (horretaz ez baitago zalantzarik), baizik eta ea akusatuak babesa hartu ahal duten beren defentsarako erabili den salbuesgarri nagusian: erregimen naziak 1933. eta 1945. urteen artean legeria betetzeko ezarri zuen beharra, hau da: zor den obediencia. Dan Haywood magistratuaren pertsonaiak (Spencer Tracy) argi uzten du: «Zigor-zuzenbideak funtsezko oinarri bat du herrialde guztietan: gizakiak beren ekintzen erantzule dira».

Filmean barrena, era honetako eta bestelako baieztapenak agertzen dira tarteka: «Ez genekien zer gertatzen ari zen», «epaileek orduan zeuden legeak ezartzen zituzten», «nola liteke gure ustez 1933. urtean Alemanian kontu iragankorra izango zen hura geroago bizitzeko modu bat izatea?»... Esaldi, datu eta hausnarketa horiek ikuslea interpelatzen dute, eta erantzuna behar dute.



Judgment at Nuremberg  
Stanley Kramer (1961)

Azkenean bi zigor-epai daude: lehen epaia epaiketaren beraren ondoriozkoa da, frogatutako gertakarietan oinarritzen da, eta zigor gogorak ezartzen dizkie errudunei (ez dituzte beteko). Bigarren epaia printzipio etikoetan oinarritzen da, biribilagoa da, eta Zuzenbideko Estatuaren oinarrien ondorioa da. Burt Lancaster-ek antzezten duen pertsonaiak —Ernest Janningek— bere gogokidetasunaz egin diren izugarrikeriak oinazetuta Haywood epailearen barkamen pertsonala eskatzen duenean, epaileak, barkamena eman ez ezik, hauxe adierazten dio zehatz eta argi: «Egoera horretara iritsi ginen [naziek egindako basakeriari] zuk lehenbiziko aldiz gizon bati heriotza-zigorra ezarri zenionean, errugabea zela jakinik».

## GU DENOK GARA BESTEAK

Aliatuen garaipenaren ondoen, nazien erregimena erori zen; eta, horren ondorioz, lehenik Alemania okupatu zuten eta, gero, bitan banatu zuten. Politikari batek sarkasmoz esan zuenez, funtsean, Alemaniaren hedatze-nahi nazionalistak mundu-mailako bi gerra sorrarazi zituen Europan, eta, horiek horrela, «berak hainbeste maite zuen Alemania, non bi Alemania izatea nahiago baitzuen». Sarkasmoak alde batera utzita, 1949. urtetik 1989. urtera arte bi estatu zituen mapa europarra ezagutu dugu: «errepublika federala» eta «errepublika demokratikoa» izeneko estatuak. Errepublika demokratikoan kokatzen da *Das Leben der Anderen* filmeko ekintza. Oraintsuko film bat da hori, 2007. urtekoa, Florian Henckel-Donnersmarck-ek zuzendua. Ironiatik ihes egin ezinean —kasu honetan, ironia terminologikotik—, filmak argi aztertzen du batere demokratikoa izan ez zen Alemaniako Errepublika Demokratikoko (AED) egoera.

Erregimen totalitarioetan aparatu zapaltzaileak erregimen bera dira; ez dago proiekturik, ez etorkizunik, erregimen horiek beren burua zuritzen baitute. Alemaniako Errepublika Demokratikoa ez zuen bermeen atala-sea lortu nahi, pertsona guztiek beren bizitza ahalik eta zoriontsuen eraiki ahal izan zezaten; ez, estatu horretako tresnek herritarren nortasuna indarrez bortxatu eta hezi nahi zuten, herritar bertutetsu bilakatzeko.

Filmeko zuzendaria eta gidoilariak, Henckel-ek, argi azaltzen du noraino iritsi zen estatu handi eta botere-tsu hura herrialdeko herritarren bizitza kontrolatzeari dagokionez. Batzuen ustez, kontrol hori «besteen bizitzari zegokion», Martin Niemöller-en poema ezagunak dioen bezala (Brecht-i oker egokitu zaion poemak): «Lehenik, komunistak eraman zituzten, baina ni ez nintzen arduratu, ni ez bainintzen...». Hala ere, poeman gertatzen den bezala, inork ezin izan zuen kontrol hartatik ihes egin.



*Das Leben der Anderen*  
Florian Henckel-Donnersmarck (2006)

Nazioarteko hainbat sari irabazi dituen *Das Leben der Anderen* filmak ikastaro azkarra eskaintzen digu Alemaniako Errepublika Demokratikoko polizia politikoari buruz, hau da, Stasiri buruz (Estatuaren Segurtasunerako Ministerioari buruz), eta poliziak galdeketetan baliatzen zituen teknikari buruz. Hortik aurrera, ikuslea istorio batean barneratuko da, eta erabateko demokrazia eza etengabea dela ohartuko da. Georg Dreyman (Sebastian Koch) antzerkigileak eta polizia politikoko kapitaina den Gerd Wiesler-ek (Ulrich Mühe) prozesu pertsonal bat bizi dute, zapalkuntzako dinamikak biltzen baititu leku berean. Biak ala biak kiribil



batean sartuko dira, bata zapaltzailea eta bestea biktima izanik, eta, azkenean, horrek goitik behera aldaraziko du haien bizitza.

Zuzendariaren esanetan, filmak, oroz gain, «hurbiletik erakutsi nahi du gizakiek zuzen jokatzeko duten gaitasuna, bide okerretik noraino barneratu diren alde batera utzita». Filmak ate bat uzten dio zabalik baikortasunari, nahiz eta errealtatean beharbada sekula ere ez egon zabalik —Stasi polizia aztertu dutenen ustez behintzat—. Pertsonaia nagusiek, toki desberdinetatik iritsiak izan arren, jarrera bera hartuko dute azkenean, duintasun demokratikoko jarrera, diktaduraren aurrez aurre jarria: antzerkigileak disidentziarekiko konpromisoa erakusten duen urratsa egiten duenean; eta ofizialak, berriz, sistemaren estoldetatik jauzi egiten duenean giza duintasuna lortu nahian.

*Das Leben der Anderen* da Zuzen Zinemara izeneko bildumako hirugarren ale honetan —demokraziari buruzko alean— iruzkinduko dugun azken filma. Ez ditu bere aldaera guztiak agortzen. Ziurrena, antzeko lan bat egin beharko da, demokraziaren historian izan diren bazterketak, haien zentzu politikoa eta soziala, edota etengabe jasaten dituen eraso eta mehatxuen izaera askotarikoa behar bezala aztertze. Hor-taz, ekimenak jarraipena izan behar du.

Film onak ikusteak ez du bermatzen film horien irakurketa kritikoa eta autonomia egingo denik, bilduma honen hasierako lanean frogatu nahi izan dugunez (*Zuzen Zinemara: proposamen metodologikoa*). Era berean, film horiek demokraziarekiko konpromiso-maila altua erakutsi arren, horrek ez du esan nahi demokraziaren aldeko sostengua handiagoa izango denik.

Azkenik, azpimarratu behar dugu ale honetan aintzat hartu ditugun proposamen pedagogikoak bereziki baliaerriak direla gazteenekin garatzeko. Horrelaxe jokatu genuen migrazioei buruzko *Immigrazioa kome-dia gisa* izeneko alea zela-eta egin genuen aurreko hausnarketan. Izan ere, edizio hartan jasota dauden jarduera batzuk erraz erabil ditzakegu hemen aztertzen dugun gaiarekin. Kasu honetan, proposamen zehatz berriak ekarri ditugu, iruzkindutako filmei atxikita.

## BIBLIOGRAFIA

BAZIN, André (1985): *Qu'est-ce que le cinéma?*, Paris, Les Éditions du Cerf.

BOBBIO, Norberto (1991): *El futuro de la democracia*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.

CAMPS, Victoria (2003): «La ciudadanía como libertad», *El Valor de la Palabra/Hitzaren Balioa*, 3, 19-23.

FERNÁNDEZ SANTOS, Ángel (2007): *Más allá del Oeste*, Bartzelona, Debate.

GLUCKSMANN, André (1966): «Sept Mercenaires, l'homme de l'Ouest, je suis un aventurier», hemen: Raymond BELLOUR (zuz.): *Le Western: approches, mythologies, auteurs, acteurs, filmographies*, Paris, Union Générale d'Éditions.

MINA, María Cruz (2003): «Ciudadanía, capitalismo y nacionalismo», *El Valor de la Palabra/Hitzaren Balioa*, 3, 28-53.

ONAINDIA, Mario (1997): «La tragedia clásica y el 'western'. Solo ante el peligro», *Revista de Estudios Clásicos*, 39. (112), 71. eta hurrengoak.

— eta Emilio GUEVARA (2003): *¿Es democrático el Plan Ibarretxe? Visión oteiziana de Euskal Herria*, Vitoria-Gasteiz, Ikusager.

ORWELL, George (2008): *Rebelión en la granja*, Bartzelona, Destino.

RUIZ SOROA, José M.<sup>a</sup> (2008): *Tres ensayos liberales*, Donostia-San Sebastián, Hiria.

SÁBATO, Ernesto (2000): *La resistencia*, Bartzelona, Seix Barral.

SAVATER, Fernando (1994): *La tarea del héroe*, Bartzelona, Destino.



**DEMOKRAZIARI BURUZKO  
HIRU IKUSPEGI**



# Demokrazia eraikitzen: begiratu historiko bat

**Antonio Rivera**



ulertzeko



pentsatzeko



ikasteko

Giovanni Sartori politologoak idatzi duenez, demokrazia era «irrealean» definitzen badugu, sekula ez dugu «errealitate demokratikorik» aurkituko. Izan ere, demokraziari buruzko lan eta eztabaida guztiak izatearen eta izan behar denaren artean mugitzen dira, hau da, kontzeptuaren definizio jatorrizkoaren (eta etimologikoa- ren) eta demokrazia historian barrena eta gaur egun izan denaren eta denaren artean (etimologikoki, herri-aren boterea edo gobernu esan nahi du). Betiko auzia da, asmo idealaren eta errealitatearen artekoa, maiz ertz batean edo bestean hondoa jotzen duena: errealismo konformistaren ondorioz, kontuak dauden bezalaxe daude; eta utopismo nihilistak kritikak eta arbuioak bultzatzen ditu (demokrazia bera zalantzan jartzen).

Bi mutur horien aurrez aurre jarrita, begien bistako kontu hau esan genezake: demokrazia hobetu daitekeen errealitate bat dela, eta, aldi berean soziala dela —ez baita naturala—, eta, beraz, barruko eta kanpoko era askotako arazoek mehatxatzen dute demokrazia, eta etengabe behartzen dute kontzeptua eta, bereziki, edukiak berraztertzerara. Hargatik, ikuspegi historikoak —demokrazia eraikitzen begiesterak— aukera ematen digu demokrazia zein ingurunetan sortzen den (garatzen den edo ezabatzen den) antzemateko, eta zein molde hartzen dituen, edota dituen bilakaerak ikusteko.

Azken batean, ikuspegi historikoak argi berresten du «herriaren boterea» herriarena dela, herri horrek forma eta ahalmena hartzen dituenean —kasuen eta uneen arabera— tradiziozko gizarteko botereen gainean jartzeko, eta, orobat, gobernuen, arrazoiaren, gutxiengoaren justifikazioaren, eliteen, politikarien edota norberaren gainean jartzeko. Azken finean, aukera ematen digu begiratu dinamikoa eta dialektikoa emateko gizartearen antolakuntzari eta gizarte horietan botereak duen garrantziari: batzuetan esku gutxi batzuek bereganatzen dute; bestetan, berriz, banatuta dago gizarte osoan.



## HIRI-ESTATUTIK ESTATU-NAZIORA

Demokrazia, gizartea antolatzeko gainerako sistemak bezala, ez da prozedura naturala; alabaina, norbana-ko batzuek, denak berdinak direla eta erkidego bereko kideak direla onartzen dutenean, prozedura demo-kratikoa naturaltasunez ezartzen da. «Hasierako demokrazia» lehenbiziko ekonomia nomaden, ehiztarien eta biltzaileen bereizgarria izan zen, eta neurri batean zalantzan jarri zen, gizakiak, leku batean kokatu eta nekazaritza, abeltzaintza eta natura kontrolatzeko beste teknika batzuk garatu ondoren, zaildu egin bai- tzen gizartearen antolakuntza, eta bidea eman baitzuen gizaki batzuek beste batzuk mendera zitzaten.

Antolakuntza gentilizioen ondorioz, desberdintasunean oinarritutako gobernu aristokratikoak edo monarkikoak sortu ziren.

Denbora luze igaro ondoren, leku jakin batzuetan «hasierako demokraziaren» ideia berreskuratu zuten. Bortxazko prozesuen ondorioa izan zen hori; izan ere, prozesu horietan herri-osagaia zen arruntena eta hedatuena, eta, horren ondorioz, gutxiengoek itunak egin eta boterea partekatu behar izan zuten gehien-goarekin, gehiengo hori garrantzia hartzen ari baitzen pixkanaka, hala ekonomian nola milizian. Horrez gain, pertsonen arteko berdintasunaren aldeko ideiak zabalduz joan ziren, eta gizakiaren erkidegoari eta norbanakoaren autonomiari buruzko ideiak ere bai. Horixe gertatu zen Grezia klasikoko hiri batzuetan (polisetan) Kristo aurreko 500. urtearen inguruan.

Zehazki, Atenasen Solon-en aurreko eunomiaren (lege onaren) ondoren, 508. urtean Klistenes-en isonomia heldu zen (lege-berdintasuna), eta, horrenbestez, hasiera eman zitzaion demokrazia-aldiari. Aldi horrek ia bi mende iraun zituen, tirabirak eta egoera kontraesankorrak egonda ere. Aginte mazedoniarrekin batera botere oligarkikoa ezarri zen arte iraun zuen (Kristo aurreko 322. urte ingurura arte).

Ez da halabeharra *demokrazia* hitza grekoa izatea; herriaren boterearen garapen-aldi batek 462. urtetik aurrera jo zuen goiena, Efialtesen garaian; eta beste batek, gero, Atenasen unerik gorenean, Periklesekin (443-429). Garai hartan batera gertatu ziren demokrazia eta inperioa: demokrazia, Atenasko hiritar askorentzat (emakumeak, metekoak, egoiliarrak ez ziren atzerritarak eta esklaboak alde batera utzita); eta hiri-estatu horretako inperioa, erregimen politikoari eusteko behar adina baliabide eskuratzen zituena eta, horrenbestez, Atenas beste hiri eta hiritar batzuen menderatzaile bilakatzen zuena. Demokrazia eta inperioa guztiz bat eginda egon ziren, onerako eta txarrerako. Azkenean, barneko fakzio batzuk elkarren aurka hasi ziren, inperio horrek aurrera egin zezan menderatuta egon behar zutelako; eta, amaieran, botere militar indartsuagoek garaitu zuten hiria.



High Noon Fred Zinnemann (1952)

Antzeko zerbait gertatu zen garaisu horretan Erroma hiri-estatuan. Patrizio aristokratikoen aurka borroka ugari egin ondoren, plebeak eskubidea lortu zuen Errepublikako gobernuan parte hartzeko. Horri dagokionez, *res publica* (kontu publikoa) eta *demokrazia* (herriaren gobernu) sinonimoak dira, baina Erroman ez ziren lortu Atenasen eskuratu ziren maila demokratikoak. Alabaina, Errepublika erromatarra penintsula ita-



likotik eta hortik harantz hedatuz joan zen, eta, era horretan, norbanako askok demokrazia hori eskuratu zuten, hiritar erromatarrek zirela aintzatesten baitzioten (Atenasen, berriz, ez zuten hori egin; gizonezkoen klub hautatu batek eratzen zuen demokrazia).

Kontua da benetan egiten zen demokrazia foru erromatarrean gauzatzen zela, eta, hortaz, leku urrutira-tuetako herritarrek ez zutela demokrazian parte hartzeko aukerarik (edo zailtasun gehiegi zutela).

Hiri-estatuko zuzeneko demokraziaren eredua, ospatzeko errituan fisikoki kokatuta zegoena —Atenasen, sei mila lagunek osatzen zuten quoruma gai garrantzitsuak aztertzeko batzarrean—, ez zen gai izan errealitate politiko berrira egokitzeko, lurralde zabala barne hartzen zuen errepublikara egokitzeko. Demokrazia ordezkatzailerak asmatu gabe zegoen artean.



Gainera, Kristo aurreko 130. urte inguruan, Greziako hirietan lehenago gertatu zen bezala, barruko gatazkek, ustelkeriak, militarizazioak eta parte-hartzea murrizteko joerak demokrazia erromatarra ahuldu zuten, eta, azkenean, demokrazia salbatu behar zuen botere pertsonalak —hau da, Julio Zesarrenak eta bere printzerriko ondorengoenak— ezin izan zuten ezer egin, ezabatzeaz gain. Gero, 44. urtetik Erromaren amaiera izan arte, gobernu inperialak izan ziren, eta horiek ez ziren batere demokratikoak.

Bi tradizio grekolatindarren amaierako ekintzan, botere pertsonal omnimodoak indartu ziren, eta, hortaz, horien justifikazio teokratikoa egin behar izan zen: botere inperiala jainkotu egin zen, eta botere horren jatorri jainkotiarrari buruzko teoriaren oinarriak finkatu ziren. Teoria hori nagusi izan zen Erdi Aro osoan, iraultza modernoak iritsi arte. Esperientzia demokratikoei bidea eman zieten arrazionaltasuna eta humanismoa lurperatuta geratzen ziren, jainkoen logikak azpiratuta: jainkoaren jatorrizko boterea, erregeari eskualdatzen zitzaion, eta herriaren boterearen gainetik ezartzen zen. Denboraldi luze horretan, batera egon ziren monarkien (edo aristokrazien) boterearen gehiengoa eta araua, lurralde eta hiri-estatu berri batzuetan zeuden salbuespeneko esperientzia demokratiko batzuen ondoan.

Gutxi gorabehera xii. eta xv. mendeen artean, Italia iparraldeko, Suitzako, Flandesko eta Alemaniako hiri batzuek independentzia handia eskuratu zuten, aurreko botereengandik bereizita, eta, aldi berean, goraldi ekonomikoa, asaldura politikoa eta, denboraldi luzez, herri-gobernuak izan zituzten. Leku horietan

«eskubideen erkidegoaren» nozioa berreskuratu zuten —tokiko, mugatutako eta berdintasunean oinarritako «gu» nozioa—, hori beharrezkoa baitzen jende guztiak hiria babesteko zereginetan esku har zezan. Horrez gain, entente dinamiko bat ezartzen zen patrizioen eta herriaren artean, eta gehienetan gremioek ordezkatzeko eta indartzen zuten herria. Lübeck, Florentzia, Venezia eta maila beheragoko beste hiri batzuek tresna konplexuak ezarri zituzten ordezkari bermatzeko eta, batez ere, kargu publikoak izateko; hor, herriak —herritar gehienek— ordezkapen nabarmena eta askotarikoa izan zuten.

Batzuetan, tokiko batzarreko ordezkari zuzeneko sistema egokitu zen, eta hiria baino zabalagoak ziren barrutietara iritsi zen zeharkako ordezkari-sistema baten bidez. Horixe gertatu zen Islandian Althing izeneko batzar nazionalarekin, edo Suedian Riksdag izeneko estamentuetako sistemarekin. Alabaina, esperientzia bakartuak eta salbuespenekoak dira horiek. Kontua da hiri-estatuetako demokrazia horiek erori zirela, estatu-nazio modernoak azaldu zirenean; eta estatu-nazio horiek garai hartan zuzenbide jainkotiarreko monarkia absolutuak zirela, herriaren gobernutik oso urruti kokatuta.



Judgment at Nuremberg  
Stanley Kramer (1961)

Kasu horietako bat Ingalaterrakoa izan zen: etorkizuneko instituzio demokratikoen eta mota horretako iraultzen ernamuina izan zena. Izan ere, XIII. menderako, 1272. eta 1307. urteen artean, Eduardo I. Errege zela, parlamentuaren tradizioa abiarazi zen: nobleak bileran batzen ziren, erregeari aholku emateko, eta diru-laguntzak bozkatzeko zituzten. Denboraren poderioz, parlamentu horrek gero eta zeregin gehiago eskuratu zituen, eta bi *house* edo «etxetan» banatu zen: batetik, etxe aristokratikoa zegoen, lordena, eta, bestetik, herrikoia zena, komunena. Gainera, epaile batzuek legea interpretatzen zuten, eta, hala ere, Ingalaterrakoa monarkia absolutuen eredu orokorrari jarraitzen zion.

Hala ere, XVII. mende inguruan, Koroa eta Parlamentua aurrez aurre jarri ziren, prozesu luze eta konplexu batean: alderdien arteko gerra zibila izan zen, errege bat hil zuten, buruzagi iraultzaileek iraultza piztu zuten, *levellers* deitutakoek («nibelatzaileek», komunistek) proposamen iraultzaileak egin zituzten puritanoei eta Cromwellen gobernuari, alderdi politikoen aurrekariak izango ziren bi talde eratu ziren, interes partikularren ordezkarietan (batetik, aristokratikoak eta lurjabeak ziren *tory* anglikanoak, eta, bestetik, *whig* izeneko merkataritza eta erlijiozko disidenteak), dinastia aldatu zen, eta, garrantzitsuena dena, Eskubideen Adierazpen bat atera zen (Bill of Rights, 1689), eta horrek argi bermatzen zuen parlamentuko hautapen askea, adierazteko eta parlamentuan eztabaidatzeko askatasuna, epaileen aurrean ordezkariak zuten



immunitatea, zergak Parlamentuan onesteko betebeharra, eta parlamentuan hartutako akordioak indargabetzeko monarkak zuen ezintasuna. Gero, kultuzko askatasuna ezarri zuten, muga batzuekin, eta horrek bidea eman zion Eliza eta Estatuaren arteko bereizketaren printzipio garrantzitsuari, eta gizartearen baitan zegoen aniztasuna berez onartzeari eta Estatutik ere bereizteari.

Ez zen demokraziarik finkatu, monarkia konstituzional bat baizik; eta, hor, gizarteko maila jakin batzuek ordezkari zuten —botoa emateko eskubidea oso murriztuta zegoen—, Parlamentuaren eta Koroaren botereak orekatuta zeuden, eta oinarritzko eskubide batzuk aintzatesi zizkieten herritarrei (*habeas corpus*-a eta beste batzuk).

Bestetik, Locke bezalako pentsalarien bidez, berriz itzuli zen filosofia arrazionalista, gizakiari berez zegozkion eskubide naturalak eta herriaren gobernuaren logika aldarrikatzen zituena. 1688. urteko Ingalaterrako «iraultza loriatsua» dago hurrengo mendean Estatu Batuetan eta Frantzia izan ziren iraultzen oinarri; eta hiru iraultza horiek mugarrak izan ziren gaur egun demokrazia izenez ezagutzen dugun horri dagokionez.



## ORAINGO DEMOKRAZIA: PENTSAMENDUA ETA LANA

Antzinate klasikoan ez bezala, oraingo demokrazian sistema politikoak gauzatu aurretik hausnartu egin ziren. Modernitateko filosofoak bat etorri ziren, eta herria burujabea eta herritarrak maila berekoak zirela adierazi zuten, hala Lockek nola Marxek, edota Montesquieu, Rousseau, Madison, Sieyès, Robespierre, Tocqueville, Stuart Mill eta beste batzuek. Horixe zen ideia demokratikoa eratzen zuen oinarri komuna. Hortik aurrera, gauza desberdinak pentsatu zituzten demokraziaren mekanikaz edo demokrazia gauzatze-ko moduz, herritarraren eta boterearen forma politikoaren (arauz, Estatuaren) arteko harremanez, eta demokrazian legeek zituzten eginkizunez eta helburuez.

Zuzeneko demokraziaren eredu klasikotik demokrazia ordezkatzailaren eredura igaro zen, baina bilbe instituzionala konplexua eta eztabaidatua izan zen. Batzuk, esate baterako Rousseau, zuzeneko demokraziaren muturreko babesleak izan ziren, uste baitzuten herriaren burujabetasuna ezin zela zatitu, ezta eskuordetzan eman ere. Beste batzuen ustez, adibidez, Sieyès edo Tocquevilleren ustez, gobernuarentzat onenak zirenen onurarako lerratzen zen botere hori eskuordetzan emateko hautapen-prozesua; ibilbidean, ez zen ezer galtzen, irabazi egiten zen, gehiengoaren gobernu «soilak» egin zitzakeen gehiegikerien beldur baitziren. Parisko Komunan (1870. urtekoan) Marx eta tradizio libertariokoek zuzeneko demokrazia gauzatuta ikusi zuten, bere aukera guztietan ikusi ere, hala arlo politikoan nola sozialean.

Demokraziari buruzko eztabaidan etengabe azaldu den beste gai bat estatuaren botereak mugatzeko beharra izan da. Montesquieu ospetsu bilakatu zuen baieztapen hau: «botereak boterea eduki behar du», hau da, instituzioen arteko harremanetarako arauak «boteren oreka» finkatu behar dute, botere betearazle, legegile eta judizialaren artean, hartara, ez joera edo zati bat ez bestea nagusitu ez dadin. Tocquevillek «kontrapisuen» zeregina nabarmendu zuen, hala nola, iritzi publiko sendoarena edota sistema judizial independente batena. Hausnarketa sakonak ziren, gehiengoak botere osoa erabiltzeko eskubidea zuela zioen baieztapenetik harantz zihoazenak: demokrazian, legeek muturreko boterea mugatu behar dute, berdin dio

jatorriz botere hori baliatzea legezkoa den edo ez. Demokrazia klasiko grekolatindarrean ez bezala, orain demokrazia ez da soilik «herriak nahi duena», hau da, botere bat baliatzea, botere bat mugatzea baizik.

Hirugarren eztabaida historikoaren ardatza demokraziaren azken xedea izan da. Hor, bi ikuspegi egon dira borrokan: batetik, ikuspegi liberal anglosaxoia, botere mugatu eta kontrolatuen aldekoa, herritarrei oinarria eman nahi diena beren zorientasuna eraiki dezaten; eta, bestetik, ikuspegi esku-hartzaileagoa —Robespierre eta tradizio jakobinoaren muturrean—, «herritar bertutetsuak» sortu, eta ekiteko eremuak eta Estatuak zaintzeko duen eginkizuna indartu nahi dituen.

Hain zuzen, esparru horretan eztabaida honek hartu du garrantzia: demokrazia berez xede bat den edo bitarteko bat den kontuak beste era batera egon daitezzen lortzeko. Sozialismoan izan diren familiak eztabaidan aritu dira horri buruz, susmo txarrez hartu baitute demokrazia «sistema politiko» huts gisa hartzen duen ikuskera, edota gizonen arteko harreman zibilizatuaren agertoki gisa eta gatazkak era baketsuan konpontzeko prozedura gisa (edota boterea gauzatzeko modu gisa) hartzen duen ikuskera, abiaburutik herritarren artean dagoen desberdintasun soziala zalantzan jarri gabe, horrek eginezin bilakatzen baitu demokrazia.

«Demokrazia sozialak» —horrelaxe deitu baitzuen geroxeago Marshallék— gutxieneko berdintasun sozio-ekonomiko batzuk bermatu behar ditu herritarren artean, fikzio politiko huts bat izan ez dadin. «Zuzenbideko Estatu soziala» eta «ongizatearen estatua» bat etorri dira arlo horretan, ezin ukatuzko lorpenak izan baitira, baina oraindik argitu gabe dago demokraziaren eta desberdintasun sozial kapitalistaren artean berez dagoen kontraesana. Hargatik, sozialismo historikoan sakon eztabaidatu zen ea noraino ziren sendoa-goak beste botere batzuk (ekonomikoak, politikoak...) gehiengo demokratikoaren boterea baino, eta ea zein neurritaraino baliatu behar zen demokrazia (adibidez, botoa ematea) politikoki aurrera egiteko, baina gero gehiengoaren diktadura ezarri behar ote zen, demokrazia aldarazten duten «botere faktiko» horiek betiko ezabatzeko.

Eztabaidak aurrez aurre jarri ditu, batetik, tradizio sozialista demokratikoa, Bernsteinek —eta lehenago ere Lasallek— abiarazitakoa eta Kautskyk jarraitua («demokrazia bitarteko bat eta helburu bat da. Sozialismoak borrokatzeko duen bitartekoa eta sozialismoa gauzatzeko modua») eta, bestetik, beste tradizio bat, Leninek eta xx. mendeko esperientzia komunistek sorrarazitakoa («askatasuna, zertarako?»).

Kontua da demokraziaren eta kapitalismoaren arteko kontraesan hori ez dela inola ere konpondu: esperientzia komunistak azkenean diktadura bilakatuta amaitu ziren, eta demokrazia merkatu askeko sistemetan baizik ezin izan da gauzatu. Eztabaida hori demokraziaren eta gure sistema politikoaren etorkizunaren gune nagusian dago.

Arau horretatik abiatuta, demokrazia, herriaren burujabetasuna eta legezko eta bidezko sistema politiko bat lortzeko borroka mugiarazi du historia azken bi mende hauetan. Eta, azken batean, kontuen sorburua Antzinatean gertatutakoaren antzekoa da: monarkien edo aristokrazien botere omnimodoa hautsi zen, hirugarren estatuan, burgesian eta herrian bertan azaltzen ari ziren sektore berriek egin zuten aldi baterako itunaren ondorioz. «Herri osoa» —orain «nazioa» deituta— izan zen prozesuan rol nagusia jokatu zuen subjektu kolektiboa, nahiz eta bere altzoan estatus aldetik desberdintasun nabariak egon.





Estatu absolutisten jarraipena krisialdi sakonean zegoen garai hartan, itun horrek iraultzen sail bat ekarri zuen (hasteko, XVIII. mendeko aldi atlantikoa —Ameriketako kolonia britainiarrak, Frantzia—, gero, XIX. mendeko iraultza «burges» liberalak, eta, azkenik, XX. mendeko herri iraultzak edota proletarioaren iraultzak), eta, era horretan, funtsean, instituzio demokratikoak finkatu eta herritarren eskubideak legezatu ziren.

Baina prozesu luzea eta dinamikoa izan zen. XIX. mendean eta XX. mendeko zati handi batean, «demokrazia liberala» sendotu zen batez ere. Demokrazia horretan erregimen konstituzionala eta muin parlamentarioa zeuden garatuta gehienbat, eta alderdi politikoaren eta era askotako adierazpen politikoaren sorrera ere bai (prentsa, iritzia); eskubideak unibertsal bilakatzeari eta herritar guztiek politikan parte hartzeko aukera izateari dagokienez, aldiz, arlo horiek ez zeuden hain garatuta.



The Man Who Shot Liberty Valance  
John Ford (1962)

Botoa emateko eskubidea izan zen borroka askoren ardatza, parlamentarismo liberaleko erregimen horietan (horixe baitziren, demokratikoak baino gehiago) bazterrean uzten baitzituzten herritar gehienak. Adibidez, aurreratuago zegoen herrialdean —hau da, Britainia Handian—, 1832. urtean hogeiturotik gorako biztanleen % 7k zuten eskubide hori; eta 1914an, kartisten eta sufragisten borroka handiak izan ondoren, biztanleen heren batek ere ez zuten eskubidea lortu. XIX. mendearen amaieratik aurrera, gizonezkoen sufragio unibertsala hedatuz joan zen —mende horretan ohikoa izan zen sufragio murriztua gaindituta—, eta, azkenik, Lehen Mundu Gerraren ondoren, emakumeak ere barne hartu zituzten eskubide horretan.

Inguruabar horren ondorioz, hemeretzigarren mendeko demokraziak pixka bat irrealak ziren, nahiz eta parlamentuak, konstituzioak, hauteskundeak, botere-banaketa edo prentsa askotarikoa hor egon. Robert Dahlek dioenez, demokrazia izateko eskakizunak —hautatutako kargu publikoak, hauteskundeak aldiro, adierazteko askatasuna, informaziorako iturri alternatiboak eta independenteak, elkartzeko eskubidea eta herritartasun inklusiboa— XX. mende ia osoan aurreratuta zeuden herri gutxi batzuetan baizik ez da gauzatu, herrialde horietako askotara azken urte hauetan baizik ez da hedatu, eta kasu gehienetan oso modu inperfektuan, mugatuan edota itxuragabetuan hedatu da. Demokrazien kalitatea «neurtzen» duten nazioarteko erakundeek txostenek (adibidez, Freedom House-ren mapak) gaur egun demokrazien artean sartzen dituzte Europa, Amerika eta Ozeaniako herrialde gehienak, baina alde batera uzten dituzte Asiako eta Afrikako herrialdeak, eta horietan bizi dira, hain zuzen, munduko biztanle gehienak.



## MEHATXU ZAHARRAK, BETIEREKOAK

Azken hamarkadetan demokrazia hedatuz joan da sistema politiko gisa, eta, beraz, nolabait esan daiteke ondoz ondoko hainbat «bolada» izan direla (Europako hegoaldean, Hego Amerikako konoan, Asiako hego-ekialdean; gero, Europako ekialdean eta, oraindik porrot eginda, Erdialdeko Ekialdean). Erkaketa eginez gero, prozesu baikor eta geldiezina dela esan genezake. Hala ere, errealitatea ez da hain itxaropentsua. Herrialde batzuek (adibidez, Errusiak) gainerako demokrazien bereizgarria den bilbe instituzional osoa garatu dute (parlamentua, botere-banaketa, alderdi politikoak...) eta demokrazia horietako tresna batzuk ere bai (hauteskundeak, iritzi publikoa, prentsa askotarikoa, interesen ordezkapena...), baina, gero, funtzionamendu demokratikoa txarra edo oso txarra da, eta, beraz, ia itxura besterik ez dela esan daiteke. Beste herrialde batzuetan, gizartean dauden arazoak hain dira premiazkoak eta sistema liberal-demokratikoetako krisia hain da larria (adibidez, Latinoamerikan), non demokraziak ez baitu behar adinako erakarpenik, eta herriaren parte-hartzearen bidez nagusikeriazko edo buruzagitzako joerak indartzen baitira. Aurreratu ta dagoen eremu batean —esate baterako, Europan—, estatuen arteko errealitate berria izateko saiakerak, Batasunak, behaztopa egingo du, urria baita erabakiak hartzeko duen legezketasuna; eta hori hala da, funtsean, batetik, herritarrak urrutiratuta daudelako eta interesa galdu dutelako, eta, bestetik, elite eta *lobby* batzuek erabakiak hartzeko boterea bereganatu dutelako. Eskualdeetako agertokietan, bakoitzari dagozkion historia eta arazoak kontuan izanik, demokrazia mehatxaturik dago egoera berrien aurrean; eta, hein handi batean egoera horiek konpontzen ez direnez, herritarren atsekabea eta aurkako jarrera areago pizten dituzte. Atenas zaharrea bezala.

Alabaina, mundu klasikoan ez bezala, gure demokrazia askoz ere konplexuagoa da, hemen eta orain, herritarrak ez baita herritar erkidego jakin bateko kide izateagatik; ez, berez da herritar, giza izaerak berak bilakatzen du herritar. Horregatik, eskubideek, eta eskubideak izateko eskubideak, teoriarik behintzat, ez dute mugarik. Nazioarteko erkidegoak demokrazia gisa ikusten du bere burua —nahiz eta teorikoki izan berriz ere—, eta onbidez hartzen ditu bere gain bere demokraziaren egoera eta sistema horren irismena, azaltzen ez den lekuetan.

Horrek ere arazoak pizten ditu. Adibidez, herrialde guztiei ezartzeko moduko demokraziaren interpretazio eta bide bakar bat ba ote dagoen, herrialde horien kulturako edo bestelako ezaugarriak alde batera utzita edo horiek gaindituta. Postmodernitateko zalantza metodiko berria arlo horietara ere iritsi da. Herrialde demokratikoetan demokraziaren kalitatea baliogutxituta dago, betiereko arazoa baitago tartean: herriak bere patuaren jabe izateko duen (edo ez duen) borondatearen eta gutxiengoek herriaren ginetik ezartzeko duten berezko joeren arteko tirabira.

Gaur egungo gizarte konplexuan era guztietako egoera arriskutsuak azaltzen dira: «demokrazia mediatio-koa» kontzeptua (eta desitxuratzekoak), alderdietako elite politikoaren profesionalizazioa (eta herritarren baterako interesekiko urrutiramendua), herritarren ardurarik eza balio demokratikoaren zabalkundearekiko, herritarrak bere burua eskubideen jabe eta erabiltzaile gisa baizik ez sumatzea, erabakitze-gunea gero eta urrutiago kokatzea baina haren ondorioak norbanakoengandik gero eta hurbilago egotea, gizarte-sare formalak eta informalak barreiatzea norbanakoaren babesik ezaren kariatz eta ondorio gisa, edo arazoak konpontzeko terminologia nahaspilatsua eta, maiz, edukirik gabekoa erabiltzeko joera (adibidez, «ahalduntzea», «gubernantza», «burujabetza anizkuna edo partekatua»...).



Bizi garen munduko alderdi honetan, demokraziak arazo ugari ditu; munduko beste alderdian, arazo horiek dituzte, eta konpontzeko askoz zailagoak diren beste batzuk ere bai. Aurrera egin duten herrialdeen artean, herritarrek demokraziaz duten pertzepzioaren ondorio diren horiek har ditzakegu oinarritzotzat. XX. mendearen bigarren aldian, demokraziak estatuaren eskumena zabaldu du, pribatutasunetik oso hurbil dauden esparruetara hedatuta. Zuzenbideko Estatu sozialak eta ongizatearen estatuak horrelaxe eskatu dute. Baina, aldi berean, herritarrek argi ikusi dute zerbitzuak egiten dituen estatu horixe mehatxu bat dela beren autonomiari begira, eta, hargatik, garbi adierazi dute gune zabalagoak mugatu behar direla, estatuak gune horietara sudurra sartzerik izan ez dezan.

Estatu demokratikoak bizitzarako gutxieneko baldintzak eta aukera-berdintasuna babestu behar ditu, bai eta oinarritzko eskubideak eta bermeak ere; baina ezin du legerik egin, norbanakoaren irizpide pertsonalari dagozkion eremuetan sartuta. Nolanahi ere, kontua ezin da errez ezarri; izan ere, hainbatetan, herritar bartzuen ustez eskubideak ziurtatzen ari direnean, beste bartzuen ustez, berriz, eskubideak urratzen ari baitira, eta alderantziz. Har dezagun, adibidez, abortatzeko eskubidea edo eskolan Erljioa ikasgai gisa izatekoa.

Aurrera egin duten herrialdeetan, ez dira konpondu ez gainditu demokraziaren ohiko arazoak eta mehatxuak. Alabaina, funtseko arazoa herritarren eta estatuaren arteko harremana da; eta, hor, azken batean, herritarren eta erkidegoaren arteko harremanaren auzia dago jokoan. Oraintsuko historian eskubideek aurrera egin dute, eta are oraintsuagoko historian hauteskundeen sistemak azaldu dira. Era horretan, herritarra eskubide horien onuraduna besterik ez da, eta alde batera uzten ditu erkidegoarekiko dituen betebeharrak eta erantzukizunak. Eta beharbada, lehenbiziko abstrakzio horren ondorioz, uste du demokrazia hor egon dela beti eta hortxe jarraituko duela betiko; demokrazia egon dadin, berak ez duela esku hartu behar, ez eta inplikatu behar ere; demokrazia berari zerbitzu egiteko dagoela hor.

Demokrazia herriaren burujabetza gisa edo «herriaren edota gehiengoaren erabateko aginpide» gisa ulertzeko joera zaharra eta txarra itzuli da leku askotara, eta konpontzeko gaitzak diren zailtasunak sorrarazi ditu. Demokrazia gaizki ulertzen da, mota guztietako arazoaren konponbidea balitz bezala hartuta, gure garaian dauden arazo ugari eta askotarikoen irtenbide gisa. Horren ondorioz, ahaztu dugu demokrazia «bere soilean» eta batez ere zer den: ez da «gizon onak» egiteko ideologia bat; sistema politiko bat baizik ez da, eta behar bezala bermatu nahi du arrazoizko era batean eta gizaki guztiek parte hartuta aurre egingo zaiela arazoei, eta ahalegina egingo dela negoziatutako irtenbideak aurkitzeko. Demokrazia gaitz guztien irtenbidea dela ulertu beharrean, arazoak konpontzeko bide gisa hartzen da. Horri dagokionez, demokrazia gehienbat gatazkak konpontzeko sistema gisa hartzen duen ikuspegian, funtsezkoa da herritarrek legearekiko begirunea izatea. Are gehiago, horixe da, hain zuzen, gehiengoak botere osoa bereganatu ez dezan herritarrek babesten dituen prozedura bakarra.

- **Antonio Rivera Blanco** Historia Garaikideko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), baina azken urteotan legebiltzarkidea izan da Eusko Legebiltzarrean. Historialari gisa, azken bi mendeotako euskal gizartea hartu du ardatz modura gehienbat. Gai asko aztertu ditu, historia sozialaren ikuspegitik (hiri-historia, lan-mundua eta langileak, ezkerak, Euskal Herriko ezkerak eta auzi nazionala...). Errektoreordea izan da bere unibertsitatean, eta kultura-arloko hainbat proiektu sustatu ditu. Iritzi-artikuluak argitaratzen ditu maiz Euskal Herriko prentsan.



# Zuzenbideko Estatuak, demokraziaren bermea eta babesa

**Juan Luis Ibarra**



ulertzeko



pentsatzeko



ikasteko

## ZUZENBIDEKO ESTATUAREN ETA LEHENENGO KONSTITUZIONALISMOAREN HISTORIA- ETA KULTURA-ARLOKO KOORDENATUAK

Botere publikoen egituraketak, gaur egun Zuzenbideko Estatuak izenez ezagutzen dugun horrek, bi mende eskas baizik ez ditu. Denboraldi horretan, prestigiozko marka gisa iraun du formulak kultura politikoaren arloan. Askotan, gobernu-molde zehatz baten aurka legezketasunik eza leporatzeko kezak egitearekin batera, maiz aditzera ematen da gobernu-molde horrek ez dituela Zuzenbideko Estatu bati dagozkion baldintzak betetzen.

Hala ere, Zuzenbideko Estatuaren prestigiozko irudia zabal hedatu da gizartetik, harreman soziopolitikoaren munduan, sarritan, nozio zehaztugabeak edota guztiz okerrak diren nozioak erabili direlako, bizitza publikoaren antolamendu honi dagokionez.

Zuzenbideko Estatuaren nozioak ez du edozein erakunde politiko barne hartzen, ez, behintzat, erakunde horretan botereak aurrez zehazteko eta arautzeko legezko iturria baldin bada. Gobernatzeko moduari eta botere publikoak egituratzeko erari dagokio formula. Hala, legearen eta Zuzenbidearen ikuskera hori ez da soilik formala, oinarritzkoa ere bada, legea eta Zuzenbidea botere publikoak legezketzat jotzeko tresnak baitira, eta estatuaren helburu instituzionala herritarren oinarritzko eskubideak bermatzea baita.

Hori guztia, konstituzionalismoak bere bilakaeran barne hartu dituen nozio dogmatikoak eta oinarri funtzionalak abiaburutzat hartuta. Horren emaitza da botere publikoak eraginkortasunez mugatzen eta kontrolatzen direla, eskubideari lotuz. Indarrean dagoen Zuzenbideko Estatuaren formulari jarraiki, alde batetik, botere publiko guztien titulartasunak eta gauzapean legera jo behar dute, hori baita beren legezketasuna gaitzen duen baldintza formala. Horrez gain, legeak edukiak baldintzatu behar ditu, finkatutako botere publiko hori gauzatzeko baliozketasunari buruzko oinarritzko edukiak.

Hargatik, Zuzenbideko Estatuaren esanahiari buruzko hausnarketa ia beti hasten da kalifikazio hori jasotzen hasi ziren lehen erakunde politikoak aipatuz. Estatu Batuei buruz ari naiz, 1787ko irailaren 17an Filadelfiako Konbentzioko ordezkariak onetsi zuten Konstituzioaren emaitza baitira Estatu Batuak.

Eta lehen Errepublika Frantziarra (1793-1804) sorraraziko zuen Batzar Nazionalak 1791ko irailaren 3an onetsi zuen Frantziako Konstituzioak ezartzen duen botereaz ere ari naiz.

## ERAGILE AKADEMIKOA ZUZENBIDEKO ESTATUAREN DEFINIZIOAN

Hala ere, Zuzenbideko Estatuaren formula —adierazitako funtsezko aldaeran— Frantzian eta Ameriketako Estatu Batuetan iraultza burgesaren eta liberalaren ondorio konstituzionalak finkatu ondoren zedarritzen da. 1832an eskaini zuten lehenbiziko nozio akademikoa, gaur egun Zuzenbideko Estatu (*Rechtsstaat*) deitzen den zera horri buruz. Tübingengo unibertsitateko irakasle azen Robert von Mohlek atera zuen nozio hori. Geroxeago, jarduera politiko garrantzitsua izan zuen, Alemaniako liberalismo konstituzionalaren lerroetan.

Zuzenbideko Estatuaren nozio horren azpian, Mohlek elkarbizitzako eredu bat zehazten du. Bertan, estatuak arrazoizko eran antolatzen du taldeko bizitza, eta pertsona hartzen du erreferentziako puntutzat; pertsonak berez balio bat du, askatasunez garatu nahi da eta jarduteko askatasuna izan nahi du, arrazoien eta Zuzenbidearen mugen barruan (Abellán, 1983). Zuzenbideko Estatuaren nozioak duen lehenengo denotazio akademiko horretatik abiatuta, berehala bilakatuko da, erkidegoko bizitzaren arrazoizko antolamenduaren lortzeko molde eta moduari buruzko hausnarketaren erritmorat.

Hausnarketaren alderdi eragile horretan garatuko da Zuzenbideko Estatu legeak mugatutako estatu gisa hartzen duen indar-idea. 1856an Sthahlek esandakoari jarraiki, Zuzenbideko Estatuak «juridikoki ezarri eta bermatu behar ditu, zehaztasun osoz, bere jardueraren bideak eta mugak, herritarren askatasunaren eremua ere bai, eta ez du ideia moralik egin behar, Zuzenbideari dagokion esparrutik harantz zuzenean joz...».

## KONSTITUZIONALISMOAREN ERAGILEA, ZUZENBIDEKO ESTATUAK IZAN DITZAKEEN INDAR BERMATZAILEAK DINAMIZATZEKO OSAGAI GISA

Korrelazio estua dago Zuzenbideko Estatu nozioaren eta lehenengo konstituzioen formula kanonikoaren artean. Alfonso Ruiz Miguelek esan zuenez (2002), konstituzio horien indar-ideiak «funtsean hiru hauetara muga daitezke: lehenik, legeak duen lehentasuna, eta errealitatea berritzeko eta eraldatzeko balio berritua duela sinestea; bigarrenik, botere politikoaren aurretik ezarritako mugen mende jartzeko eskakizun liberala, eta, aldi berean, norbanakoaren askatasun batzuk bermatzea, dagozkion eskubideen eta betebeharren esleipena argi eta ziurtasunez eginda; eta, azkenik, segurtasun juridikoa bilatzea, testu idatzi soil eta argi batek eskaintzen duen ezagutza orokorraren bidez.



Hargatik, ez da harritzekoa gure kultura politikoan berdintzat dezagun Zuzenbideko Estatu eta botere politikoaren arautze juridikoaren diseinua eta haren mugak, XVIII. mendearen azken hereneko lehenbiziko konstituzioetan abiarazitako oinarrizko eskubideei dagokienez. Eta, zehatzago, Europan, berezia bada ere, Zuzenbideko Estatu, «Antzinako Erregimenaren» aurrez aurre jarrita, absolutismo monarkikoak baliatutako botere politiko mugagabearekin berdinduko da, aipu apokrifoan Frantziako eta Nafarroako Luis XIV. erregeari bizkarreratzen zaion «Estatu neu naiz» esaera ezagunak adierazten duen absolutismoarekin.

Alderantziz, zentzuzkoa da, iraultza liberaletatik hasita gaur egunera arte, konstituzionalismoa eskaintzea eragin iraunkor gisa, eta ez bakarrik Zuzenbideko Estatu liberala eratzeko, horren geroko onarpenean ere bai, helburu instituzional, konpromiso eraginkor gisa, askatasun eta berdintasun egiazkoak eta eraginkorrak sustatzeko. Bilakaera hori Bigarren Mundu Gerratik aurrera abiaraziko da, Zuzenbideko Estatu sozialaren izenez ezagutzen dugun formularekin.

## ZUZENBIDEKO ESTATUA LEGEZKOTZEKO ERAGILE FILOSOFIKOA

Hasieran, iraultza liberaletatik eta burgesetatik atera zen estatuak Zuzenbideko Estatuaren jatorrizko formula akademikoa gauzatu zuen. Lehenbiziko konstituzionalismoak tresna garrantzitsua eskaini zion Zuzenbideko Estatuari botere politikoa arrazionalizatzeko. Eta, gainera, Zuzenbideko Estatu liberalera eraman zuen lehen konstituzionalismoak jaso zuen legitimazio filosofikoa. *Iusnaturalismo* arrazionalista izenez ezagutzen den pentsamenduaren joeraz ari naiz, Emmanuel Kantek Zuzenbideari buruz zuen ikusmolde deontologikoan sustraituta dagoena.

Era horretan, Zuzenbideko Estatu liberalak legitimazioa du, pertsonaren oinarrizko eskubideak babesteko xedea baitu; eskubide horiek estatu bera baino lehenagotik zeudela uste da, eta haiek ezagutzeko arrazoiak abiatu behar da.

Legitimazio horren formula dogmatikoa 1789. urteko abuztuaren 26an Frantziako Batzar Nazionalak onetsi zuen gizonaren eta herritarraren eskubideen Adierazpenean agertzen da. Adierazpenaren hitzaurrean, uste sendo hori agertzen da, alegia, pertsonak berezko eskubideak dituela, eskubide besterenezinak, inongo gobernariri ezin besterenduzkoak: «Frantziako herriaren ordezkariak Batzar Nazionala eratu dute, eta zoritxar publikoen eta gobernuen ustelkeriaren arrazoi bakarra gizonaren ezjakintasuna, ahanztura eta gutxiespena direla kontuan izanik, erabaki dute gizonak dituen berezko eskubide besterenezinak eta sakratuak adierazpen gailen batean azaltzea. Horrenbestez, gizarteko kide guztiek beti aurrean izango duten adierazpen honek une oro gogoraraziko die zein diren dagozkien eskubideak eta betebeharrak. Horrela, legegintzako boterearen eta botere betearazlearen egintzak une oro erkatu ahal izango direnez instituzio politiko guztien helburuekin, gehiago beteko dira. Era berean, herritarren erreklamazioek oinarri soil eta eztabaidaezinak izango dituzte euskarritzat hemendik aurrera, eta, beraz, beti izango dira Konstituzioaren onurarako eta guztien zorientasunerako».

Eta Adierazpen horren 2. eta 16. artikuluetan, esplizituki agertzen da oinarrizko eskubideak zaintzeko helburu instituzionala: «Elkarte politikoen helburua gizonaren berezko eskubide preskribaezinak zaintzea da...»; «Eskubideak bermatuta eta botereen banaketa zehaztuta ez duten gizarteek ez dute konstituziorik».

xix. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, ikusmolde iusnaturalista arrazionalistak indarra galduko du Zuzenbideko Estatuaren paradigma filosofiko gisa, pentsamendu juridiko-filosofikoaren beste ildo batzuen aurrean. Zehazki, xix. mendeko konstituzionalismoak iuspositibismo edo positibismo juridiko izeneko joeraren eragin handia jasoko, bereziki, Norberto Bobbio zuzenbide positiboaren teoria gisa deskribatzen duen aldaeraren eragina (2006). Aldaera horretan oroz gain azpimarratzen da Estatuak sortutako zuzenbidearen gailentasuna, jatorri sozial edo pribatuko gainerako arauen gainetik; eta, beraz, legearen nagusitasuna ziurtatzen da zuzenbidearen iturrien sistematan.

Bestalde, ez da bazterrean uzteko modukoa pentsamendu erromantikoaren altzoan sortutako joera doktrinalak Zuzenbideko Estatuak legezkotzeko izan zuen eragina. Friedrich Karl von Savignyren eskutik sortu zen xix. mendearen lehen herenean, eta zuzenbidearen eskola historikoa esaten zaio horri. Frantziako Kode Zibilaren ondorioz sortutako mugimendu kodifikatzaile arrazionalistaren aurrez aurre dago jarrera filosofiko hori. Beste norabide batetik joz, Savignyren ustez sistema juridikoa bizirik dagoen izaki bat da, haren baitan «herriaren espiritua» (*Volksggeist*) eratzten duten indar isilak aritzen dira, eta, horren ondorioz, «herriaren espirituaren» borondatea diren eta erkidego bakoitzean sustraituta dauden uste sendo juridikoei forma emateko erantzukizuna ematen dio legegile kodifikatzaileari.

## **ASKATASUN ETA DEMOKRAZIA PRINTZIPIOEN ARTEKO BARNE TIRABIREN ONDORIOZ SORTZEN DEN SINTESI-ERAGILEA**



Ruiz Miguelek azpimarratzen duenez, Estatu Batuetako eta Frantziako lehenbiziko konstituzioek bi tradizio konstituzional sorrarazi zituzten, eta, horren ondorioz, Zuzenbideko Estatuaren bi bertsio azaldu ziren, xx. mendearen bigarren erdialdera arte elkarrengana hurbildu ez ziren bi bertsio.

Gehiegi laburbiltzeko arriskua izan arren, interesgarria izan daiteke bi tradizio konstituzional desberdin horiek aipatzea (bereizitako hirugarren tradizio konstituzionala britainiarra izango da, baina ez du eraginik lan honen xedeari begira). Eta hori horrela, konstituzionalismoa garatzeko dauden bi ildoek agerian uzten baitute askatasun printzipioaren (jarduteko askatasuna edo pertsonaren autonomia) eta demokrazia printzipioaren (auzi publikoak era demokratikoan kudeatzeko bermeak) arteko barne tirabiren emaitza desberdina, eta Zuzenbideko Estatuak emaitza horren sintesitik edaten du.

Ez da alferrikakoa adieraztea Zuzenbideko Estatuaren eta demokrazia politikoaren arteko harremana balioestean izaten diren kontzeptuzko nahasmenduetako batzuen sorburua hauxe dela: tentsioan dauden ezaugarrietako batzuk era akritikoan erabiltzen dira (osagai liberala, osagai demokratikoa), eta ahazten da





bi tradizioak —gaur egun guztiz bat eginda daudenak— aldendu egiten direla elkarrengandik indarra egin ez azpimarratzen dituzten gauzetan, baina ez, berriz, botere publikoak egituratzeko eredia eratzen duten eragileei dagokienez.

Bi tradizioen arteko desberdintasunen adierazpenik grafikoak, alde batetik, hau azpimarratzen dute: Frantziako eta Amerikako eskubideen adierazpenetan printzipio demokratikoak (auzi publikoak era demokratikoan kudeatzeko lanetan parte hartzeko bermeak) jasotzen duen indar desberdina.

Parte-hartze demokratikoa bermatzeak duen garrantzia Frantziako Batzarrak 1789an onartu zuen Eskubideen Adierazpenak duen izenburuan agertzen da, izenburuak berak argi bereziten baititu «gizonaren eskubideak» eta «herritarraren eskubideak».

Gizonaren eskubideen artean honako hauek ditugu, besteak beste: askatasun indibiduala, berdintasun juridikoa, jabetza, segurtasuna, zapalkuntzaren aurreko erresistentzia, zigor-legezketasuna, errugabetasun-presuntzioa, zigor-arbitrariotasunerako debekua, iritzi askea, eta pentsamenduen eta iritzien komunikazio askea izateko eskubidea.

Bestetik, herritarraren eskubideen artean, hauek ditugu: legegintzako funtzioan parte hartzea, kargu eta enplegu publikoetara iristea, sarrera eta gastu publikoaren kontrola, eta agente publikoei egindako kudeaketari buruzko kontuak eskatzea. Eskubide horien oinarrian, Nazioaren eta Legearen funts demokratiakoari egindako dei esplizitua dago, Nazioari agintaritzatza publikoaren sorburua den burujabetzaren subjektua den aldetik (3. artikulua), eta Legeari borondate orokorraren adierazpena den aldetik (4. artikulua).

Aitzitik, Estatu Batuetako Konstituzioan ez da aipamenik egiten herritarrak botere publikoan parte hartzeko duen eskubideari buruz. Estatu bakoitzeko legeriak eratzen du ordezkari politikoaren sistema. Ruiz Miguelek adierazten duenez, «parlamentuko ordezkarien bidez, herriak estatuko boterean parte hartu ahal izatea ez zuten hartu herritarrek botere politikoa baliatzeko zuten eskubide demokratikoaren adierazpen-tzat, ezta zeharka ere, beren askatasuna eta jabetza babesteko tresna liberala den aldetik».

Bi tradizioen arteko desberdintasun horiek badute zerikusirik Estatu Batuetako konstituzionalismoak duen botere-banaketa ikusmolde liberalarekin, pertsonen eskubideei babes gehiago emateko bidea baita hori.

Amerikako konstituzionalismoan, botere-banaketa printzipioak helburu instituzional hau du: pertsonen eskubideei babes gehiago ematea. Boterea mugatzeko, pisuen eta kontrapisuen teknika liberala baliatzen da (*checks and balances*). Hori dela-eta, haren proiektioak ez dakar soilik botere legegile, betearazle eta judizialaren arteko banaketa organikoa. Horrez gain, botere legegilearen barruan boterea murrizteko ere baliatzen da, bi ganbera federalen artean banatzen baita. Bestalde, botere publikoak estatu federatuen eta Estatu federalaren artean lurraldeka banatzeko ere erabiltzen da.

Bestetik, Frantziako konstituzionalismoan, botereen banaketak proiektio horizontala baizik ez du, eta, hor-taz, banaketa hori guztiz bateragarria da botere legegilea eta betearazlea erabat zentralizatuta dituen eta jurisdikzio batasunaren printzipioa zorrotz ezartzen duen antolamendu batekin.

Era berean, bi tradizio konstituzionalen arteko desberdintasunak argi azaltzen dira Konstituzioa bera zerzat hartzen duten aztertuta, Estatu mugatzeko bermea eta norbanakoen eskubideak babesteko tresna baita —botere legegilearen aurrean babesteko ere bai—.

Herritarrak eta botere publikoak —botere legegileak ere bai— lotuta dituen arau juridiko goren gisa hartzen da Konstituzioa; eta, ziurrena, iritzi hori eskaintzen da, Amerikako konstituzionalismoak giza eskubideen bermeari eta konstituzioko demokraziaren babesari inoiz egin zaien ekarpenik handiena balitz bezala.

Konstituziori legeari baino lotuago dagoen lotura printzipio hori formulatzeko, 1803ko otsailaren 24an Estatu Batuetako Gorte Gorenak eman zuen epaia hartzen da abiaburutzat, zehazki, *Marbury vs. Madison* izenez ezagutu zen kasuko epaia (hona hemen gaztelaniazko bertsioa: <<http://www.der.uva.es/constitucional/verdugo/marbury-madison.html>>).

Epaia zerari heltzen dio, erabakitzeko arrazoi gisa: «idatzita dauden konstituzio guztiek, ustez, berez duten printzipioa, alegia, Konstituzioaren aurkako lege bat baliogabea dela eta auzitegiak —gainerako botereak bezala— Konstituzioari loturik daudela dioten printzipioa». Epaia horretan du abiaburua gaur egungo konstituzioko auzitegiek duten eskuduntzak: legearen eta Konstituzioaren arteko adostasunean oinarrituta auzipetzea, eta Konstituzioaren aurka doan legeria arrunta baliogabetzea eta aplikaezina dela adieraztea.

Legeen baliozkotasunaren jurisdikzioko kontrola ezartzeko tresna dugu hori, aintzat hartzen baitu Konstituzioko arauarekin bat datorren edo ez. Tresna hori ez da Europara iritsiko Bigarren Mundu Gerra igaro arte, eta hauek dira Europako konstituzionalismoan dituen aurrekari bakarrak: 1920an konstituzioko auzitegiak ezarri zituztela Txekoslovakian eta Austrian, eta Espainiako Bigarren Errepublikaren 1931ko Konstituzioan ere azaltzen dela.

Askatasun printzipioa azpimarratzen duen indar horren ondorioz —bestalde, Europako xix. mendeko tradizio konstituzionalistan ezohikoa da indar hori—, Zuzenbideko Estatu sozialaren forma bilakatuan konstituzioak sendotuko dira, eta tresna erabakigarria izango dira giza eskubideak eta askatasun publikoak legegile arruntaren aurrean bermatzeko. Eta tresna hori sendotu egingo da, eta ez neurri txikiagoan gainera, botere publikoen arteko orekaren eta banaketaren konstituzioko diseinuan xedatuta dauden pisu eta kontrapisuen funtzionamendu demokratikorako berme gisa.

## **ZUZENBIDEKO ESTATUA, DEMOKRAZIAREN BERMEA GISA: ZUZENBIDEKO ESTATU SOZIALA ETA DEMOKRATIKOA ERAIKITZEKO KONSTITUZIOKO HELBURUA**

*Estado de derecho y sociedad democrática* izeneko lanean (1998), Elías Díazek zehatz aztertzen ditu zein aukera duen Zuzenbideko Estatuaren formulak, bere burua demokratikotzat jotzen duen gizartea instituzionalizatzeko eta instrumentatzeko eta, era berean utopia sozialistan bere burua ikusteko. Hausnarketa horretan du oinarria Espainiako Konstituzioak 1.1 artikuluan jasotzen duen formulak: «Espainiak *Zuzenbi-*



*deko Estatu sozial eta demokratiko* bihurtzen du bere burua, eta estatu horren antolamendu juridikoko balio gorenak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa izango dira» (letra etzana Ibarrek nabarmendu du).

«Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko» nozioa bat dator bi auzirekin, hasieran estatu liberalaren gauzatze juridiko gisa egituratua ikusi dugun Zuzenbideko Estatuak duen formularen bilakaeran funtsezkoak izan diren bi auzirekin.

Lehen auziari buruz egiaztatutako erantzuna eman daiteke honezkero. Auzi horren arabera. Zuzenbideko Estatuaren formula ez da hemeretzigarren mendeko estatu liberalarekin agortzen. Aitzitik, gaitasuna du ongizatearen estatuko ereduan (*Welfare State* izenekoan) botere publikoak juridikoki bridatzeko; izan ere, ongizatearen estatua indarrez azaltzen da sozialdemokrazia eta neokapitalismoaren eskutik, gerra arteko garaitik aurrera (Mexikoko 1917ko Konstituzioa, Alemaniako Weimar-ko 1920ko Konstituzioa) eta Bigarren Mundu Gerra amaiztean sendotzen da.

Zuzenbideko Estatuaren bilakaera horri Zuzenbideko Estatu soziala esaten zaio, eta bere goiburu instituzionala Espainiako 1978ko Konstituzioaren 9.2 artikuluan agertzen den horixe da: «Botere publikoen erantzukizuna da baldintzak sustatzea norbanakoaren eta bera sartuta dagoen taldearen askatasuna eta berdintasuna benetan eraginkorrak izan daitezen, bere osotasunerako oztopo edo traba diren eragozpenak kentzea, eta herritar guztiek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten bultzatzea».

Bistan denez, Zuzenbideko Estatu sozialaren konstituzionalismoak oinarrizko eskubideen Gutuna hedatzen du, «gizarte-eskubide» deitutakoak barne hartzeko: lanerako eskubidea, sindikatuko kide askatasunez bihurtzeko eta greba egiteko eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, osasunaren babesa izateko eskubidea, gizarte-segurantzako erregimen publikoa izateko eskubidea...

Alabaina, Zuzenbideko Estatu sozialak, gehienbat, gaikuntza ematen dio Estatuari, erabakitasunez esku har dezan, baldintzak sustatzen eta oztopoak kentzen, herritarren askatasun eta berdintasun benetakoa eta eraginkorra era materialean bermatu ahal izateko.

Elías Díaz ez dago batere pozik, xx. mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan Zuzenbideko Estatu sozialaren helburu instituzional horri egin zaion ekarpenarekin, eta «Zuzenbideko Estatu demokratiko» formularen bidez hori gainditzea proposatzen du.

## **ZUZENBIDEKO ESTATUAREN EGITURAZKO PRINTZIBIOAK GIZARTE- ETA BILAKAERA-ARLOKO FORMULAN: LEGEAREN AGINTEA**

Lehenengo konstituzio liberalek era hanpatuan heltzen diote legeen —eta ez gobernariaren borondatearen— gobernu printzipioari, eta Platonek *Legeak* izeneko lanean egin zuen proposamena hartzen dute berriz.

Zuzenbideko Estatuaren ereduan, funtsezko eragile funtzionaltzat hartzen da legearen aginte printzipioa. Eta hala egiten da, Norberto Bobbiok azaldu zituen bi adieretan (1997): botere publikoak (legegilea, betearazlea eta judiziala) legeen mende dituen antolamendu politiko gisa; eta lege orokor eta abstraktuen bidez gobernatzeko modu gisa —botereak nola betearazten diren zaintzen dute lege horiek, eta jurisdikzioko organo bereizi eta independenteetan auzipetu daiteke benetan betetzen diren edo ez.



Judgment at Nuremberg  
Stanley Kramer (1961)

Lehen esan bezala, legearen agintearen eraginkortasunak bultzada sendoa jasoko du Europan, Amerikako konstituzionalismotik jasoko baitu Konstituzioaren balio arauemaile juridikoaren printzipioa eta, horren ondorioz, botere publikoek eta herritarrek Konstituzioarekiko duten lotura juridiko sendoagoa. Bultzada horri esker, legearen agintea ezar daiteke demokraziaren berme funtzionalen eta eragileen esparruan.

Izan ere, konstituzioak-arau juridikoak behar bezala bermatzen du bere oinarrizko eskubideen gutunaren eraginkortasuna, eta, horretarako, eskubide publiko subjektibo batzuk ematen dizkio pertsona-herritar bakoitzari. Eskubide horien bidez, botere publikoei aurre egin ahal izango diete, eta askatasunerako eskubideari kalte egitea debekatu ahal izango dute; era berean, jurisdikzioko berme eta jurisdikziotik kanpoko bermerako tresnak baliatuz (adibidez, *ombudsman* izenekoa), gaikuntza izango dute botere publikoek gizarte-eskubideei dagozkien prestazioak betetzeko duten betebeharra bete dezaten lortzeko.

Hortaz, oinarrizko bermeen konstituzio-eskudantza hori botere publiko bakoitza legezkotzeko oinarrizko iturri gisa eskaintzen da —eta ez soilik formazko iturri gisa—. Horrenbestez, Luigi Ferrajolik dioenez (1995), Zuzenbideko Estatu sozialean ez dute tokirik izango «arautu gabeko botereek eta botere-ekintza kontrolaezinek: [Zuzenbideko Estatuan] betebeharr juridikoek botere guztiak mugatzen dituzte, eta betebeharr horiek ez dagozkio soilik formari, edukiei ere badagozkie; eduki horiek urratuz gero, juridikoki abiaraz daitezkeen ekintzak baliogabeak izango dira eta, teoriar behintzat, haien erantzukizuna egileena izango da».

Gogoan izan dezagun Konstituzioarekiko lotura sendoago horren proiektzio gorena Konstituzioaren erabaki hau dela, bermerako tresna gisa: jurisdikzioari (bereziki, konstituzio-azitegiei, lege-balio eta -indarra duten arauari dagokienez; eta, beste kasu jakin batzuetan, auzitegi arruntei) eskudantza ematea baliogabetzat jo ditzan Konstituzioko arauekin bat ez datozen botere publikoen ekintza edo arau guztiak.



## BOTEREEN BANAKETA

Diego Íñiguez Hernándezen arabera (2008), botere-banaketa printzipioak xix. mendean izan zuen benetako garrantzia aldarrikapen ideologiko bati dagokiona baino zertxobait handiagoa baizik ez zen izan.

xx. mendeko jendetzen demokrazian eskuratu zuen esanahi handiagoa botereen banaketak lortu nahi dituen helburuak bilatzeak. Eta hori guztia kontuan izanik indarrean dagoen konstituzionalismoan botere publikoen banaketa demokraziaren kalitatea bermatzen duen funtzionamenduko printzipio instituzional gisa agertzen dela batez ere, oinarri dogmatiko gisa baino gehiago.

Íñiguez Hernándezen ustez, botere publikoen arteko benetako egituraketak gaur egun duen garrantzia ez dagokio hainbeste botere legegileak botere betearazlearen gainetik duen nagusitasuna aurrez zehazteari, ez eta botere judiziala botere betearazlearen aurrean independentea izateko bermea gordetzeko dagoen asmo abstraktuari ere. Aitzitik, garrantzitsuena da tresna eraginkorrak ezarri direla, horien bidez «konstituzioko dinamika arina eta aldakorra sortu dela, eta, bertan, ez dela oreka geometriko ezinezkorik lortu nahi; ez, konstituzioko mugen eta kontrapisuen balantza egokia lortu nahi da —jurisdikzioko funtzioan jarduteko epaileek eta auzitegiek duten monopolioa eta eskusibotasuna alde batera utzita—. Hala, Estatuaren botere-banaketa horizontal eta hirutarikoaz gain, badago beste berrikusketa bat, botere eratzailleen eta eraturakoen aurrean egiten dena; gainera, boterea estatu berekoak diren eta lurralde-oinarria duten erakundeen artean boterea bertikalki bereiztearen ondoriozko banaketa dago, lurralde-banaketa-aren emaitza dena; eta, bestalde, botereak denboran barrena zatitzen dituen banaketa dago, hauteskundu-ndeen ondoko txandakatzean eta ordezkarien agintaldiaren denborazko mugapenean oinarrituta dagoena; gero, badago botereen banaketa pertsonala, pertsonen bereizketa biltzen duten bateraezintasuneko sistemek arautzen dutena; eta, azkenik, *estatuaz gaindiko* banaketa dago, Europako bateratzea bezalako prozesuen ondoriozkoa».

## ADMINISTRAZIOAREN JARDUERAK LEGEZKOTASUNAREKIKO LOTURA POSITIBOA IZATEA

Espainiako Konstituzioak 103. artikuluan 1. idatz-zatian erabiltzen duen klausula («Administrazio Publikoak objektibotasunez betetzen ditu guztion interesak eta [...] legearen eta Zuzenbidearen erabat mende jarrita aritzen da») Administrazioa legezketasunaren mende jartzeko printzipiotik ateratako formula bat da, eta, lehenengo bertsio liberaletik, Zuzenbideko Estatuaren egiturazko oinarri gisa inskribatu da.

Konstituzioaren klausulak bertsio kanonikoan azpimarratzen duenez, ezin da erabaki publikorik hartu legezketasunera lotuta egon gabe. Eta Konstituzioaren 106.1 artikuluan, jurisdikzioko bermea ezartzen da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiei eta epaitegiei agindutakoa, administrazioaren legezketasun printzipioaren eraginkortasunari buruzkoa dena: «Auzitegiek kontrolatuko dute Administrazioaren jardueraren erregelamendu-ahala eta legezketasuna, bai eta bera justifikatzen duten helburuen mendean jartzen den ere».

Hala ere, 1978ko Konstituzioko arautegiak dakarren berrikuntzak aipatzen duenez, Administrazioaren jarduerak «legearen eta Zuzenbidearen» mende jarri behar du «erabat». Erabateko lotura juridikoa nabarmentzen du bereziki, eta argi bereizten ditu, alde batetik, legearekiko formazko lotura —hau da, parlamentuko organoek sortutako arau juridiko idatziarekiko lotura— eta, bestetik, Zuzenbiderekiko lotura.

Bonn-eko Oinarrizko Legetik jasotako idazkera baten bidez sartutako bigarren puntu horren arabera, indarrean dauden zuzenbideko estatuen errealitatea da administrazio publikoek jarduteko duten legezkotasunaren printzipioaren bermea, estatu horietan antolamendu juridikoko arauzko iturriak askotarikoak baitira. Eta are gehiago Europar Batasuneko kide diren estatuetan.

Hortaz, administrazio publikoek legearekin eta Zuzenbidearekin jarduteko duten erabateko lotura ez da amaitzen lege-balioa eta -indarra duten arauen mende egonda. Antolamendu juridiko osoa hartzen du barne, hala nola, Konstituzioa, era baliodunean egin eta argitaratu diren nazioarteko itunak, Europako erki-degoko zuzenbideko arau juridikoak eta arauzko araudia. Era berean, klausulak barne hartzen ditu zuzenbidearen printzipio orokorrak, horiek gure kultura juridikoaren benetako sorburua baitira, eta maiz antolamendu juridikora sartzen baitira doktrina juridikoaren formulazioaren eta auzitegien jurisprudentziaren denotazioaren bidez.

Ezin dugu aipatu gabe utzi administrazio publikoen jarduera legearekin eta Zuzenbidearekin duen lotura positiboari buruzko klausula nekez moldatu behar izan dela, Zuzenbideko Estatu sozialaren ezaugarrietara egokitzeko: botere publikoek eraginkortasunez esku hartzeko eskakizuna dago, askatasun eta berdintasun benetakoa eta eraginkorra izateko.

Zuzenbideko Estatu soziala ezinbestez egokitzeko dagoen prozesu horretan, argi ikusiko da gobernariari eta administratzaile publikoei eskumeneko botere handia eman behar zaiela administrazio jardueraren arloan. Eta hor agertzen da nabarmen administrazioarekiko auzien jurisdikzioak gero eta zailtasun gehiago duela era egokian kontrolatzeko, erabakiak beren kabuz hartzeko gaitasuna erabiliz eta beren iritzia-aren arabera, administrazio publikoek hartu dituzten jardueren baliozkotasun juridikoa.

Zaila da kudeatzaile publikoek egindako jarduerak gero kontrolatzea, legegileak aurrez eskumeneko botere zabala eman baitio administrazioari; eta hori funtsezko auzia da administrazio publikoen lotura juridiko positiboaren printzipioa gordetzeari begira.

## **ASKATASUNA BERMATZEN EZ DEN TOKIAN, EZ DAGO DEMOKRAZIARIK: BERME JURIDIKO-FORMALA ETA OINARRIZKO ESKUBIDEAK BENETAN GAUZATZEA**

Zuzenbideko Estatu eta estatu demokratikoaren arteko bereizketak, eta 1978ko Espainiako Konstituzioak ezarritakoaren moduko estatu sozial eta demokratiko batean behin-behinean laburtzeak, lotura estua du



oinarrizko eskubideen sisteman eta bermean izandako bilakaerarekin; eta, azken batean, aukera ematen du segida logiko bat ezartzeko askatasunaren zaintza eta demokraziaren kalitatearen artean.

Aipatutako testuan Luigi Ferrajolik gogora ekartzen duenez, botere publikoen muga legala, historikoki, egituratze demokratiko-ordezkatzailearen aurretik doa. Zuzenbideko Estatuaren bilakaera modu diakronikoan aztertzen badugu, bermeen parametroan kokatuta, kateatutako segida bera izango dugu emaitza gisa.

Ferrajoliren esanetan, bizikidetzari buruzko konstituzioko itun guztien lehenengo araua ez da kontu guztiak gehiengoak erabaki behar dituela, baizik eta «ezin dela kontu guztiei buruz erabaki (edo ez erabaki), ezta gehiengoak hala nahi badu ere. Gehiengoak ezin du inoiz erabaki gutxiengoa edo herritar bakar bat ezabatzea (eta, era berean, ezin du babesari buruzko erabakia eman gabe utzi). Ildo horretan, Zuzenbideko Estatuaren oinarriko eskubideen berme gisa botere publikoei legez ezarritako oinarriko mugen sistema gisa ulertuta, estatu absolutuaren aurrez aurre dago, berdin dio estatu hori autokratikoa edo demokratikoa den. Herriaren botereak demokrazian mugarik edukiko ez balu, demokrazia politikorik perfektuena ere —ordezkatzailea edo zuzena— erregimen absolutua eta autoritarioa izango litzateke. Bere arauak, zalantzarik gabe, araurik egokienak dira nork erabaki ahal duen eta nola erabaki behar den zehazteko; baina ez dira aski edozein erabaki legezkoztat jotzeko edo erabaki ez dena legezkoztat jotzeko. Herri batek ezin du erabaki gizon bat hil behar dela, edo gizon bati askatasuna kendu behar zaiola errua izan gabe (eta, era berean, ezin du onartu horrelako erabakia har dadin)». Hil edo biziko eskubide horien bermea ezinbesteko baldintza da elkarbitza baketsua egon dadin, eta, Ferrajolik dioenez, existentziari buruzko auzietan «ez dugu onartzen gutxiengoan utz gaitzaten».

Egile beraren esanetan, Zuzenbideko Estatu sozialean aurreko araua (ezin da kontu guztiei buruz erabaki, ezta gehiengo soil ez ere) areago zabaltzen da, arau batek ezartzen baitu ezin dela kontu guztiei buruzko erabakia eman gabe utzi, ezta gehiengoz, edota gehiengoak horretarako interesik ez badu ere. Hortaz, aurreko bi baldintzak eraginkortasunez bermatzen direnean, eraginkor bihurtzen da, gainerako auzi publikoei begira, auzi publikoei buruzko erabakia herritarren gehiengoari —zuzen edo zeharka— ematen dion demokrazia politikoaren araua. Ferrajolik honakoa gaineratzen du bukatzeko: «nork erabakitzen duen aztertzen duen demokrazia politikoaren printzipioa azpiratuta dago, noiz ez den bidezkoa erabakitzea eta noiz den bidezkoa erabakiak hartu gabe uztea lantzen duen demokrazia sozialaren printzipioen menpean».

Garantismoaren teoria orokorraren zordun den ikuspegi horretatik, Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikoaren konstituzio-formulak —gutxieneko Estatu liberal eta gehieneko Estatu sozialaren batuketaren bidez irudikatutakoak— aukera ematen du Zuzenbideko Estatuan eta demokrazian baliokidetasuna lortzeko.

Hala, Ferrajoliren ondorioa hurbil dago Elías Díazen proposamenaren ezaugarri utopikoetatik; Zuzenbideko Estatuaren bilakaera dinamizatzen duten osagaien nolakotasun funtzionalean, ezaugarri horiek gure Konstituzioaren lehenengo artikuluan daude jasota: Zuzenbideko Estatuaren aurrerapena itzultzen da, funtsezko demokrazian, Zuzenbideko Estatu sozialean gailentzen diren askatasun eta berdintasun benetakoak eta eraginkorrak benetan gauzatu ahal dituzten bermeak garatzen. Askatasunaren bermeek bat egiten dute demokraziaren babesarekin.

## BIBLIOGRAFIA

---

- ABELLÁN, J. (1983): «Liberalismo alemán del siglo XIX: Robert von Mohl», *Revista de Estudios Políticos*, 33.
- BOBBIO, N. (1997): *El futuro de la democracia*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
- (2006): *El problema del positivismo jurídico*, Mexiko, Fontamara.
- DÍAZ, E. (1998): *Estado de derecho y sociedad democrática*, Madril, Taurus.
- FERRAJOLI, L. (1995): *Derecho y razón. Teoría del garantismo penal*, Madril, Trotta.
- ÍNIGUEZ HERNÁNDEZ, D. (2008): *El fracaso del autogobierno judicial*, Madril, Civitas.
- RUIZ MIGUEL, A. (2002): *Una filosofía del derecho en modelos históricos. De la antigüedad a los inicios del constitucionalismo*, Madril, Trotta.

- **Juan Luis Ibarra Robles** magistratua, Zuzenbidean doktorea eta Administrazio Zuzenbidearen arloko unibertsitateko irakasle titularra da (lan-utzialdian). EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako burua da. Irakasle lankidea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Konstituzio Zuzenbide, Administrazio Zuzenbide eta Zuzenbidearen Filosofiaren sailean. Hainbat ikerketa-ildotan parte hartu du, eta, besteak beste, gai hauek ikertu ditu: autonomien estatua, foru-lurraldeen eskubide historikoak, giza eskubideen jurisdikzioko bermeak, atzerritarren eskubideak eta botere judiziala Espainian.



# Demokrazia eta parte-hartzea

Imanol Zubero



ulertzeko



pentsatzeko



ikasteko



## PARTE-HARTZEA, DEMOKRAZIAREN OINARRIA

«Instituzio demokratikoez arrakasta izan dezaten, eraginkorrak eta arduratsuak diren demokraten gutxiengo aski batek egon behar du, instituzio horiek mugitzeko» (Crossman, 1977). Hori egia biribila da. Sistema instituzional demokratikoez ezin diote beren buruari eutsi, demokraten gutxiengo aski bat ez badago atzean, instituzio horietan egoteko eta abian jartzeko. «Gutxiengo» bat esaten dugunean, ez dugu erabiltzen hitzaren zentzu aristokratikoan —persona gailenen multzo txiki bat—, baizik eta zentzu aritmetiko hertsian: pertsonen gutxiengo bat, eraginkorrak eta arduratsuak diren eta aski den pertsonen kopurua. Demokrazia, oroz gain, kultura eta praktika kontua da. Demokrazia martxan jarrita dagon demokrazia da edo, bestela, edo ez da ezer. Hargatik, arlo publikoarekin engaiatuta dauden herritarrak egotea *sine qua non* baldintza da demokrazia egon dadin.

Parte-hartzea oinarrizko eskubidea da. Demokraziaren azterlari nabarmenetako baten ustez —Robert Dahlen ustez—, gobernu demokratiko baterako oinarrizko bost irizpideen artean, parte-hartze eraginkorra da, hain zuzen, lehenengo irizpidea, ondoko baldintzei jarraiki. Parte-hartze eraginkorra nahitaezko baldintza da erkidego demokratiko bat antolatu ahal izateko. Bere azken oinarria da pertsona guztiok gaikuntza bera dugula geure elkarrekiko bizitza antolatzeko erabakiak hartu ahal izateko, behar ez diren babesik izan gabe. Horiek horrela, Dahlek ondorio hau atera zuen (1999): «Modu sinesgarrian kontrakoa egiaztatu ezean, egoera berezietan, zuzenbideak babestuta eta estatuko legeen azpian dauden pertsona heldu guztiak estatua gobernatzeko prozesu demokratikoan parte hartzeko behar bezala gaituta daudela jo behar da».

Herritarren parte-hartzea, ezinbestez, eskubide-sorta baten barruan dago, eta eskubide horien multzo osoa hartzeak aukera ematen digu herritartasun inklusiboari buruz hitz egiteko. Besteak beste, elkartzeko, askatasunez adierazteko, botoa emateko, kargu hautetsietan joateko eta informazio-iturri independenteetarako sarrera izateko eskubideak dira. Espainiako Konstituzioari dagokionez, gai publikoetan parte hartzeko eskubideak (23. art.) zentzua izan dezan, harremanetan jarri behar dugu sinergikoki ideia, erlijio eta kultu aldeko askatasunerako eskubideekin (16. art.), pentsamenduak, ideiak eta iritzia adierazteko eta zabaltzeko eskubidearekin (20. art.), biltzeko eskubidearekin (21. art.), elkartzeko eskubidearekin (22. art.), sindikatu batean sartzeko eskubidearekin (28. art.) eta banako nahiz taldeko eskaera bat egiteko eskubidearekin (29. art.).

Jakina, herritartasun eraginkorra egon arren, horrek ez du besterik gabe demokrazia bermatzen. Aitzitik, erregimen autoritarioen bereizgarria izaten da herritartasuna (edo, beharbada, zuzenagoa izango da «jen-

detza» deitzea) etengabe mobilizazioak egiten egotea, botereak sustatzen baititu herritarrak, kalea har dezaten bultzatuz. Hala ere, parte-hartze eraginkorra ezinbestekoa da. Parte-hartzearen bidez, instituzio demokratikoak eraiki ahal ditugu eta haiei eutsi ahal diegu —eta hori da dugun bide bakarra—.

Hortaz, herritarren parte-hartze eskubide bat da berez (legeek onartu eta eraginkortasunez babestu beharrekoa), baina, oroz gain, eskubideen *iturria* da. Izan ere, botere demokratikoak eraikitzerakoan, parte-hartzea da gizarte demokratikoek eskubideak aldarrikatzeko, babesteko eta hedatzeko duten bide nagusia: agenda publikoan gai berriak sartuz, intereseko taldeak finkatuz, proposamenak eta proiektuak arlo publikoan babestuz, eta indarrak metatuz, hala dagokionean, gizarte- eta politika-arloko eraldaketa jakin batzuk ekarriko dituzten gehiengoak lortu ahal izateko hauteskundeetan.

## DEMOKRAZIA LIBERALA ETA DEMOKRAZIA ERREPUBLIKANOA



Demokraziaren ikuspegi liberal (edo «pluralista») batetik, ez dago interes publikoaren antzik duen ezer, aldi berean interes pribatuarekin antz handirik izan gabe. Dagoen gauza bakarra norbanakoak dira, berekoi adimendun gisa jokatzen duten norbanakoak, kostuak gutxitu eta onurak handitu nahian beren interesen alde jarduten dutenak. Ekintza-esparru guztietarako balio du horrek, hala kontsumorako nola politikarako.

Horiek horrela, parte-hartze demokratikoa norbanakoaren interesak eta lehentasunak adierazteko prozesu arautu bat baizik ez da, interes eta lehentasun horiek emantzat jotzen dira (hau da, ez dira zalantzan jartzen eta, beraz, ez dira zertan aldatu behar), eta, gehiengoaren arauaren ondorioz, batu egiten dira, eta, azkenean, batzuk beste batzuen gainean jartzen dira. Ordezkarien arteko lehiari oinarritutako demokrazia da (Ovejero, 2002), parte-hartzea neurri handi batean mugatzen du, eta, hortaz: a) Konstituzioak hainbat muga jartzen dizkio herritarrek berez erabaki ahal duten horri; eta b) praktikan mugatzen du herritarrek erabakitzeke duten ahalmena, ordezkarri batzuk baizik ezin baitituzte hautatu, eta, azkenean, horiek izango baitira erabaki politikoak hartuko dituztenak.

Demokraziaren ideal hori bat dator askatasunaren ikuskera ezkor batekin (askatasuna interferentzia eza gisa ulertzen duen ikuskerarekin), eta, era berean, bat dator herritarra bere kontuekiko baizik kezkarik ez duen norbanako gisa hartzen duen ikuskerarekin (zehazki, norbanako horrek ez du bertute zibikorik, parte-hartzea erabilgarria ez dela uste du —denbora eta kezka hartu behar da: horretarako daude politikariak!— eta botere publikoei zera baizik ez die eskatzen: elkarbizitzarako esparru bat berma dezaten, hartara, beren bizitzako proiektu bereziekin aurrera egin ahal izan dezan inork gogaitu gabe).

Demokraziaren ikuspegi errepublikanoak dituen oinarriak guztiz desberdinak dira. Bigarren ikuspegi horretatik, demokraziaren bertutea da pertsonen eta taldeen jatorrizko lehentasunak eraldatzeko duen ahalmena —pertsonak eta taldeak normalean berekoiak izaten baitira—; izan ere, era horretan, pertsonak eta taldeek aukera altruistagoak eta alderdikeriari gabeak hautatuko dituzte, guztion onuratzat hartzen den zera hori eraikitzeke irekiago daudenak (Stotzky, 2004). Elkarrizketa, taldean erabakiak hartzea da jatorriz berekoiak ziren lehentasunak hain alderdikoak ez diren lehentasun bilaka daitezen dagoen metodoa. Hori dela-eta, demokrazia deliberatzaileaz hitz egiten da.



Zentzu sakonean, demokrazia deliberatzailearen ikuspegitik, eztabaidak bozketa bidez konpondu behar izatea nolabait «porrota onartzea bezalako zerbait da, horrek aditzera ematen baitu arrazoietan oinarritutako eztabaidak porrot egin duela auzi bat konpontzerakoan» (Waldron, 2004); baina, hala ere, eztabaidak ez du bozketa alde batera uzten. Aitzitik, nolabait esan liteke botoa «eztabaidaren gailur naturala dela, botoak ez du aditzera ematen eztabaida nola edo hala desegokia izan denik». Osagarritasun horren adibide gisa, herri-epaimahai batek erabakiak hartzeko duen eredia etortzen zait burura, ahaleginak egiten baititu epaia aho batez adosteko, argudioak emanez eta eztabaidatuz, baina, beharrezkoa izanez gero, aukeran dauden iritzien bozketa egiten baita.

Demokraziaren ikuskera errepublikano horren arabera, «iritzi eta borondate politikoa gunee publikoan eta parlamentuan eratzeko prozesua ez da merkatuko prozesuetako egituren araberakoa, elkar ulertzera zuzenduta dagoen komunikazio publikoari dagozkion egituren araberakoa baizik» (Habermas, 1999). Kontua hauxe da: a) bakoitzaren lehentasunak benetan demokratikoa den ulertzeko eta argitzeko prozesu baten mende jartzeko aukera ematen duten diseinu instituzionalak sortzea, eta b) bestela baztertuta geratuko liratekeen gizarteko sektoreak erabakiak hartzeko prozesuan egon daitezzen bermatzea.



## ASKATASUN EZKORRA ETA ASKATASUN BAIKORRA

Tradizioz, bi askatasun-mota bereizten dira: askatasun ezkorra eta askatasun baikorra. Askatasun ezkorra, interferentzien gabezia gisa ulertuta, honelakoetan agertzen da: subjektu batek jokatzeko edo ez jokatzeko aukera duenean, beste subjektu batzuek horretara behartu edo hori egiteko oztoporik izan gabe. Bestela, labur-zehatzago esanda, zera da: «askea naiz, gizon bat edo gizon talde bat nire jardueran sartzen ez den heinean» (Berlin, 2001). Bestetik, askatasun baikorra agertzen da subjektu batek «bere borondatea helburu baterantz zuzentzeko eta erabakiak hartzeko aukera duenean, besteen borondateak berea ezertan mugatu gabe» (Bobbio, 1993). Hortaz, zehatzago hitz eginez, *autonomia* dela esan dezakegu. Askatasun baikor horrek —gaur egun batzuek *askatasun errepublikanoa* deitutako horrek— aukera ematen digu norbanakoaren askatasunaren auzi labainkorrera modu berri batean hurbil gaitzean, eta hurbiltzeko molde berri hori oso garrantzitsua da jarduera politikoa ikuspegitik.

Pentsamendu moderno askatasunaren balio nagusiaren inguruan eraiki da, baina gizonaren definizio bakarti bat, gizartezkoa ez den definizio bat hartu du abiaburutzat. Tesi gisa baino gehiago oinarritzat hartuta (ez baita esplizituki argudiatzen den zerbait), «alderdi soziala, baterako bizitzaren egitatea, normalean, ez da gizonarentzat beharrezkoa den zerbait balitz bezala hartzen»; azken batean, zera uste izaten da: «beste gizon batzuekiko harremana zama bat dela, nola edo hala gaineratik kendu beharrekoa» (Todorov, 1995). Schopenhauer-en apologo batek ezin hobeki islatu zuen gizarteari buruzko ikuspegi moderno hori: «Neguko egun hotz batean, arantzurde saldo bateko kideak elkarren kontra estutu dira, elkarri beroa emateko, hotzak kikilduta baitaude. Hala ere, berehala hasten dira besteen arantzak sentitzen; eta mina dela eta elkarrengandik bereizi behar dira. Gero, berotzeko beharra sentitu, eta berriz elkartzen dira, baina ostera ere hasiko dira mina sentitzen. Hortaz, atzera eta aurreraka bultzatuta daude, bi gaitzen artean harrapatuta baleude bezala, harik eta, azkenean, elkarren arteko tarte zuhur bat aurkitu duten arte. Hori izango da hortik aurrera kokapenik onena haientzat» (hemen aipatua: Bodei, 1995). Ikuspegi horretatik,

subjektuaren askatasunari (askatasun kaltegarriari) egindako interferentzia oro arbuiatu egiten da. Eta hori hala da, bizi garen mundua egunero oinarritzen baita bizio pribatuak, berez, bertute publikoak izan daitezkeela uste duen oinarri gaizto horretan (Mandeville). Izan ere, gizakiaren ikuskera ekonomikoa hauxe da: pertsona berekoi bat, bere interesa ahalik eta gehien handitu nahi duena, jokaera altruista oro bazter utzita. Ikuspegi-mota hori nagusitzen da norbanakoaren jokabidea aztertzerakoan, eta *hautatze arrazionala* esaten zaio: pertsona bat arrazionaltzat hartzen da, bere interes pribatua ahalik eta gehien maximizatzen duten ekintzak hautatzen baditu. Pertsonen ikuspegi hori arlo ekonomikotik harantz zabaldu da, eta gure bizitza osoa hartu du barne. Egiten dugun guztia erabilgarritasun aldetik uler daiteke —hala esango dute—. Kontua da oinarri horietan hondamendirantz eraman ahal gaituztela, guztiz ekonomikoa den pertsona hori praktikan ergel sozial bat delako (Sen, 1999). Izan ere, lehiaren eta berekoikeriaren logikak Olsonen aztertu duen aprobetxategiaren (*free rider* izenekoaren) ereduari jarraitzen dioten jokabideak sustatzen ditu: sistemaren logika «arrazionaletik» ikusita, pertsona batek gainerakoek egindako taldeko ekintza baten onura jasotzeko aukera baldin badu, bertan parte hartzeak sorrarazitako kostuak bere gain hartu gabe, onura hori hartuko du.

Ez Berlinek ez Bobbiok ez dute baliokidetasun hori zehazki ezartzen, baina beste egile batzuek harremanetan jarri dituzte bi askatasun-motak oinarritzko eskubideen bi belaunaldi handiekin: alde batetik, eskubide zibil eta politikoekin (askatasun ezkorra) eta, bestetik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalekin (askatasun baikorra). Bereizketa hori bereziki argigarria da, botere publikoen ikuspegitik. Askatasun ezkorra ase ahal izateko, aski izan daiteke botere publikoek ezer ez egitea (kontzientzia-askatasuna bermatua izan dadin, aski baita botere publikoek herritarren sinesmenak ez arautzea; adierazteko askatasuna benetan gauzatu dadin, aski izan baitaiteke agintari politikoez uko egin diezaioten zentsuratzeko mekanismoak ezartzeari, etab.). Aitzitik, eskubide sozial eta ekonomikoek estatu esku-hartzailea eta birbanatzailea eskatzen dute, herritar guztiei gutxienezko ongizatea bermatzeko erantzukizuna bere gain hartzen duen estatua. Orduan, berdintasuna nahitaezko baldintza da askatasuna izan dadin. Balibar-ek ondo asmatu zuen *égalité* ideia garatu zuenean, eta, orduan argudiatu zuenez, «ez dago askatasunen murrizketen edo ezabaketan adibiderik, gizarteko desberdintasunik gabe; ez eta desberdintasunik, askatasunen murrizketarik edo ezabaketarik gabe ere» (hemen aipatua: Callinicos, 2003).

Hala, bada, berdintasuna (eta desberdintasuna) ez da amaitzen alderdi materialetan; nolabait esan genezake ezin daitezkeela bururatu alde material hori izan gabe. Gizarteko eskubideen sorreran ageriko eta funtseko aurkikuntza hau dago: «despotismoak askatasuna mehatxatzen du, baina goseak eta miseriak, ezjakintasunak eta menderakuntzak ere askatasuna mehatxatzen dute» (Contreras, 1994). Horiek horrela, ondo asmatu zuen Marshall-ek, honezkero klasikoak diren 1949. urteko Cambridge-ko hitzaldietan, honela ulertu baitzuen herritartasun modernoa: ezin uko eginezko hiru alderdiren mailaz mailako garapena, zehazki, alderdi zibil, politiko eta sozialaren garapena.



## PARTE-HARTZEA BAI, BAINA NON?

Bobbiok dioenez, gizarte baten demokratizazioaren adierazlea ez da neurtu behar soilik botoa ematen duten pertsonen irizpideari begiratuta, zenbat lekutan ematen den botoa ere hartu behar baita aintzat, hau



High Noon Fred Zinnemann (1952)

da, gizarte horretan parte hartzeko dauden guneak zenbat eta zein diren. Egia esan, gune horiek ez dira hain ugariak aurreratutako gizarte industrialetan. Gurutz Jáureguik dioenez (1994), tradizioz, teoria politikoan, jarduera politikoa gizarteko beste adierazpide batzuetatik bereizteko joera nagusitu da, adierazpide horiek arlo pribatuari zegozkiolakoan, eta, beraz, jarduera politikoa bezala ezin kontrola zitezkeela iritzita. Gaur egun, politika, ekonomia, ikerketa, teknologia eta beste arlo batzuk estu-estu lotuta agertzen dira, eta, are garrantzitsuagoa dena, guztiz politikoak ez diren erabaki askok herritar guztiengan dute eragina, beste erabaki politiko askok baino gehiago gainera. Errealitate hori inork gutxik jar dezake zalantzan une honetan. Hala ere, hori egia izan arren, horrek ez dakar berekin dagokion ondorio logikoa, hau da, formalki politikoak ez diren jarduera horiei kontrol demokratikoak ezartzeko beharra.

Itxuraz politikoak ez diren eta, beraz, kontrol demokratikoaren molde guztietatik urrutiratuta dauden erabaki ekonomiko edo finantzario jakin batzuek —hala nola, enpresa bat ixtea, estrategia deslokalizatzaile baten esparruan— ondorio lazgarriak dituzte norbanakoen eta erkidegoen bizitzan. Batzuetan, gainera, erabaki horiek kontuan hartzen dute, hain zuzen, politikoki eraginkorrak diren sozietateak ba ote dauden edo ez dauden; eta jarduera hori merkatuaren akats gisa hartzen da, eta, beraz, inbertsiorako sustagarria kentzen du. Hala ere, herritarrek beren bizitzan eragina duten prozesuetan kontrola izateko duten sentsazioa badirudi, hedatu beharrea, gero eta gehiago ahultzen ari dela egunetik egunera.

## ◎ PARTE-HARTZEA HAZTATZEN

Bidezkoa denez, kezka hartzen ditugu diagnostikoak, mendebaldeko demokrazietan herritarrek duten konpromisoa gero eta ahulagoa dela baitiote. Zer ari da benetan gertatzen herritarren parte-hartzearekin gure gizarte konplexuetan? Norantz doa parte-hartze hori? Zein aukera eta arrisku du? Gazteek zein zeregin betetzen dute hor? Herritarren parte-hartzea hiltzorian dago, edo belaunaldi zibiko berri bat eratzen ari da?

Bi diagnostiko daude batera gaur egun, herritarren parte-hartzea aztertzeari dagokionez. Lehenengo diagnostikoaren arabera, mendebaldeko gizarterik garatuenak gainbehera nabarmenean doaz konpromiso zibikoaren esparruan, eta, horren ondorioz, desafekzio demokratikoa erakusten duen jarrera kezagarria eta

kapital sozialaren ahultze prozesu asaldagarria ikusten ari gara. Parte-hartze politikoarekin gertatzen ari dena izotz-mendiaren punta besterik ez da, askoz sakonagoa den eta hemendik denbora gutxira askoz kezagarria izango den gertakari baten muturra. Gaur egun ikusten ari garenez, gainbehera nabarian doa gizarte demokratiko bati eusteko ezinbestekoa den herritarren energia. Horren ondorioz, taldeko parte-hartzea ere gainbehera doa, eta norbanakoaren parte-hartzeak bere horretan jarraitzen du edo areago indartuta dago. Bestalde, lankidetzako ekintza-moldeak gainbehera doaz, eta ekintza adierazkorrek, berriz, hortxe irauten dute. Azken batean, parte-hartzeko aukerak aldatu dira: ikuspegi zabal, orokor eta kolektibo batetik, ikuspegi estu, mugatu eta norbanakoari lotuago batera igaro gara. Funtsean, ideia horren sorburua Ipar Amerikako pentsamenduaren esparrua da. Parte-hartzearen oraingo errealitateari buruzko ikuspegi horren arabera, adinak garrantzi izugarria du. Putnamen arabera (2002), Estatu Batuetan gaur egun konpromiso zibikoa alde batera utzita badago, neurri handi batean, hori belaunaldi-kontu bat da. Zerikusia du belaunaldi zibiko luze baten gainbeherarekin, 1940. urtea iritsi aurretik jaiotako belaunaldiaren gainbeherarekin. Horren arabera, gazteak alde batera uzten ari dira beren gurasoek bultzatu eta sustatu zituzten parte-hartzeko egiturak.



Persepolis: Marjane Satrapi  
eta Vincent Paronnaud (2007)

Hala ere, nola liteke parte-hartzea ahultzen ari dela esatea, gerraren aurkako manifestazio jendetsuen sasoiari, edota Porto Alegreko eta globalizazioaren aurkako mugimenduaren garaian? Ez ote gara tentatuzko erori? Ez ote gailtza miraz, beti hobetzat jotzen den iragandako denboraren irrikaz?

Beste azterketa baten arabera, benetan zera da gertatzen ari dena: herritarrek parte hartzeko tradiziozko egiturekin eta moldeekin duten harremanean eraldaketa sakona izaten ari da; eta kasu gehienetan egitura eta molde horien kritika zorrotza egiten da, baina, aldi berean, instituzionalizatuta ez dauden talde-ekintzako molde berriak azaltzen ari dira. Hauteskundeetan abstentziora jotzen da, alderdi eta sindikatuetakoa kide izateko joera krisian dago. Alabaina, aldi berean, borondatezko erakundeak gero eta ugariagoak dira, gerraren edota globalizazio neoliberalaren aurkako mobilizazio jendetsuak izan dira, eta, era berean, buruzagi berriak agertu dira gizartearen, gero eta handiagoa baita arduradun politikoekiko uste txarra. Egia da belaunaldi berriek politika eta, oro har, parte hartzeko tradiziozko moldeak arbuiatzen dituztela. Hala ere, ez dira apolitikoak, eta ez daude geldirik inola ere. Paradoxa ematen badu ere, aipatu ditugun egileek gazteen jarrera antipolitikoa berez politika bat dela adierazten dute, edota, bestela esanda, modu eraginkorrean apolitikoak diren gazteak ditugula aurrean (Beck, 1999). Askatasunaren seme-alabak dira, eta uko



egiten diote bortxaz ezarrita edo hertsatuz jarrita dauden parte hartzeko molde guztiei. Wilkinsonen esanetan (1999), «belaunaldi horrek ahaleginak egiten ditu oreka handiagoa eta iraunkorragoa lortzeko norbanakoaren interesen eta taldeko ekintzen artean». Hala balitz, belaunaldi zibiko berri baten hasiera izango genuke aurrean, eta, oraingoz, belaunaldi horrek sistema demokratikoen periferian baizik ez ditu aurkitzen parte hartzeko guneak eta egiturak. Gizarteko mugimenduetan, gobernuz kanpoko erakundeetan, boluntariotzako erakundeetan...

Era horretan, egia da aurreratutako gizarte industrializatu guztietan tradiziozko parte-hartze politikoa krisaldi larrian sartuta dagoela legezketasun aldetik —datuak aitzakiarik gabekoak baitira—; baina, bestalde, egia ere bada azken urteetan gizarte horietan tradiziozkoak ez diren molde ugariak eta koloretsuak sortu direla mobilizazioak egiteko, parte hartzeko eta protesta egiteko. Alabaina, azken urteetan, herritarren konpromisoan ez da soilik protesta egon: milaka lagun —eta haietako asko gazteak dira— ari dira denbora ematen eta ahaleginak egiten gizarteko ehundura solidarioa eraikitzeko, boluntarioen gizarte-ekintzaren lurralde askotariko horretatik abiatuta. Eta hortik galdera hau sortzen da: leku okerrean al gabiltza politikotasunaren bila? Bizitza politikoa alde batera uzteko jarrera zirudien jokaera hori ez ote da izango, beste ikuspegi batetik hartuta, politikotasunaren beste alderdi baten aldeko borroka? Horixe da Ulrich Beck-ek aldeztu duen tesia (1997), Beck-en ustez politikotasuna formalizatuta dagoen sistema politikoa bastez ere edo hortik harantz agertzen da, zehazki, berak azpitolitika deitzen duen lurrean; eta hori da, hain zuten, etorkizuneko auzi handiak lantzeko egongo den gunea. Izan ere, gaur egun, gure agenda soziopolitikoaren eratzan dauden gai garrantzitsuak —bakea, berdintasuna, tolerantzia edota mestizajea bezalako gaiak— eta, era berean, bizitza politikari lotuta dauden gaiak —abortua, eutanasia, homosexualitatea, eta abar— ez dira sortu gobernu edo parlamentuetan. Alderantziz da, kaleetatik ari baitira instituzioetara iristen. Flores d'Arcais-en ustez (2002), ez dira «antipolitikaren» adierazpenak, baizik eta, zerbait izatekotan, antipartitokraziaren adierazpenak. Bestetik, «politika gehiago» dioen eskaeraren adierazpen ere badira, zehazki, parte-hartze demokratiko gehiago, burujabetza taldeka gauzatzeko jardura gehiago eta zabalagoa, eta herritar xehean konpromiso zibil handiagoa.

Arazoa parte-hartzearen aurka agertzeko jarrera baldin bada (besterik gabe), ezer gutxi egin ahal izango dugu, garai on-zaharren irrikan egotea ez bada. Nolanahi ere, beharbada, uste ona izanda, beharbada, noizbait bolada txarrak igaroko dira, eta historiaren iragaite apetatsuak beste egoera batera eramango gaitu, zeinahi arrazoi dela-eta, herritarren parte-hartzea berriz boladan egongo den egoera batera. Baina, arazoa ez baldin bada parte-hartzea krisian dagoela, besterik gabe? Krisian dagoena parte-hartzea ulertzeko modu jakin bat baldin bada? Erronka izugarria dugu aurrean, herritarren parte-hartzea benetan bilatzen duten erakundeei eta instituzioei botatako erronka. Parte-hartzearen arazoa beharbada ez da jendea izango (ez hainbeste), erakundeak baizik.

Jakina, parte-hartzeko errealitate berria ez da guztiz argitsua; eta dituen ilunguneak azaldu nahi baditugu, ez da aski esatea errealitate hori oraindik azaleratzen ari dela eta, beraz, zalantzazkoa dela. Parte hartzeko kultura berrian, berriz aztertu eta, hala behar izanez gero, ezabatu behar diren alderdi batzuk daude: jarraitutasunik eza, estetizismoa, informalizazioa, boluntarismoa, zatiketa, oinarri indibidualista, instituzioen aurkako sumina, NIMBY alderdia (*not in my back yard*, «ez nire atzeko patioan»), eta abar. Alabaina, ez dirudi egokia denik despolitizazio pribatistari buruzko ñabardurarik gabeko argudioak ematen jarraitzea, «Beste mundu bat baliteke!» oihupean mundu osoko milaka lagun egunero mobilizazioak egiten ari direla ikusita.



## PARTE HARTZEKO PROPOSAMEN BAT


- ○ ● **Politikari balioa ematea, benetako balioa.** Hannah Arendten hausnarketa zirikatzailearen arabera, politikak, funtsean, hasi ahal izatea esan nahi badu, nabaria ematen du ez dagoela modu hoberik parte-hartze politikoa berriz legezkozteko, duen zeregin eraldatzailea berreskuratzea baino. Horretarako, kontra egin beharko genioke pentsamendu politiko bati, kontuak dauden bezalakoak direla eta ezin direla bestelakoak izan dioen pentsamendu politikoari —berdin dio nola esaten duen, pozez edo malenkoniaz—. Halabeharrezkotasunaren diskurtsoa, errealitatea eraldatzeko tokia murriztu eta ia-ia desagertu dela dioen ideia da, hain zuzen, politika —eta, beraz, parte-hartzea— alde batera utzi ahal dela adierazteko eta giza arazoan kudeaketa teknokratiko eraginkorra aski dela babesteko dagoen modurik onena.
- ○ ● **Parte-hartzearen kontzeptua zabaltzea.** Onartu beharra dago parte-hartzea ez dela agortzen demokrazia ordezkatzailaren eta delegatzailearen prozeduretan. Are gehiago, gogoan izan behar dugu, beharbada, delegatzeko joera hori dagoela gorantz doan herritarren apatian eta demokraziaren aurka agertzeko joeraren oinarrian. Instituzioek kontuan izan behar dute parte-hartzea. Egiturak eduki behar dira (berriak edo berrituak), herritarren eta arduradun politikoaren artean bitartekari-lana eraginkortasunez egin ahal izateko: erreferenduma, legegintzako herri-ekimena, parlamentuko batzordeak, eta abar. Baina, aldi berean, jarrerak ere badira tartean: entzuten ikasi behar dute eta, batez ere, entzuten ari direla frogatzen ikasi behar dute.
- ○ ● **Parte-hartzea erabiltzearen balioa erakustea.** Parte-hartze politikoarekiko interesak zerikusi handia du jardura politikoa herritarrengana iristeko dagoen moduarekin. Gizarte batean, «nik ez dakit ezer politikaz», «nik ez dut politika-kontuez hitz egiten» edo «politikak ez dit ardura» bezalako adierazpenak arruntak baldin badira, orduan, gizarte hori zibikoki gaixorik dago. Esaera horiek aditzera ematen digute auzi politikoak gure benetako kezkekin batere zerikusirik ez duten gai modura hartzen direla, eta akats handia da hori. Eta ez dit balio erantzun gisa arazoa zera dela esatea: politika gero eta konplexuagoa dela, eta aztertzen diren gaiak gero eta zailagoak direla herritar arruntarentzat. Ez al dute ehunka pertsonen «gaitz arraro» deitutako gaixotasun horien eraginik jaso —haien edo haien senideetako batek—, eta ez al dituzte zeruak eta lurak mugitu gaixotasun horri aurre egiteko behar den informazio guztia lortze aldera, medikuaren laguntza hutsarekin aski ez izanda? Gehienetan axola-gabezia herritarren kezketatik —funtsean edo formetan— urrutiratuta dagoen politika-mota baten ondorioa izaten da, eta ez horren arrazoia. Hor-taz, ezinbestekoa da ekintza politikoa herritarren interesekin uztartzea.
- ○ ● **Parte-hartzea materialki (ekonomikoki) gauzatu ahal izatea.** Barber-ek azaltzen duenaren arabera (2000), «demokrazia astialdiaren mende dago, gizarte zibil bati dagokion heziketa jasotzeko, eztabaidetan parte hartzeko, epai-mahai gisa jarduteko, udal-magistraturak osatzeko edota boluntario gisa jardura zibikoetan aritzeko behar den denboraren menpe». Maiz, demokrazia ordezkatzaila eskuordetza emateko joera arduragabera murriztuta geratzen da, eta horrek zerikusi handia du denboraren gabeziarekin. Era berean, badu horrekin zerikusirik politikan sendotu den profesionalen kasta berri zorigaitzokoak, herritarrengandik eta haien arazoetatik hain urrutiratuta dagoen horrek. Kontua da orain dela gutxi aipatzen hasi den lan zibikoaren Europa horretarantz aurrera egitea. Europa berri bat eraiki behar da, eta pertsona guztiei onartu behar zaie «aldizkako lanerako eskubidea, hartara, emakumeek eta gizonek txandakatu ahal ditzaten jardura-eremuak (konbentziozko lana, etxeko lana, lan zibikoa), egokiago iruditzen zaiena-





ren arabera»; eta —gaineratuko dut— aldaketa horiek ez dute inolako kalterik ekarri behar pertsonen bizitza duin bat izateko dituzten aukerei begira.

- ○ ● **Parte-hartzeko egitura eta forma berriak.** Ez hain totaliztzaileak, eta behin-behinekoagoak, malguagoak, parte-hartzaileagoak. Militantzia bikoitzetan edo hirukoitzetan sartu behar dugu geure burua, ez dugu gehiago pentsatu behar kidetzea erkidego filolerlijiozko batean sartzea bezalako zerbait denik, barneko kritika onartu behar dugu, eta bertan behera uzteko jokaerak ere bai.



Das Leben der Anderen  
Florian Henckel-Donnersmarck (2006)

- ○ ● **Tokiko esparruak duen garrantziaz jabetzea.** Robert A. Dahlek zalantzarik gabe esaten duenez (1994), herritar arruntek ezer gutxi parte hartzen dugu gure bizitzari begira funtsezko garrantzia duten erabaki asko hartzerakoan, eta, gainera, zailtasun ugari daude parte-hartze demokratikoa egon dadin, besteak beste, hain agerikoa denez inor ohartu gabe pasa ahal den honako hau: muga larriak daude erabaki demokratikoak hartzerakoan eraginkortasunez parte-hartzeko, tartean dauden pertsonen kopurua dela-eta. Bestela esanda: erabakiek eragina baldin badute pertsona kopuru handi batengan, ziurrena, desberdintasunak azalduko dira erabakietan parte hartzeko aukerei begira, nahiz eta pertsona guztiak prest azaldu prozedurak demokratizatzeko. Tamaina demokratikoki parte hartzeko (edo ezin izateko) aukera izateko baldintza da. Arazoa ez da teorikoa, praktikoa baizik, eta Dahlek halaxe azaltzen du: gorde edo sortu ahal ditugu estatu-nazioak edo megapolis izugarriak baino txikiagoak diren eta erabakiak hartzeko parte-hartze garrantzitsua bermatzeko aginpide aski izango duten unitateak? Egileak berak izan daitezkeen irtenbide batzuk ematen ditu, eta giza tamainako auzoen eta hirien alde azaltzen da, leku horietan benetako parte-hartze demokratikoa gauzatu ahal izango delako, betiere, bi oinarri hauetatik abiatuta:

1. Gai bat gizarte demokratiko batean hobeto lantzen bada, ahaleginak egin behar dira beti gizarte txikiago batek behar bezala landu ahal izan dezan.
2. Gizarte handiago bat egokia izango ote litzatekeen aztertzerakoan, kontuan izan behar dira beti tamaina handiagoko izateak dituen kostu gehigarriak, eta norbanakoaren ezintasuneko sentsazioak gora egiteko dagoen aukera ere bai.

Tokiko esparrua (herria, auzoa, barrutia, hiria) toki ezin hobea da parte hartzeko.

Laburbilduta, aro berri baten hasieran gaude, herritarrek parte hartzeko esparruari dagokionez. Parte hartzeko moldeak aldatzen ari dira, eta parte hartzera bultzatzen duten gaiak ere bai. Egiturak eta jarrerak aldatzen dira. Iragandako garaien miraz egonik errealitate berriarekiko harremana galtzen duen horrek era berean galduko du gizarte parte-hartzaileagoaren eraikuntza bultzatzeko aukera.



## BIBLIOGRAFIA

---

- BARBER, B. R. (2000): *Un lugar para todos*, Bartzelona, Paidós.
- BECK, U. (1997): «La reinención de la política: hacia una teoría de la modernización reflexiva», hemen: U. BECK, A. GIDDENS eta S. LASH: *Modernización reflexiva. Política, tradición y estética en el orden social moderno*, Madril, Alianza Editorial.
- (konp.) (1999): *Hijos de la libertad*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.
- BENEDICTO, J., eta F. REINARES (arg.) (1992): *Las transformaciones de lo político*, Madril, Alianza Editorial.
- BERLIN, I. (2001): *Dos conceptos de libertad y otros ensayos*, Madril, Alianza Editorial.
- BOBBIO, N. (1993): *Igualdad y libertad*, Bartzelona, Paidós.
- BODEI, R. (1995): *Una geometría de las pasiones*, Bartzelona, Muchnik.
- CALLINICOS, A. (2003): *Igualdad*, Madril, Siglo XXI.
- CONTRERAS, F. J. (1994): *Derechos sociales: teoría e ideología*, Madril, Tecnos.
- CROSSMAN, R. H. S. (1977): *Biografía del Estado moderno*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
- DAHL, R. A. (1994): *¿Después de la revolución?*, Bartzelona, Gedisa.
- (1999): *La democracia. Una guía para los ciudadanos*, Madril, Taurus.
- FLORES D'ARCAIS, P. (2002): «Italia: nace una forma inédita de hacer política», *El País*, 2002-03-20.
- GAMBLE, A. (2003): *Política y destino*, Madril, Siglo Veintiuno.
- HABERMAS, J. (1999): *La inclusión del otro. Estudios de teoría política*, Bartzelona, Paidós.
- JÁUREGUI, G. (1994): *La democracia en la encrucijada*, Bartzelona, Anagrama.
- MARSHALL, T. H., eta T. BOTTOMORE (1998): *Ciudadanía y clase social*, Madril, Alianza Editorial.
- OVEJERO, F. (2002): *La libertad inhóspita. Modelos humanos y democracia liberal*, Bartzelona, Paidós.
- J. L. MARTÍ eta R. GARGARELLA (konp.) (2004): *Nuevas ideas republicanas. Autogobierno y libertad*, Bartzelona, Paidós.
- PUTNAM, R. D. (2002): *Solo en la bolera. Colapso y resurgimiento de la comunidad norteamericana*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores.
- (arg.) (2003): *El declive del capital social. Un estudio internacional sobre las sociedades y el sentido comunitario*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores.



- RUBIO-CARRACEDO, J., J. M.<sup>a</sup> ROSALES eta M. TOSCANO (arg.) (2002): *Retos pendientes en ética y política*, Madril, Trotta.
- SEN, A. (1999): *Sobre ética y economía*, Madril, Alianza Editorial.
- STOTZKY, I. P. (2004): «Crear las condiciones para la democracia», hemen: H. H. KOH eta R. C. SLYE (konp.): *Democracia deliberativa y derechos humanos*, Bartzelona, Gedisa.
- SUBIRATS, J. (arg.) (1999): *¿Existe sociedad civil en España? Responsabilidades colectivas y valores públicos*, Madril, Fundación Encuentro.
- TODOROV, T. (1995): *La vida en común*, Madril, Taurus.
- WALDRON, J. (2004): «Deliberación, desacuerdo y votación», hemen: H. H. KOH eta R. C. SLYE (konp.): *Democracia deliberativa y derechos humanos*, Bartzelona, Gedisa.
- WILKINSON, H. (1999): «Hijos de la libertad. ¿Surge una nueva ética de la responsabilidad individual y social?», hemen: U. БЕКК (konp.): *Hijos de la libertad*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.

■ **Imanol Zubero Beaskoetxea** Soziologian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) Soziologiako irakasle tituluduna, eta Soziologia eta Zientzia Politikoko Euskal Elkarteko burua da. Gizarteko mugimendu eta herritarren ekimen askoren bultzatzailea izateaz gain —kontzientzia-eragozpena, nazioarteko elkartasuna edota tokiko gobernua sustatzeko mugimenduen bultzatzailea—, hainbat ikerketa egin ditu bazterketaz, gizarteko eskubideez eta enpleguaz, eta, era berean, euskal gaia behin eta berriz agertzen da bere ekintzetan eta hausnarketetan. Hainbat liburu eta artikulu argitaratu ditu gai horiei buruz, eta hitzaldi, mintegi eta master askotan hartu du parte. Sei urtez zinegotzi jardun du bere udalerrian, Izquierda de Alonsotegi/Alonsotegiko Ezkerra izeneko herritarren hautagaitza baten izenean, Euskal Herriko Bakearen Koordinakundeko bultzatzailea izan da erakunde hori sortu zenetik, eta Aldaketa-Cambio por Euskadi izeneko herritarren ekimenaren sortzaileetako bat izan da. 2008ko hauteskunde orokorretan senatari hautatu zuten Bizkaian.



# **LANERAKO PROPOSAMENAK**

**Ricardo Arana**  
**Hernán Echevarría**  
**Fernando Ganzo**  
**Laura García**  
**M.<sup>a</sup> Ángeles Ricondo**

- **Ricardo Arana Mariscal** maisua eta kazetaria da. Bizkaiko Barakaldo herriko ikastetxe publiko batean ematen ditu eskolak. Irakasleen sindikatuko ordezkaria, eta Euskadiko Langile Batzordeen komunikazio konfederalaren arloko eta irakaskuntzako federazioko arduraduna izan da. Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kidea eta Giza Baliabideen Batzordeko burua izan da. Hainbat herri-ekimenetan eta jardueratan parte hartzen du, balioetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatzeko eta etorkinak gizarteratzeko. Bere hausnarketetan, komunikazioaren teknologia berriek gizartean duten eragina aztertu du. Lankidetzan aritu da euskal prentsako iritzi-orrietan, eta argitalpen profesional batzuekin, esate baterako, *Trabajadores de la Enseñanza* eta *Escuela*, argitalpenekin.
- **Hernán Echevarría Calvo** maisua, eta Geografia eta Historian lizentziaduna da. Irakaskuntza-lanetan aritu da Euskal Herriko hainbat ikastetxe pribatu eta publikotan, hala Lehen nola Bigarren Hezkuntzan; horrez gain, irakasleen ordezkari sindikala izan da. Gaur egun, irakasle-lanetan ari da pertsona helduen hezkuntzara zuzenduta dagoen Bizkaiko zentro publiko batean, eta, aldi berean, zentro horretako zuzendaria da. Arteak eta historiak pizten dute bere arreta. Irakaskuntza-lanetan, zinemagintza erabiltzeko egiten diren ikerketetan hartzen du parte.
- **Fernando Ganzo Cuesta** Kazetaritzan lizentziaduna eta Ikus-entzunezko Komunikazio Saileko prestakuntzako ikerlaria da UPV/EHUn. Doktorego-tesia egiten ari da bertan. Era berean, Zinemaren Estetika eta Historiari buruzko masterra egiten ari da Valladolideko Unibertsitatean. Vocento taldean eta hainbat argitalpenetan lan egin du. Gainera, film laburrak egiten ditu, eta zinemari buruzko *Lumière* aldizkaria zuzentzen du beste batzuekin batera.
- **Laura García Pérez** kazetaria eta Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da. Erredaktore gisa lan egin du hainbat argitalpenetan, eta irakasle-lanetan aritu da Santanderren, helduentzako zentro batean. Zinemarekiko interesa izanik, Teoria eta Análisi Filmikoari buruzko doktoregoko ikasketak egin ditu, eta zinemagintza espainiarrean espezializatu da. Gaur egun, egunkari digital batean ari da lanean, eta *Espejo de Cantabria* aldizkariko lankidea da.
- **M.<sup>a</sup> Ángeles Ricondo Iglesias** maistra da, eta Musikako goi-mailako ikasketak egin ditu. Lanbide-bizitzan barrena, kudeatze eta irakaskuntzako lanak egin ditu hainbat ikastetxetan, bai eta elkarbizitzarako hezkuntzari buruzko lan zehatzak ere. Gaur egun, irakasle gisa lan egiten du Bilbon, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean.

# 'El hombre que mató a Liberty Valance'



ikusteko



aditzeko

## 'The Man Who Shot Liberty Valance'

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

Iraupena: 119 minutu.  
 Herrialdea: Estatu Batuak.  
 Urtea: 1962.  
 Generoa: *Western*.  
 Zuzendaria: John Ford.  
 Gidoia: James Warner Bellah eta Willis Goldbeck, Dorothy M. Johnson-en jatorrizko kontakizuna abiaburutzat hartuta.

Argazkia: William H. Clothier.

Muntatze-lana: Otho Lovering.

Musika: Cyril Mockridge.

Ekoizpena: Paramount Pictures.

Aktoreen zerrenda: James Stewart, John Wayne, Lee Marvin, Vera Miles, Edmond O'Brien, Andy Devine, Jeanette Nolan, John Qualen, Woody Strode, Lee Van Cleef, Strother Martin, Denver Pyle.



### ● ● ● LABURPENA

Ransom Stoddard senatari ezaguna (James Stewart) bere emaztearekin heltzen da Shinbone hiri umilera. Herriko egunkarian ea zertara heldu den galdetzen diotenean, berak argitzen dio gizon baten hiletara joango dela. Gizon hori Tom Doniphon da (John Wayne), eta egunkarikoek ez dute heriotza horren berri. Hori horrela, Stoddardek istorioa kontatzeari ekiten dio. Abokatu gisa lizentziadun berria dela, Stoddard diligentsian abiatzen da Shinbone hirira ekialdetik. Liberty Valance bidelapurra (Lee Marvin) eraso egiten dio diligentsiari, lapurtzeko, eta jipoi bat ematen dio. Tom Doniphonek jasotzen du, eta Peter *suediar* eta haren emaztearen ostatura eramaten du. Hor, Hallie gazteak (Vera Miles) zainduko du. Stoddardek legea

eraman nahi du lurralde basati horretara, baina Doniphonek erantzuten dio salbu egoteko pistola behar duela. Valancerekin beste liskar bat izan ondoren, platerak zerbitzatu eta garbitzen aritzen da lanean, eta hala Peabody jauna ezagutzen du, hau da, *Shinbone Star* herriko egunkariko zuzendaria. Harentzat lan egiten hasten da, eta eskolak emateari ere ekiten dio. Hala ere, gatazka piztuko da batzarrean lurraldeak izango duen ordezkaria aukeratu behar dutenean; batzar horretan erabaki behar dute zer ezarri: baserritar txikiak seguru egoteko moduko estatu bat, edo *Open Range-ri* eutsi, hau da, jabe handiek boterea edukitzen jarraitzea soldatapean dituzten gaizkile pistoladunen indarrari esker.

Herriak Peabody eta Stoddard hautatzen ditu ordezkari izan daitezen, eta inork ez dio Valanceri botorik ematen. Gau horrexetan, Valancek egunkariko erredakzioa suntsitzen du, eta jipoi izugarria ematen dio Peabodyri. Stoddardek armak baliatuz aurre egitea erabakitzen du, eta Valance erortzen da. Batzarrean errudun sentitzen da armak erabili zituelako, baina Tomek egia azaltzen dio: Tomek berak hil zuen Valance, traizioz hil ere, bizitza salbatu nahi ziolako, eta, horren ondorioz, uko egin behar izan zion Hallieri, etxe bat eraikitzen ari baitzen Hallierekin familia bat osatzeko asmoz. Kontakizuna entzun ondoren, egunkariko zuzendariak istorioa ez kontatzea erabakitzen du, Liberty Valance hil zuen gizonaren mitoak bere horretan jarrai zezan ukitu gabe.

## ○ ○ ● ZER AZALTZEN DU FILMAK?

Filma zuri-beltzean eginda dago, eta hori ezohiko kontua da tamaina eta ezaugarri hauek dituen 1962ko ekoizpen baterako. John Fordek egin zuen azken maisulana da hau, eta Mendebaldeko mitoari buruzko ekin-tza errebisionista bat izan zen. *Flashback* luze baten egitura erabiltzen du, eta, horren barruan, errealtatea azaltzen duen beste *flashback* bat agertzen da. Egitura horren bidez, filmak nazio amerikarraren gainean jarritako belo heroikoa kentzen du. Kazetariaren azken esaldia genero honetako erreferentzia-puntu bilakatu zen, eta Amerikako Estatu Batuetako historiari ekiteko Hollywooden baliatu zuten moldearena ere bai: «when the legend becomes fact, print the legend» (mitoa egitate bihurtzen denean, inprima ezazu mitoa).

## ○ ○ ● KONTAKIZUNAREN MEMORIA

- |        |   |
|--------|---|
| 01 min | Hasierako kredituak. Trena Shinbone hirira iristen da, Ransom Stoddard senataria eta bere emaztea barruan daudela. Prentsak horren berri jasotzen du, eta elkarrizketa bat egiteko eskatzen dio. Bien bitartean, Link Appleyard komisario zaharrak etxe bat ikustera eramaten du Stoddard andrea; etxea erortzen ari da eta kaktusak loratzen dira bertan.                    |
| 07 min | Senatariari elkarrizketa egiten hasten dira. Senatariak esaten du Tom Doniphonen hiletan izateko heldu dela herrira, eta Hallie emaztearekin batera sartzen da hilkutxa ikustera. Senatariaren ondoan, Pompey izeneko gizon beltz bat agertzen da, guztiz hunkituta. Une horretan, kazetaria galdezka hasten da berriz, eta Stoddardek istorio osoa kontatzea erabakitzen du. |
| 14 min | <i>Flashback</i> handia hasten da. Liberty Valance eta bere gizonak eraso egiten diote diligentsiari; barruan Stoddard gaztea doa, Shinbone herrirako bidean. Eztabaida laburra izan ondoren, jipoi bat ematen diote.   |
| 17 min | Tom Doniphonek Hallie dagoen tokira eramaten du Stoddard, zaurituta baitago. Han, Halliek, Nora eta Peterekin batera —hiriko ostatuaren ardura duten senar-emazte suedia-   |





- rrekin— zauriak sendatzen dizkio. Tomek pistola bat eskuratzea gomendatzen dio, horrela bere burua babestu ahal izateko. Link Appleyard *sheriffari* azaltzeko eskatzen diote, baina *sheriffari* izu-ikara sartzen zaio Valance izena entzutean.
- 27 min Dutton Peabodyk eta Willoughby medikuak Valanceri buruz hitz egiten dute Appleyardekin. Peabody ostatuan sartzen da afaltzeko asmoz; bitartean, Stoddard lanean ari da sukaldean, legezko liburuak begiratzen, bidelapurra atxilo hartu ahal izateko. Ohartzen da Halliek ez dakiela irakurtzen, eta ikasteko proposamena egiten dio. Ransomek Link komisarioari esaten dio Liberty atxilo hartu ahal duela. Tom heltzen da, eta kaktus-lore bat oparitzen dio Hallieri. Berriz ohartarazten dio Stoddardi, arma batekin bere burua babesten ikasten ez badu, arriskuan dagoela. Horren ondoren, afaltzera esertzen da Peabodyrekin, eta hitz erdika esaten du aurki Hallierekin ezkonduko dela. Valance heltzen da, eta eraso jotzen dio Ransomi, Tomi zerbitzatzen ari den bitartean. Horrek eta Pompeyk kanpora bidaltzen dituzte. Ransom berriz hasten da eztabaidan Doniphonekin, eta Peabodyk lan bat eskaintzen dio kanpotarrari erredakzioan. Tom-ek jakinarazten du aste batzuk emango dituela kanpoan.
- 47 min Stoddard Peabodyrentzat lan egiten hasita dago, eta eskolak ematen dizkie herriko lagun askori. Estatuaren eta lurraldearen arteko gatazka hurbil-hurbil dagoela sumatzen da. Tomek ohartarazten die Valancek ez duela baimenduko haiek jendea akuilatzea ordezkaria askatasunez hauta dezaten. Hallie ohartzen da Ransomek alde egin duela tiroan aritzera, eta, Valanceri aurre egin nahi diola uste duenez, laguntza eskatzen dio Tomi.
- 1 h 00 min Tomek bidean atzematen du Ramson, eta etxera eramaten du. Hallierentzat eraikitzen ari den gela erakusten dio, eta dituen asmoen berri ematen dio. Pistolarekin trebatzen laguntzen dio, baina argi erakusten dio ezinezkoa dela Valanceri aurre egitea, eta lotsarazten du tiro zehatz bat eginez. Stoddard haserretzen da, jipoitzen du, eta alde egiten du.
- 1 h 04 min Herriko gizon zuri guztiak *salonean* biltzen dira, lurraldea ordezkatuko duten bi delegatuak hautatzeko. Liberty heltzen da, eta bere burua izendatzen du, baina denek ematen diete botoa Stoddardi eta Peabodyri. Valancek ultimatuma ematen dio Ransomi: gau horretan hiria uzten ez badu, hil egingo du.
- 1 h 15 min Peabody mozkortzen da, Valanceren beldur dagoelako. Ransomek uko egiten dio Pompeyren laguntzarekin ihes egiteari. Libertyk *Shinbone Star* egunkariaren erredakzioa suntsitzen du, eta jipoi izugarria ematen dio Peabodyri, erdi hilda uzten baitu. Stoddardek aurkitzen du, eta medikuari deitzen dio. Kanpora ateratzen da, Valanceri aurre egiteko, eta Valance hiltzen da. Gero Tom agertzen da, eta Hallie ikusten du, Ransom besarkatzen ari dela.
- 1 h 34 min Tom, suminduta, tabernara sartzen da, eta mozkortu egiten da. Bere etxera itzultzen da, eta su ematen dio Hallierentzat egiten ari zen gelari.
- 1 h 39 min Jabe handien eta hegoaldeko abeltzain txikien arteko eztabaida egitea erabakitzen da; abeltzain txikiek estatua eratu nahi dute, eta Peabody eta Stoddard dira haien ordezkariek. Stoddard errudun sentitzen da, Valance hil duelako, bere printzipioei huts eginez, legeari zintzo jarraitu gabe. Tom heltzen da, eta aditzera ematen dio berak egin ziola tiro Valanceri, beste *flashback* batean. Orduan Ransonek onartzen du Washingtonera joango den hautagaia izatea, eta Tomek alde egiten du.
- 1 h 54 min Oraindira itzultzen gara berriz. Kazetariak uko egiten dio benetako istorioa argitaratzeari. Azkenik, aurrerantzean ere, bera izango da Liberty Valance hil zuen gizona. Ransomek eta bere emazteak Shinbonera itzultzea eta bertan geratzea erabakitzen dute.

## ○ ○ ● AZTERKETA

*The Man Who Shot Liberty Valance* bezalako film batek (jatorrizko izenburuaren itzulpen zehatza «Liberty Valanceri tiro egin zion gizona» da) aukera ematen digu azterketa soil bat egiteko, bera eraikitzekeo baliatutako oinarritzko osagaiak erabiliz: kontakizunaren egitura, pertsonaiak, eta pertsonaia horiek betetzen duten tokia.

Filmaren egiturari erreparatuz gero, esanahia duten hainbat arlo suma ditzakegu. Deigarria da «*flashback* bikoitzetan» antolatzekeo dagoen modua, *flashback* bat bestearen barruan sartuta baitago, panpina errusiarren moduan. *Flashback* horiek Stoddardek kazetari bati egindako kontakizunarekin hasten dira, kazetari horrek galdetzen baitio ea zer dela-eta iritsi den trenez Shinbone hirira (ohar bitxi bat: Stoddard trenez heltzen da hiri batera... eta hiri horretara trena berari esker iritsi zen). Lehenengo *flashback* handi hori «benetakoa» da, une erabakigarri bat iristen den arte, zehazki, Stoddard legearen eta ordenaren heroi bilakatzen den unera arte. Orduan, bigarren *flashbacka* agertzen da, «desmitifikatzailea» dena, aberriaren heroi gisa betetzen zuen eginkizuna kentzen baitio, eta ahanzturan lurperatzen baitu betiko Tom Doniphon, kazetariak ere ez baitzekiten bere hiletaren berri izan, halako hiri txiki batean egon arren.

Bigarrenik, filmak hiru pertsonaia nagusi ditu: Ransom Stoddard, Tom Doniphon eta Liberty Valance. Haietako bakoitzari sinbolo bat dagokio, gizartean betetzen duen zeregina azaltzen duen ikono bat. Liberty Valance irudikatzekeo, zartailua agertzen da, hau da, indarkeriaren eta oraindik basatia eta menderakaitza den mundu baten sinboloa. Stoddard irudikatzekeo, liburuak azaltzen dira, edo, oro har, idatzitako hitza. Era horretan, aurrerapenaren, jakintzaren, legearen eta aurrera doan bidezkeo gizarte baten zutoihal bihurtzen da. Tom Doniphonen ikonoa, berriz, kaktusaren lorea da, alegia, desertuan hazi daitekeen landare bakarra: elkorra den eta ezin alda daitekeen zerbait.

Azkenik, bota diezaiozun begiratu bat gunea irudikatzekeo dagoen moduari. Tradizioz, *western* generoaren barruan oso garrantzitsua izan da «barnealdea» eta «kanpoaldea» bereiztea. Film honetan, jokoa bereziki adierazgarria da Tom Doniphon pertsonaiari dagokionez. Sekuentzietan, inoiz ez da gune sozialen barruan agertzen. Hiru une nabarmentzen dira batez ere: lehenik, Ransom eta Valanceren arteko tiroketaren ondoren, Hallie eta heroi berria bakarrik uzten ditu, mozkortzekeo eta bere etxea erretzekeo, ekintza autosuntsitzaile bat eginez —hori, aurrerago ikusiko denez, Liberty Valance hiltzearen luzapena baizik ez da—; bigarrenik, Liberty Valance benetan nork hil zuen Stoddardi argitu ondoren, Washingtonera joateko ordezkariaren hautaketan parte har dezan uzten dio Stoddardi, jendetzaren txaloen hotsean, eta berak bertatik alde egiten du; eta, azkenik, filmaren hasieratik bere ikurra izan den landarea, kaktusa Hallieri ematen dionean, Halliek etxetik kanpo lurperatzera behartzen du Pompey —Doniphon gizartetik kanpo gertzea ezinbestekoa dela hori uler dezakegu ekintza horretan—.

Izan ere, bigarren *flashbacka* desmitifikatzekeo ekintza bat da, «errealitate bihurtutako mito» hori deseraitzekeo ekintza. Denek heroizat jotzen duten gizona ez da halakoa, heroi bihurtu nahi izan ez zuen gizona baita berez heroia. Hallie galtzekeo anekdota erromantikotik harantz joz, Liberty Valance traizioz hiltzea ekintza autosuntsitzailea da. Lehen aurreratu dugunez, Doniphonek ez du lekurik Ransomek agintzen duen etorkizuneko mundu horretan. Bere etxea erretzekeo ekintzak eta Pompeyarekin hitz egitean «etxe» bat duela ere zalantzan jartzeak argi adierazten digute ideia hori.



Libertyren mundukoa da Doniphon, ez da arrotzaren mundukoa; baina, hala ere, bada lotura bat Doniphonen eta Stoddarden artean. Ikusmen aldetik, ideia hori indarrez adierazita dago, eszenetan biak aldi berean agertzen direnean sekuentzia horiekin egiten den plangintzari esker, hau da, eszena horiek hainbat planotan «desegiteko» edo ez desegiteko dagoen moduaren bidez. Liburuei eta pistolei buruz egiten dituzten eztabaida «filosofikoetan» izan ezik (eztabaida horietan, Doniphonek ohartarazten dio Mendebaldean ezinbestekoa dela arma bat aldean izatea), oso aldi bakanetan «bereizten» dira filmean bi pertsonaiak eszena berean, eremu-kontraeremu planoen sail batean deseginez. Baliabide hori oso ohikoa da zinemagintzan bi pertsonaiaren arteko aurkakotasuna islatzeko: bi aktoreak aurrez aurre jartzen dira solasean, eta bereizik filmatzen dira, kamera bien artean kokatuta, eta kameraren norabidea txandaka aldatuz, ehun eta laurogei graduko bira eginez. Era horretan, plano bakoitzean, pertsonaietako bat baizik ez dugu ikusiko (eremua); eta hurrengo planoan beste pertsonaia ikusiko dugu, eszenaren beste «erdian» (kontraeremuan). Film honetan, kontrakoa agertzen dela esan liteke, Wayne eta Stewarti dagokienez. Izan ere, bien arteko elkarrizketak, plano bakar batean egon beharrean, etenekin antolatuta daudenean, pertsonaiak beti agertzen dira plano guztien barruan (adibidez, Doniphonek Stoddardi egia esaten dion sekuentzian, plano-kontraplano bat dago, baina ez eremu-kontraeremu bat; hau da, plano bakoitzak pertsonaia bat hartzen du ardatz gisa, baina bestea bazter utzi gabe).



The Man Who Shot Liberty Valance  
John Ford (1962)

Hala, bada, Doniphon da atzera berriz operadore mitikoaren pertsonaia. Eskolako sekuentzia film osoko sekuentziarik esanguratsuenetako bat da. Bertan, utopia demokratikoaren moduko zerbait agertzen da. Izan ere, Fordek filmeko eszenetan egiten dituen «zeremonia politiko» guztien artetik, honetan baizik ez dute gizon beltzek eta emakumeek parte hartzen. Gainera, nazioaren ikurrak gailentzen dira aretoan: bandera eta George Washington eta Abraham Lincolnen erretratuak. Hala ere, Tom Doniphon, ezustean eta desertuko hautsez beterik —ez halabarrez, baina—, sartzen da ekitaldia desegiteko eta bertan dauden guztiak errealitatera berriz itzularazteko asmoz.

Ordezkarri bat hautatu beharrak eta Valance hori baimentzeko prest ez egoteak argi erakusten dute egoeraren larritasuna, eta agerian uzten du zuzendariak azaltzen duen kontraesana: sistemak ezin dio bere buruari eutsi. Edo, Doniphonek berak adierazten duenez, «botoek ezin diete pistolei aurre egin». *Sheriff* «traketsaren» gaitasunik eza hainbat aldiz nabarmentzen da filmean barrena; eta horrek era sinbolikoan adierazten du, Mendebalde zahar hartan, instituzio protodemokratikoak ez zirela gai askatasuna eta segurtasuna babesteko.

Hortaz, bada, film hau kasu paradigmakoa da *western* generoaren barruan, zalantzan jartzen baititu nazio amerikarraren sorburuak, baina ez hainbat hamarkadatan adierazitako mitoa, mito horren atzetik ezkutatzeko dena baizik. Bi *flashbacken* hasierari begiratu bat emanda, berehala ohartuko gara haien izaeran desberdintasun txiki bat dagoela. *Flashback* luzean, iraungitzeko efektu erraz batek berariaz espresionista den agertoki batera eramaten du filma, guztiz irreal den barrokismoz beteriko agertoki batera. Doniphonen *flashbacka*, berriz, guztiz bestelakoa da: iraungitzeko efektuarekin batera, fokatze oker nabarmen bat dago, eta Doniphonek erretzen duen zigarretaren keak areago azpimarratzen du. Hala, bada, gertaerak, beti azaldu dizkiguten eran (lehen *flashbackean*), osagabeak dira, zinemaren eragin mitifikatzaileak eta haren naturaltasunik ezak azpikoz gora jarri dituzte (diligentziari lapurreta egiteko erasoan dagoen dekoratuaren ikusgarritasun arranditsuak estudioko zinemaren lehen garaietara eramaten gaitu); aitzitik, egia (bigarren *flashbacka*) estalita, ezkutatuta dago, zaila baita agerian jartzea, *Shinbone Star* egunkariko zuzendari berriak iragana nahita zentsuratzean frogatuko duenez.

Azken batean, herrialde horren historia osoaren ernamuina biltzen duen paradoxa bateraezina dugu aurrean, beste zuzendari batek —John Fordek, *Shinbone Star* egunkariko zuzendariak ez bezala— argitara ematea erabaki baitu, nahiz eta inprimatutako hitza erabili beharrean zinemagintzako mintzaira erabili horretarako.



ikasteko

## ◦ ◦ ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: HISTORIAKO ESKOLA BAT

*The Man Who Shot Liberty Valance* filmeko unerik garrantzitsuenetako bat hau da: Stoddard herriko maisua dela erakusten duen eszena. Lehen esan dugunez, Estatu Batuetako zuzendariak zeregin guztiz sinbolikoa ematen dio *eskola* horri, sexu, etnia eta egoera aldetik era askotakoak diren herritar multzo bat azaltzen baitu, Mendebaldeko herritarrek etorkizunean izango zuten demokraziaren aurrerapen bat eskainiz.



The Man Who Shot Liberty Valance  
John Ford (1962)



Eszena horren aurrez aurre, beste batzuk jar ditzakegu, hala nola, zuzendariak gizonei (zuriei) mugatutako hauteskundero ekitaldiak jasoz paratzen dituenak. Barnean eta bazterrean daudenak behatzea oso ariketa argigarria da demokraziaren eraikuntza aztertzean, filmean agertzen diren bereizkeriazko guneak zehaztetik harantz jo ahal baitugu (adibidez, «mexikarren taberna», edo Pompey, jatetxeko sukaldean itxita egoten dena).

2008an Estatu Batuetan izan ziren azken hauteskunderetan, Barack Obamak irabazi zuen, eta hori motibazio handia da Historiako eskola bati ekiteko. Eskola horretan, taldeka jarrita, honelako alderdiak aztertu beharko genituzke: Estatu Batuetako hauteskunde-prozesuek dituzten ezaugarriak, gutxiengo etnikoek edo emakumeek noiz lortu zuten botoa emateko eskubidea, etab. Era berean, Espainian botoa emateko eskubideak dituen ezaugarriak azter genitzake, eta eskubide horrek izan duen bilakaera historikoa, gaur egungo Konstituzioko testuetan nola islatzen den, edota estatu, autonomia eta tokiko ordezkariak-kamereen funtzionamendua...

Talde bakoitzak ateratzen dituen ondorioekin, alegiazko egunkari bat egin genezake, eta ondorio horiek lehen orrian jarri, gertakaria dagokion ingurunean ondo kokatu ondoren. Estatu Batuetan, boto emateko eskubideari begira izan ziren unerik garrantzitsuenei buruzko informazioa lortzeko, New York hiriko unibertsitateak antolatutako orri bat dago sarean, ingelesez eta espainolez, eta oso baliagarria izan daiteke: <[http://www1.cuny.edu/portal\\_ur/content/voting\\_cal/spanish/index.html](http://www1.cuny.edu/portal_ur/content/voting_cal/spanish/index.html)>.

Bestalde, jarduera bat egin genezake ikasleengandik hurbilago dagoen esparru batean ordezkariak hautatzeko eskubidea aztertzeko, esate baterako, ikastetxe batean. Era horretan, bertatik bertara ezagutu ahal izango genituzke hautatze-organoak, organo horiek betetzen duten zeregina, haiek arautzen dituzten mekanismoak eta ordezkariak.





ikusteko



aditzeko

## ‘High Noon’

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

Iraupena:	84 minutu.
Herraldea:	Estatu Batuak.
Urtea:	1952.
Generoa:	<i>Western</i> .
Zuzendaria:	Fred Zinnemann.
Gidoia:	Carl Foreman.
Argazkia:	Floyd Crosby.
Muntatze-lana:	Floyd Crosby.
Musika:	Dimitri Tiomkin.
Ekoizpena:	Stanley Kramer Productions.
Aktoreen zerrenda:	Gary Cooper, Grace Kelly, Thomas Mitchell, Lloyd Bridges, Katy Jurado, Otto Kruger, Lon Chaney, Henry Morgan.



### ● ● ● LABURPENA

William Kane *sheriffak* (Gary Cooper) atxilo hartu ondoren, Frank Miller bidelapurra (Ian McDonald) aske utzi dute. Hadleyville herriaren kanpoaldean, zain ditu azio-lagunak (Lee Van Clift, Sheb Wooley eta Robert Wilke), laguntza eman nahi baitiote mehatxua burutu dezan, eta aski bare dagoen hiria delituz eta arriskuz berriz bete dadin. Hirian, arriskuaz ohartu gabe, kuakero batekin (Grace Kellyrekin) ezkontzen ari da *sheriffa*. Egun horretantxe, *marshall* gisa betetzen zuen postua utzi du, baina bidelapurra iritsi dela jakitean, herrian gelditzea erabakitzen du, bizitza berri baten bila abiatu ordez. Miller eguerdiko trenean iritsiko da; eta Kanek ordubete luzea besterik ez du laguntzaile-talde bat antolatzeke, eta bidelapurra atxilo hartzen saiatzeko. Hala ere, denek uko egiten diote laguntza emateko egiten duen eskaerari, hala bere emazteak eta laguntzaileak (Lloyd Bridges), nola herriko gehienak. Gainera, zera ematen diote aditzera: hiriarentzat hobe dela bera bertan ez gelditzea. Dena dela, betebeharraren zentzua oso barneratua duenez, Kane hirian gel-

ditzen da, ia ziurra den heriotzaren zain. Hala ere, iskin egingo dio heriotzari, bere zuhurtzia baliatuz, eta bere emaztearen laguntzari esker, azkenean *saloonen* jabea den Helen Ramírezek (Katy Jurado) emaztea konbentzitzen baitu, dituen ideiak alde batera utzi eta senarrari laguntza eman diezaion.

## ○ ○ ● ZER AZALTZEN DU FILMAK?

*High Noon* (Eguerdia) filmeko kontakizunaren egitura hurbil dago benetako denboratik, gertaeren eta ekintzaren mugak gainditzen ditu, eta normalean *western* generoaren kodeetatik oso urruti egoten diren hausnarketak egiten ditu. André Bazinek «*superwesterna*» deituko zion horri (erdeinuzko halako kutsu batez). Ez da harritzekoa garai hartako kritikari askok zera sumatzea filmean: bere printzipio moralen araberako jokatzeko jende guztiak bazterrean uzten duen gizon bat, alegia, berrogeita hamarrekotan hamarkadan zinemagintzak eta gidoilariak berak —auzipetuta baitzegoen garai hartan— jasan behar izan zuten sorgin-ehizaren parabola bat.

Sarreran, kargua uztera doan *sheriff* baten eta mendekua hartzeko egarriz herrira itzultzen den bidelapur baten arteko gatazka azaltzen da. Horren ondoren, hurrenez hurren azaltzen diren gatazka moral txiki batzuetan egituratuta dago filma, Kaneri atea itxi eta laguntza ukatzen dioten bakoitzean sortzen baitira gatazka moral horiek. Kanek eta *salooneko* uneko jabeak iraganean izandako gatazka erromantiko bat azaltzen da, eta horrek konplexutasuna ematen dio bilbeari; baina, hala ere, atez ate doan *sheriff* etsituaren ibilbidea gailentzen da filmean, gizarteak ukatzen dion laguntzaren bila baitoa, gizarte salbatzeko asmoz ibilita ere.

Filmak hainbat Oscar jaso zituen, eta Hollywoodeko industria osoa hunkitu zuen zapalkuntza politikoaren garaian egin zen (herriak «sorgin-ehiza» izenez deitu zuen zapalkuntzaren garaian). Filma alegoria gisa sortu eta ulertu zen, zinemagintzako profesional ezkertiar askok garai hartan jasan zuten egoeraren eta kideek *macarthysmora* saldu ondoren nozitu zuten elkartasun ezaren alegoria gisa.

## ○ ○ ● KONTAKIZUNAREN MEMORIA

- 00 min Hiru bidelapurak mendian biltzen dira. Kreditu-gutunak aurrera egiten du, eta, lehen aldiz, soinu-bandaren kanta nagusia entzuten da.
- 02 min Bidelapurrek herria gurutzatzen dute. 10:30ak dira. Bidelapurak agertzean, herritarrak harrিতa eta izuak hartuta geratzen dira. Aldi berean, Kane eta Amy ezkontzen ari dira. Bidelapurak geltokira iristen dira, eta eguerdiko trenaren zain gelditzen dira, tren horretan heldu behar baitu Frank Miller beldurgarriak. Geltokiko arduradunak albistearen berri ematen du. Hori jakitean, ordezkoa hel dadin artean egun bat falta bada ere, zera erabakitzen dute: Kane *marshallak* berehala joan eta arazoaz ahaztu behar duela.
- 09 min *Salooneko* jabea den Helen Ramírezen gela agertzen da. Helen harremanean dago Kaneren laguntzailea den Harvey Perl-ekin. Kanek itzultzea erabakitzen du, egoera bere kabuz konpontzeko.
- 12 min Kaneren emazteak senarra hirian uzten du, eta eguerdiko trena hartu eta abiatzea erabakitzen du.





- 15 min Bake-epaileak ere herritik alde egiten du.
- 17 min Tren-geltokian bidelapurrak daudela ikusita, Amy Kanek erabakitzen du hotelean itxuiten geratzea eguerdiko trenara iritsi arte.
- 18 min Perl laguntzailea egoeraz baliatzen ahalegintzen da, Kaneri xantaia egiteko: laguntza eskaintzen dio, baina *sheriff* berria izateko proposatzen badu. Kanek uko egiten dio proposamenari, eta Perlek suminduta alde egiten du. Bidelapurrak geltokian itxuiten ikusi ondoren, Perl eta Helenen arteko eztabaida agertzen da; azkenean Helenek Perl arbuatzen du.
- 24 min Amy hotelera heltzen da, eta, hor, harreragilearen proposamenak eta zorrozatasuna jasan behar ditu, bera limurtu nahian baitabil.
- 25 min Sam elizan sartzen da, Weaver-en bila ari da-eta. Herbek laguntza eskaintzen dio Kaneri, berak hala nahita. Weaver Ramírezen gelara heltzen da, eta taberna erosten dio.
- 28 min Kane hotelera iristen da, eta emaztea topatzen du bertan. Ramírez jakinaren gainean jarri nahi du Kanek, urtebete igaro baita azken aldiz ikusi zuenetik, harekin maitasunezko harreman bat izan ondoren. Harreragileak datu horren berri ematen dio Kaneren emazteari, eta *sheriffa* mespretxatzen duela adierazten dio.
- 31 min Bidelapurretako batek itxaronaldia atsegingarriago egitea erabakitzen du, eta herrirantz jotzen du, alkohol pixka bat edateko asmoz. Tabernan, Perlek suminduta edaten du, eta jende guztiak ospatzen du Frank Miller-en etorrera. Perl kanpora ateratzen denean, estropezu egiten du Kanerekin. Kane laguntza bilatu nahian sartzen da tabernara, baina arbuioa baizik ez du jasotzen.
- 37 min Kanek Fuller-en laguntza lortzeko ahaleginak egiten ditu, baina horrek emaztea gezurra esatera behartzen du, Kanek aurkitu ez dezan. Jimmy, tabernan zegoen begibakar alkoholikoa, *sheriffari* laguntza emateko prest agertzen da.
- 39 min Perl Ramírezen gelara itzultzen da, bera berreskuratu nahian, baina Ramírezek alde egiteko dituen arrazoiak azaltzen dizkio («Ordu erdi barru Kane hilik egongo da» —eta hortik aurrera herria ez da toki segurua izango—). Gero, masaileko bat ematen dio.
- 41 min Kane elizara iristen da, laguntza emango dion jendearen bila. Tartekatutako plano batean, bidelapurrak azaltzen dira, zain daudela. Gero, bat-bateko eztabaida-gune bihurtzen da eliza, Kaneri laguntza ematearen aldeko eta aurkako iritziak entzuten baitira, baina azkenean alkatearen argudioa nagusitzen da: joatera behartzen du, eta Kanek bakar-bakarrik abiatu behar du berriz.
- 48 min Frank Miller-en azio-lagunak agertzen dira berriz, trenara noiz iritsiko zain daudela. Kanek *sheriff* zaharrarengana jotzen du laguntza eske, baina, horren eszeptizismoa eta artritisa ikusita, atzera egiten du. Sheriff zaharrak, bestalde, alde egitera bultzatzen du Kane.
- 52 min Amyk bisita egiten dio Heleni. Aldi berean, Harvey Kaneren atzetik abiatzen da. Kane ukuilura joan da, eta zaldiei begira dago, zalantzan, zein hautatu asmatu ezinean. Harveyrekin eztabaida egin ondoren, azkenean, bere erantzukizunari aurre egitea erabakitzen du, eta borroka egiten dute elkarren aurka. Hotelera itzulita, Helenek aditzera ematen dio Amyri ez lukeela senarra bakarrik utzi behar. Azkenik, Kanek bizarginarengana jotzen du, mailatuta duen begitartea garbitu diezaion. Atzealdeko gelatik ateratzen den hotsa entzuten da: berehala izango den tiroketaren ondoren behar izango diren hilarriak lantzen ari dira.

- 1 h 01 min Kane bere bulegora itzultzen da. Lehenago berak hala nahita laguntza eskaini dion arren, Herb egoeraren arriskuaz ohartzen da, eta huts egiten dio *sheriffari*, eta bakarrik eta desengainatuta uzten du. John gazteak laguntza eskaintzen dio, baina Kanek ez du onartzen, ezin baitu haur baten bizitza arriskuan jarri.
- 1 h 05 min *Sheriffa* testamentua idazten ari den bitartean, plano labur batzuk agertzen dira ondoz ondo, pendulu baten erritmoan eginak, eta ordura arte filmean agertutako pertsonaia gehienek begitarteak erakusten dizkigute. Horren ondoren, trenaren hotsa entzuten da, hurbiltzen ari dela.
- 1 h 07 min Helen eta Amy geltokira abiatzen dira, eta, trenan iristen denean, Kane bakar-bakarrik dago herrian.
- 1 h 10 min Bidelapurrak hutsik dagoen herrira iristen dira. Kane baizik ez dago haien zain. Emazteak lehenbiziko tiroak entzuten ditu trenetik, eta itzultzea erabakitzen du. *Sheriffak* eta bere emazteak lau bidelapurrak hiltzea lortzen dute elkarren artean, batetik, *sheriffaren* maltzurtasunari esker, eta bestetik, emazte kuokeroak bere oinarriak alde batera uztea erabakitzen duelako.
- 1 h 19 min Herriko biztanle guztiak aterpeetatik irteten dira, eta tiroketaren amaieran zer gertatu den ikusten dute. Mutikoak gurdia hurbiltzen du Kane senar-emazteak dauden tokira, eta hiritik joaten dira, baina, abiatu aurretik, *sheriffak* erdeinuz botatzen du lurrera bere izarra.

## ○ ○ ● AZTERKETA

Testuaren (filmaren) eta testuinguruaren (filma egin zen uneko ingurune soziopolitikoaren) arteko harremanaren konplexutasunaren adibide bikaina da *High Noon* filma.

Lehen aurreratu dugunez, joera ezkertiarreko «talde egile bat» dagoela kontuan izanda (filmaren gidoilaria den Carl Foreman «zerrenda beltzetan» sartu zuten, eta Screen Actors Guild izenekoak *persona non grata* izendatu zuen Robert L. Lippert ekoizlea), eta filma egin zen garaia aintzat hartuta, begien bistakoa eta erraza da irakurketa alegorikoa egitea, eta, horren arabera, filmak *western* generora eramaten du sorgin-ehiza. Inork ezin du aintzat hartu gabe utzi zinemagintzako profesionalen eta *sheriffaren* egoeraren artean dagoen ageriko lotura: McCarthy senatariaren presio politikoaren ondorioz, kideek «saldukeria» egi-ten zieten zinemagintzako profesionalei, eta, era berean, *sheriffa* bakarrik uzten dute denek, arazoa haiei zuzen ez dagokielakoan.

Hala ere, testu guztiak ahalmen transnotatiboa dute (eta, oraingoz, filma testua dela onartuko dugu). Hala, bada, ez da kontu bera film bat interpretatzea egin zen garai historikoan kokatuta, edo bestelako testuinguru batean kokatuta interpretatzea. Hargatik, sorgin-ehizaren garaietan Amerikako kultura-arloan izan ziren gorabeherak orain urrun samar geratu direla kontuan izanik, bestelako interpretazioak sortzen dira, sustrai sakonagoak dituzten eta interesgarriagoak diren interpretazioak.

Esanahiz beteriko «drainatze» horretan, nolabait esateko, filmak xurgatuta bezala gordetzen zituen hain agerikoak ez ziren hainbat mezu, esate baterako, testuinguru historikoaren argitan uler daitezkeen horiek (eta, beharbada, mezu horiek kanpora ateratzeko filmaren gorputza «zukutu» beharra dago), eta horren guztiaren sustraia faktore generikoa da. Izan ere, eredu generiko batzuk hautatuz gero, ekintza une histo-



riko erabakigarri batean kokatzen da, hain zuten, gizarteko ordena eta ordenarik eza, edota aurrerapena eta basakeria aurrez aurre jartzeko erabakigarria den uanean; eta, horren ondorioz, filmean azaltzen den arazoa jarrera zehatz bati atxikitzen zaio, hain zuzen, nazio estatubatuarraren sorrerari eta haren oinarri politikoaren auziari.

Alabaina, filmean esanahi sakonago bat gainjartzeko dagoen joera horretan, *western* generoan erabakigarria izan den ikono bat aipatu behar badugu, heroia da ikono hori. Edo, hobeto esanda, Gary Cooper-ek hezurmamitzen duen heroi-mota.

Pertsonaia-mota horrek tradizio handia izan du generoan hasieratik bertatik, baina John Forden film batzuetan azaltzen dira haren adierazpide nagusiak, zehazki, John Waynek hezurmamitu zituen sormen-lan batzuetan eta, batez ere, bi hauetan: *The Searchers* eta *The Man Who Shot Liberty Valance*. Testuko azterketen esparruan, pertsonaia hau «operadore mitiko» gisa definitu ohi da (Greziako antzerkitik orain arte).

Operadore mitiko horren sinbolo ezin hobea da *High Noon* filmeko Will Kane. Ezinbesteko osagaia da, gizarteko sistema bat ezartzeko eta herria aurrera atera dadin lortzeko, baina bera ezin izango da inoiz txertatu bere laguntza erabakigarriari esker sortu den sistema horretan. Nolabait esateko, eskulana da, lan-indarra, eta dagokion zeregina bukatu ondoren ezin izango du jaso egin duen lanaren onura.



High Noon Fred Zinnemann (1952)

Filmak heroia-aren ikuspegi hori paroxismoaraino eraman eta zuktzen du, argi baitago une oro zein koderekin ari den jokatzeko. Filmaren hasierako uneen interpretazio argia egin daiteke: bidelapurrak eremu basa batean agertzen dira, legerik eta mugarik gabeko mundu basatia irudikatu nahi baita (garai hartan *Open Range* deitu zena). Ebakiduraren bidez aurkakotasun zuzena sortuz, protagonista aurkezten da, eskubide zibil jaiotze berriak bete-betean gauzatzen ari dela, hain zuzen, bake-epaile batek zuzendutako ezkontza zibilean dagoela. Handik denbora gutxira, ezkontza hori agur-ekitaldi bilakatuko da: Kane ezkontzen da, bera-ri esker bakean bizi den herri horretatik alde egiteko, eta, hainbat aldiz, errezeloz jokatzeko du, bere kargua uzteko uzkur, bidelapurrak iritsiko direla jakin aurretik ere bai.

Kanek herrian barrena egiten duen ibilbidea ere osagai argia da filmean: beti ibiltzen da aurrerantz, berak kontrolatzen ez duen indar batek mugiaraziko balu bezala. Filmak bi baliabide nabarmen erakusten ditu,

heroiaren papera jokatzeko, hau da, egin nahi ez duen eta, gainera, berarentzat kaltegarria den zeregin bat egitera behartuta dagoen pertsonaren rola antzetzeko.

Lehenengo baliabidea formazkoa da erabat: kameraren mugimendu bat da, Kaneren irudia etengabe zeruaren aurka marrazten duena; laguntzeko *travellinga* esaten zaio hori. Maniobra tekniko horrek ñabar-dura adierazgarri handia sortzen du, literalki errail batzuen gainean jartzen baitu pertsonaia, mugimendu zuzena eta erabakia eginez, aurrean zer duen ezin ikus dezakegula (berak ez baitu ezer aurretik) eta, aldi berean, hautatzeko aukerarik ez duela adieraziz.

Elkarrizketak dira ideia hori irudikatzeko erabiltzen duen beste baliabidea: askotan, zuzenean galdetzen diote Kaneri zein den ihes ez egiteko duen arrazoia, saihestu ahal izango lukeen heriotza ia ziurrari aurre egiteko duen arrazoia, eta gauza bera erantzuten du beti: «Ez dakit, ba, egin behar dut eta kito».

Filmak *western* generoan berezkoak diren beste osagai batzuk ere erabiltzen eta bereganatzen ditu, hau da, berariaz baliatzen du osagai horien izaera sinbolikoa bere helburuak lortze aldera. Eta, berriz ere, ingurune hurbilean ematen duena baino gehiago adierazi ahal dute pertsonaiek. Ildo horretan, deigarria da Kanek herrian geratzea erabaki ondoren filmak duen antolamendua, «mailatan» egituratuta baitago. Herri-tik alde egiten duten pertsonaia guztiak, berez, demokrazia hasi berriaren sinboloa dira; uko egiten diote denek demokrazia aurrera egin dezan beharrezkoa den gatazkari aurre egiteari. Lehenik eta behin, epailea dugu, azpikeriaz harrapatzen baitu beretzat dagokion instituzioaren ikonografia osoa, oso interpretazio argia duen sekuentzia batean, han zuzen, begiratu azkarretik harantz ere jotzen duen beste sekuentzia batean, aipamena egiten baitio «sorgin-ehizaren» garaian justiziak bete zuen zereginari. Instituzio demokratikoen sistema babesteko duten ahultasunaren adibide bat da hori, eta Mendebaldea menperatzeko erabakigarria izan zen sorrerako une horretan dago kokatuta.

Gehienek alde batera uzten dute Kane, baina berriz azaltzen zaigu pertsonaiek Estatu Batuetako demokraziari buruz duten izaera paradigmatikoa. *Sheriff* zaharrak, artzainak eta alkateak «sortzeko» irakurketa egiten dute, elizan antolatzen den bat-bateko batzarraren sekuentzian. Saltsa meheago egiteko, «mozorro-tuago» dauden beste instituzio batzuk aurkitu ahal ditugu; adibidez, hoteleko atezaina prentsaren transposizio baten modukoa da: herrian gertatzen den guztia daki, garrantza eta kritikoa da, eta azaltzen den plano bakoitzean egunkaria irakurtzen edo idazten agertzen da.

Alabaina, *western* generoak berezkoa duen sinbolo bat aipatu behar badugu, film honen azterketan aldeztu den berrinterpretazioa berresten duen sinbolo bat azpimarratzekotan, sinbolo hori trena da: «burdinazko zaldia» beti izan da aurrerapenaren eta zibilizazioaren sinboloa Mendebaldeko historian. Trenbidea eraiki bitartean, liskarrak izan ziren tribu indigenekin, eta eraiki zituzten lehenbiziko geltokiak aurreneko hiri handien hazia izan ziren.

Film honetan, trenak eramaten du bidelapurra. Filmaren hasieran zibilizaziotik erabat kanpo agertzen diren hiru bidelapurrak ez bezala, Frank Miller-ek sistemaren ahultasuna erakutsi du, eta Kanek halabeharrez zuzendu beharko du akats hori, hiriari berari demokrazia galtzea ekar baitiezaioke akats horrek bestela. Hala ere, Kanek gizartea arbuia tuko du, bere karguaren intsignia botako du lurrera, eta bere burua baztertuko du herritik alde eginez.



behatzeko



aztertze

## ● ● ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: INGELESEZKO AGIRIA

1951ko apirilean, *High Noon* filmeko gidoilariak, lanean buru-belarri ari zela, Jarduera Antiamerikarren Parlamentuko Batzordearen zitazioa jaso zuen, Alderdi Komunistarekin izan zituen harremanak zirela-eta deklaratzera joan zedin. Azkenean entzunaldia irailera arte atzeratu zen, baina ikerketaren aurrean bakarrik egoteko sentsazioa handitzen joan zen, eragin nabarmena izan zuen Foremanen lanean, eta Kane *sheriffak* nozitzen zuen bakardadea larriagotu zuen.

Foreman Batzordearen aurrean azaldu baino pixka bat lehenago hasi zen errodatze-lana. Unibertsitatera joan zen garaietatik aurrera, Foreman ez zen Alderdi Komunistako kidea izan. Gidoilariak ez zuen adierazpenik egin, Estatu Batuetako Konstituzioaren Bosgarren Zuzenketaren babesean, horrek galderei ez erantzuteko eskubidea ematen baitu, galdera horien erantzunak norbera autoinkriminatzeke modukoak izan ahal badira. Hala, «lankidetzaz ezaren» ondorioz, zerrenda beltzetan sartu zuten berehala.

*Gerra hotzaren* hasieran Ipar Amerikako demokraziak jasan zuen barneko jazarpen horri buruzko dokumentu interesgarri bat dago. John Berryk filmatu zuen, *Hollywood Ten* izena du, eta hamabost minutu eskaseko iraupena du (eta, dokumentu horren ondorioz, zerrenda beltzetan sartu zuten egilea). Dokumentua hainbat web helbidetan dago eskuragarri, jatorrizko bertsioan, alegia, ingelesez; eta ondoko *blogean* espainierazko azpigituluak dituen bertsio bat ere badago: <<http://bajoelvolcan.blogspot.com/2007/04/los-diez-de-hollywood.html#c5483237108577380432>>.

Bestalde, honako film hauek oso baliagarriak dira gazteenak Estatu Batuetako garai ilun honetara hurbil daitezten. DVD euskarrian eskuratu daitezke.

	La tapadera	Caza de brujas	Punto de mira	Buenas noches y buena suerte
Jatorrizko izenburua	<i>The Front</i>	<i>Guilty by suspicion</i>	<i>One of the Hollywood ten</i>	<i>Good night and good luck</i>
Iraupena	94 minutu	109 minutu	105 minutu	90 minutu
Herraldea	Estatu Batuak	Estatu Batuak	Espainia/Erresuma Batua	Estatu Batuak
Urtea	1976	1991	2000	2005
Generoa	Komedia dramatikoa	Drama	Drama	Drama
Zuzendaria	Martin Ritt	Irwin Winkler	Karl Francis	George Clooney





ikusteko



aditzeko

## 'Persepolis'

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

Iraupena: 95 minutu.  
 Herrialdea: Frantzia.  
 Urtea: 2007.  
 Generoa: Animazioa. Drama.  
 Zuzendaria: Marjane Satrapi, Vincent Paronnaud.  
 Gidoia: Marjane Satrapi, Vincent Paronnaud  
 (komikia: Marjane Satrapi).  
 Muntatze-lana: Stéphane Roche.  
 Musika: Olivier Bernet.  
 Ekoizpena: 2.4.7 Films.



### ● ● ● LABURPENA

Orlyko aireportuan dagoela (Frantzia), Iranen igarotako haurtzaroa ekartzen du gogora Marjane. Orduan *sha-ren* diktadura zegoen Irango gobernuan, baina, diktadorea erori ondoren, hankaz gora jarri zen dena, eta iraultza islamikoa heldu zen. Familiaren ondoan Teheranen emandako bizitzan, Marjanek bere nortasuna garatuko du, eta bere gustuak finkatuko ditu. Horiek talka egingo dute Irango egoerarekin, Iran gerran sartuta baitago auzoko herrialdearekin, alegia, Irakekin, eta fundamentalismoa goraka baitoa etengabe. Gurasoek Vienako lizeo frantses batera bidaltzen dute, herrialdean dagoen izu-erregimenetik babestu eta haren kultura aberasteko. Marjanek Vienan aurkitzen duen gizarteak gutxi eskaintzen dio garapen pertsonalari begira, eta, beraz, herrialdera itzultzea erabakitzen du, baina demokraziarik ez dagoenez ezinezkoa zaio hor geratzea, eta berriz utzi beharko du atzean.

### ● ● ● ZER AZALTZEN DU FILMAK?

*Persepolis* filmak Marjane Satrapi irandarraren kontakizun autobiografikoa jasotzen du. Marjanek, erregimen fundamentalista islamikoan murgilduta egotean, herrialdetik ihes egin beharko du. Alde batetik, fil-

mak protagonistaren hazkunde fisikoa eta bilakaera pertsonala deskribatzen ditu, hamasei urte bete artekoa; bestetik, filma Irango arestiko historiari buruzko kontakizun bizi bat da, eta fundamentalismoak egin dako zapalkuntzaren salaketa zorrotza ere bai, eta Satrapiren bizipen bereziak hartzen ditu abiaburutzat.

Zintaren oinarrian, egile berak egindako marra soiletako eleberrirako grafiko bat dago, *underground* estilotik gertu dagoena. Marrazkia oso egokia da filmak duen tonu inpresionista jasotzeko. Grafismo horrek pertsiarren marrazki zaharrak ekartzen dizkigu gogora, eta, aldi berean, mundua pertsona gazte baten begietatik behatzean izaten den sentsazioa nabarmentzen du.

Satrapik uko egin zien filma Hollywooden egiteko izan zituen eskaintzei, eta Frantzian egitea hautatu zuen, hori baitzen bere bigarren etxea, eta, era horretan, askatasun gehiago lortu nahi baitzuen. Animazio gehiena zuri-beltzean eginda dago, ikuslearen identifikazioa lortu nahi duelako. Kolorea protagonistaren orainaldian baizik ez da azaltzen, keinu iradokitzaile bat eginez.

Filmaren oinarrian dagoen komikiak arrakasta nabarmena izan zuen, eta hainbat sari eskuratu zituen. Egilearen esanetan, filma «ez da politikoa, ez du neuririk saltzeko», baina, hala ere, ezin dugu ahaztu askatasunaren eta gizakiaren duintasunaren alde duen mezu argia. Hori areago nabarmentzen da DVD euskarriko edizio osoagoan, Giza Eskubideen Deklarazioa jasota duen kaier bat baitu.

## ● ● ● KONTAKIZUNAREN MEMORIA

- 00 min Kredituak.
- 01 min Marjane Parisko aireportuan azaltzen da.
- 02 min *Flashback*: Marjane eta bere familia agertzen da, Marjane haurra dela, Paristik Teherango aireportura iritsi berria den senide bati harrera egiten.
- 03 min Familiaren jaia.
- 04 min Marjanek aditzera ematen dizkio amonari etorkizunean profeta denean finkatuko dituen legeak.
- 04 min *Sha-ren* aurkako kaleko manifestazioa.
- 05 min Satrapi jaunak Marjaneri azaltzen dio nola eskuratu zuen boterea Reza Pahlevik.
- 07 min Marjanek jakiten du bere aitona noblea eta komunista zela, eta espetxean egon zela.
- 08 min Diktadorearen aurkako beste manifestazio baten bukaeran pertsona bat hiltzen da; bitartean, Marjanek, etxean dagoela, diktadorearen aurkako manifestazioa egiten du.
- 09 min *Sha* erorarazten dute.
- 10 min Marjaneren osaba bat espetxetik ateratzen da, eta bizipen horren berri ematen dio familiari.
- 11 min Marjanek eta bere lagunek eraso jo nahi dute haur baten aurka, zurrumurruen arabera haur horren aitak *sha-ren* zerbitzu sekretuarentzat egin baitzuen lan.
- 12 min Marjanek Jainkoarekin hitz egiten du gizon horretaz, eta, azkenean, barkamena eskatzen dio haurrari.
- 13 min Diktadorea erorarazi ondoren, euforia-aldia eta aldaketa-garaia hasten da herrialdean.
- 14 min Anouche osaba sartzen da Marjaneren bizitzan.
- 15 min Gaztetatik *sha-ren* aurka egindako borrokaren berri ematen dio Anouchek Marjaneri, eta familiaren memoria gorde dezan eskatzen dio.
- 18 min Iraultzaren trantsizioa, errepublika islamikoaren bozketa, eta Anoucheren atxiloketa.





- 19 min Marjanek bisita egiten dio espetxean dagoen Anouche osabari.
- 21 min Marjane Jainkoarekin haserretzen da.
- 21 min Irakek erasoia jotzen du Iranen aurka, eta gora egiten du barneko zapalkuntzak.
- 22 min Marjane institutura doan nerabe bihurri bat da.
- 23 min Elikagaien urritasuna sumatzen da.
- 24 min Satrapi andreak emakumeak gizartean jasaten duen mespretxua nozitzen du bere larruan.
- 25 min Satrapi familiaren auzoa bonbardatzen dute, eta familiak sotoan bilatzen du babesa. Herrialdea suntsituta dago.
- 26 min Marjanek punk mugimenduekin bat egiten du.
- 28 min Gerran hiltzen dena martiri bilakatzen da.
- 29 min Satrapi familiak auzoko baten semea konbentzitzen du, frontera joan ez dadin.
- 30 min Ezkutuko jaiak egiten dituzte, eta alkohola edaten dute horietan. Guardia gazteen talde batek atxilo hartzen du Satrapi familia, eta erraz uzten dute eros ditzaten.
- 32 min Taher osabari ebakuntza egin behar diote Ingalaterran, baina mugak itxita daude.
- 34 min Satrapi jaunak ahaleginak egiten ditu Taher osabarentzat pasaporte faltsu bat lortzeko, baina pasaporteak faltsutzen dituen gizonak Suediara emigratu behar du.
- 37 min Taher osabaren hileta egiten dute, eta gerra gogortu egiten da.
- 38 min Misil bat erortzen da Baba Levi familiaren etxean.
- 38 min Marjane bere irakaslearen aurka altxatzen da.
- 39 min Marjaneren gurasoek Vienara bidaltzea erabakitzen dute.
- 40 min Agurtzean, amonak gogora ekartzen dio Marjaneri oso garrantzitsua dela zintzotasuna.
- 41 min Marjaneren eta gurasoen arteko agur dramatikoak aireportuan.
- 41 min Oraina: Marjane erretzen ari da.
- 42 min *Flashback:* Vienan, mojek gidatzen duten ostatu batean egiten diote harrera Marjaneri.
- 44 min Lizeoan baztertuta dauden pertsonen adiskidea egiten da Marjane.
- 45 min Eguberria da, eta Marjane bakarrik sentitzen da Vienan.
- 46 min Ostatutik botatzen dute Marjane, eta batetik bestera ibiltzen da noraezean, azkenean erretiratuta dagoen filosofiako irakasle baten etxean kokatzen den arte.
- 48 min Marjane hutsik sentitzen da, emakume bihurtzen ari den bitartean.
- 50 min Marjaneren amona kontzientzia itxuraz agertzen da, eta jatorria gogorarazten dio Marjaneri, ez baitu nahi Marjane bere jatorriaz lotsatu dadin.
- 52 min Marjaneren maitasunezko desengainua, berak nahi gabe laguntza ematen baitio lagun bati homosexuala dela ohar dadin.
- 53 min Marjanek Markus ezagutzen du, eta maitasunezko istorio bat du harekin, mutila beste batekin nahasten den arte.
- 56 min Marjane kalean bizi da, eta endekatzeko prozesu batean murgiltzen da.
- 59 min Marjane ospitalean esnatzen da, eta gurasoei deitzen die telefonoz etxera itzuliko dela esateko.
- 1 h 00 min Marjane gurasoekin elkartzen da berriz.
- 1 h 01 min Oraina: Aireportuko kafetegi batean dagoela, Marjanek aditzera ematen du nola itzuli zen Teheranera.
- 1 h 01 min *Flashback:* Satrapi jaun-andreak aditzera ematen diote Marjaneri zer gertatu den Iranen bera Vienan bizi izan den bitartean.
- 1 h 03 min Amonarekin eta Teherango lagunekin elkartzen da berriz.
- 1 h 06 min Psikiatra baten kontsultara joaten da, eta depresio nerbiosoa duela diagnostikatzen diote.

- 1 h 08 min Marjane bere burua hiltzen ahalegintzen da, eta Jainkoarekin eta Marxekin elkartzen da berriz.
- 1 h 09 min Marjanek depresioa gaintitzen du, eta unibertsitatera joaten eta aerobica egiten hasten da.
- 1 h 12 min Marjane berriz maitemintzen da jai batean.
- 1 h 14 min Amonak errieta egiten dio Marjaneri, gizon bat atxilo har dezaten utzi baitu, gizon horrek begiratu baizik egin ez badio ere.
- 1 h 16 min Marjanek berdintasuna eskatzen du batzorde baten aurrean. Batzorde horrek nahi du neskek beren burua areago estal dezaten unibertsitatean.
- 1 h 17 min Marjanek eta bere senargaiak etorkizunari buruz hitz egiten dute, eskutik helduta, eta, hori dela-eta, Marjane atxilo hartzen dute.
- 1 h 19 min Marjanek eta senargaiak ezkontzea erabakitzen dute, egoera jasangaitz horretatik ateratzeko.
- 1 h 20 min Ezkontza eutsiezina denez, amonak dibortziaztea gomendatzen dio Marjaneri.
- 1 h 23 min Guardia batzuk ohartzen dira ezkutuko jai bat egiten ari dela, eta mutilen atzetik joaten dira jazarpenean teilatuetatik; Marjane jaiari zegoen. Mutiletako bat hiltzen da. Marjanek senarra uzten du.
- 1 h 25 min Marjanek Frantziara joatea erabakitzen du, baina abiatu aurretik Kaspiar itsasora joaten da amonarekin.
- 1 h 26 min Marjanek agur esaten dio familiari Frantziara joan aurretik.
- 1 h 28 min Oraina: Marjanek taxi bat hartzen du, eta aireportutik irteten da.

## ● ● ● AZTERKETA

*Persepolis* animazioko film bat da, eta kontakizun autobiografiko batean oinarrituta dago. Protagonistaren haurtzarotik helduarora bitarteko igarobidean eraikitako film honetan, ehunka pertsonaia gurutzatzen dira, erreallitatearen sentazioago areago hauteman ahal izan dadin. Bestalde, molde pertsiarrean ohikoak diren pertsonaia-txotxongiloak dituzten zatiek kontakizuna azkartzen dute eta denbora-tarte luzeak laburtzen dituzte. Historiak, tradizioz haurrei zuzenduta egon den eta kontakizun arin baten itxura duen animazioaren formatuan bilduta egon arren, ez du filmak irauten bitartean alde batera uzten hainbat gairi buruzko kritika-tonua.

Film honetan demokrazia aztertzen da bere absentziaren bidez eta bera lortzeko irrikaren bidez. Protagonista gizarte eta politikako aldaketa baten lekukoa da. Aldaketa horrek amaiera ematen dio *sha-ren* diktadurak berrogeita hamar urtetan baino gehiagotan Iranen ezarritako diktadurari, eta bidea zabaltzen dio



Persepolis Marjane Satrapi eta Vincent Paronnaud (2007)



lortu nahi zen askatasuna ekarriko ez duen errepublika islamiko bati. Satrapik Irango erregimen integristaren tolerantzia eza eta zapalkuntza kritikatzeko ditu filmean, zuzenean jasan baititu. Nahastuta geratzen da erkidego pertsiarren aurrean, eta nahasmendu hori ordaintzen du (eta filmean argitu ere egiten du), bizitzeko duen molde askea dela-eta ez baita hor ondo egokitzen, baina Austriako gizartean ere ez da egokitzen, eta deserrotuta sentitzen da.

Film osoan nagusitzen den zuri-beltza, funtsean, artistikoa da, eta egilearen sortaldeko marrazkiaren estiloari dagokio. Hor, Frans Masereel artista belgikarraren eragina sumatu dute batzuek. Alemaniako margolaritza espressionistaren mundua ekartzen digu gogora, eta horrek gizakiaren barneko larriminak islatzeko zuen interesa; antsietate metafisikoaren eta bizitzaren ikuskerara oinazetua dago tartean, eta adierazpide honen bidez terapia katartikoa aurkitzen du. Joera horretako koadroetan bezala, enkoadratze zehiarrak agertzen dira, itzalekin egindako jokoak daude, eta marrazkiek adierazkortasun eta mugimendu handia dute. Hori gutxi balitz, 38. minutuan, omenaldi zuzena egiten dio Munchen-*Garrasia* lanari (*Skrik*).

Filma aztertzerakoan, deigarri egiten zaigun lehenengo kontua espazioaren eta denboraren egitura bikotza da. Espazioaren planoak Teheran/Viena (Ekialdea/Mendebaldea) dikotomiaren bidez adierazita dago, bi gune horietan garatzen baita Marjaneren istorio nagusia (Parisko egonaldia aireportuko ez-lekuan igarotako aldira mugatzen da).

Dikotomia horren menpe, etxearen barrualde/kanpoaldearen arteko aurkakotasunak desberdintasun argia adierazten du: batetik, Satrapi familiak duen askatasuna dugu eta, bestetik, Iran fundamentalistako bizitza publikoa, mugatzailea, emakumeek beloa jartzeko duten betebeharrak sinbolizatzen duena. Ildo horretan, esanguratsua da Marjaneren amak eta amonak —eta Marjanek berak ere bai— jantzi hori jartzeko etengabe adierazten duten desadostasuna eta arbuioa. Era horretan, matxinatu egiten dira arlo pribatuan (eta, ahal duten gutxitan, arlo publikoan) egokitu zaien erregimenaren aurka.

Aldi batez, oraina/iraganaren arteko aurkakotasuna da filmaren ardatza, eta, horretarako, zuria eta beltza erabiltzen ditu gehienbat. Filmaren abiaburua Orlyko aireportuko orainaldia da, eta, hor, kolorezko irudia baliatzen du. Gero *flashback* batean murgiltzen da, kolorea alde batera utzita, eta 1979. urteraino egiten du atzera. Orduan, Marjanek hamar urte zituen, eta Teheranen bizi zen gurasoekin. Hortik aurrera, iragana nagusitzen da, zuri-beltzean irudikatuta, harik eta Marjanek herrialdea utzik eta Vienara joaten den arte. Une horretan, berriz jotzen du, aldi batez, barreiatze kromatikora.

Handik segundo gutxi batzuetara, zuri-beltza nagusitzen da berriz kontakizunean, Marjanek Vienan zuen bizitza azaltzeko, gurasoek Vienara bidali baitzuten Marjane babestu nahian, eta, horrez gain, Marjanek Austrian bizi izan zituen gabeziak eta gorabehera ugariak ikusten ditugu.

Marjanek hegazkina hartu eta Teheranera itzultzea erabakitzen duen unean, kolorea agertzen da berriz, eta orainaldira itzultzen da filma, oso denbora labur baterako. Teheranerako itzulera eta Marjanek erregimen fundamentalistan duen egonaldi berria zuri-beltzean kontaktzen digu berriz, protagonistak Frantziara alde egitea erabakitzen duen arte. Hor, historia bukatzen da, kolorez margotuta eta Parisen kokatuta dagoen Marjane agertzen baitzaigu.

Hala, bada, zazpi zati bereizi ahal ditugu filmean, hiru iraganaldian eta lau orainaldian. Iraganaren eta orainaren arteko loturak bat datoz Marjanek Iranetik eta Iranera egiten dituen bidaiekin.

Oraina	Iragana
Marjane Parisko aireportuan azaltzen da, pertsona heldua dela.	Marjaneren haurtzaroa, 1984. urtera artekoa, eta Vienako erbesteratzea.
Marjanek Vienara nola heldu zen kontatzen du.	Marjaneren nerabezaroa Austrian, 1984. eta 1989. urteen artean.
Marjanek Teheranera nola itzuli zen kontatzen du.	Marjane Iranera itzultzen da.
Marjanek taxi bat hartzen du, eta aireportutik alde egiten du.	

Amonaren pertsonaiak garrantzi handia du kontakizunean. Marjaneren euskarri nagusia da, bere lagun mina; berariaz agurtzen du Teherandik alde egiten duen aldiro. Ageriko garrantzi hori areago azpimarratzen da kontakizunaren amaieran, hor berriz agertzen baita amona, bularretakoaren barruan gordeta dituen jasminak hegan egiten uzteko. Gainera, haren begitartea da filmaren espiritua laburbiltzen duen esaldia ahoskatzean agertzen den azkena: «Askatasunak beti du prezioa». Amonaren pertsonaiak protagonistaren kontzientzia pizteko zeregina betetzen du: haren ahotsa entzuten du Marjanek Vienan galdurik sentitzen denean, amonak bizitzan dituen oinarriak jasotzen ditu, errieta egiten dio ekintza arbuigarriak egiten dituenen, eta dibortziatea ere gomendatzen dio.

Alderdi politikoan, Satrapik Anouche osabaren bilakaera erabiltzen du bere sineste sendoak adierazteko. Zuzendariak uko egiten die hala teokrazia islamistari, nola mendebaldeko nihilismoari, baina bere jatorri eusten die, eta noranahi doalarik ere horiek babestea erabakitzen du. Filmean barrena, galdera eta erantzun bat errepikatzen dira behin eta berriro, eta argi adierazten dute bere herriarekiko dituen lotura eta maitasun hori. Taxilariak «nondik zatoz?» galdetzen dionean, protagonistak, nonahi dagoelarik ere, «Irandik» erantzungo dio beti.

Umorea oinarrizkoa da kontakizunean. *Persepolis* filmean, umore lodia nagusitzen da, zehazki, Marjaneren ezpainenatetik gainezka egiten duten irain larriak, kultura arteko beste talka baten isla direnak, kasu honetan belaunaldien arteko talkaren isla. Parodia eta karikatura egiteko joerak ere kontrapisu-lana egiten du, gerraren izugarrikeria orekatzeko. Gazte-garaiko irmotasuna, burla, herabetasunik eza, umorea eta sentikortasuna nahasten dira, eta askatasuna aldarrikatzen da, norberaren ideiak edukitzeak eta erakusteak dakarren oinazea gorabehera.



behatzeko

## ● ● ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: ZENTSURA ETA ARTEA

Lehen adierazi dugunez, *Persepolis* filmak keinu ugari egiten dizkio arteari. Sekuentzietako batean, iraultza islamikoa nagusitu ondoren, irakasle batek Boticelliren Venusaren irudi bat erakusten die ikasle gazteei, eta



Persepolis Marjane Satrapi  
eta Vincent Paronnaud (2007)

Venusaren gorputzaren zati handi bat zentsuratuta agertzen da. Pasarte hori aukera egokia izan daiteke erregimen diktatorialek adierazpide artistikoa zentsuratzeko duten joera aztertzeko.

Eztabaida egin bitartean, zinemagintzaren mundutik aterata (hain emankorra izan dena zentsuraren adierazpideei dagokienez), lan egiteko bi aukera interesgarri ditugu. Zentsuraren lehenbiziko adibidea oso urrutiratuta dago, hala denbora nola espazio aldetik: erregimen sobietikoaren babesaren izan ziren kasuak dira, batez ere Stalinen garaikoak, eta zentsuratik harantz zihoan xedea zuten: historia bera manipulatu nahi zuten.

Oso ezaguna da 1920ko maiatzaren 5ean Moskuko Sverdlov plazan izan zen hitzaldiko irudiak trukatzeko saioa. Jatorrizko irudietan, Vladimir Ilich Ulianovek (Leninek) han bilduta dauden pertsoneri hitz egiten die tribunatik, eta Lev Davidovich Bronstein (Trotski) eta Lev Borisovich Rosenfeld (Kamenev) agertzen dira ondoan. Bigarren irudian, berriz, azken bi buruzagi horiek ezabatuta daude, eta haien tokian oholtzako harmailak ikusten dira.

Hurbilagoa den eta artearekin zuzen-zuzen lotuta dagoen zentsuraren adibide bat aipatzeagatik —lehen iruzkindutako *Persepolis* filmeko sekuentzia ekartzen baitugu gogora—, horra hor Juan Crisóstomo de



Arriaga musikariaren omenez Bilbon dauden eskulturak. Obra horien kasua paradigmaticoa da. Francisco Durriok egin zuen Melpomenen eskultura irabazle atera zen 1905. urtean izan zen lehiaketan. Lan horrek haustura ekarri zuen garai hartan ohikoa zen urritasun impresionistarekiko, omenaldi eskultorikoaren sinbologia baita, baina ez baita omendutakoaren irudirik agertzen. Obraren berrikuntzaren eta irudiaren biluztasunaren ondorioz, ia hogeita hamar urte eman zuen jarri gabe.

Hori gutxi balitz, ekialdeko sinbolismo sakona duen obra hori jendaurretik kendu zuten 1948. urtean (Francoren erregimeneko zentsura zorrotzak objektu artistikoak ere barne hartzen baitzituen), eta Arte Ederren Museoko sotoan ezkutatu zuten. Haren tokian, Enrique Barros eskultoreak egindako kareharrizko kopia txikiago bat jarri zuten, baina ondo jantzita, diktaduraren kanon moralera behar bezala egokituta, harik eta 1975. urtean Durrioren jatorrizko lanak zegokion tokia aldarrikatu ahal izan zuen arte.

Bestalde, mindulinagoa den azken bertsio hau bertan behera utzi zuten biltegi batean hogeita zazpi urtez, azkenez hiriko beste toki batean kokatu zuten arte.



Ricardo Arana



ikusteko



aditzeko

## ‘Animal Farm’

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

Iraupena: 72 minutu.

Herraldea: Erresuma Batua.

Urtea: 1954.

Generoa: Animazioa.

Zuzendaria: Joy Batchelor, John Halas.

Gidoia: Joy Batchelor, Joseph Bryan III, John Halas, Borden Mace, Philip Stapp, Lothar Wolff (George Orwellen izen bereko eleberrian oinarrituta).

Musika: Matyas Seiber.

Ekoizpena: Halas and Batchelor Cartoon Films.

### ● ● ● LABURPENA

Baserritarrak egiten zizkien tratu txarrez nazkatuta, etxalde bateko abere guztiek bat egiten dute, eta iraultza bortitzari ekiten diote, gizaki guztiak bazter uzteko eta berdintasuna ezartzeko, abereen etxaldea «abiaraziz». Gizakiek ahaleginak egiten dituzte kontrola berriz hartzeko, baina abereek atzera botatzen dituzte. Abereen artean hasieran zegoen gogo bizia berehala bihurtzen da desengainu, txerriek —Napoleon buru dutela— egoeraren kontrol erabatekoa hartzen baitute beren gain. Etxaldeak gero eta gehiago egiten du aurrera, baina aurrerapena gero eta era gorabeheratsuagoan banatzen da. Hortik aurrera «presidente jakintsua» «buruzagi gorena» izango da; eta bere taldeak, txakur hiltzaileek osatutako gudarosteari esker, jabe zaharraren nagusikeria berbera erakutsiko du. Txerrien ohiturek eta jabe zahar eta despotikoek zituzten ohiturek gero eta elkarren antz gehiago dute. Alabaina, gainerako abereek beste iraultza bat prestatzeari ekiten diote, eta, azkenean, nagusituko da.

### ● ● ● ZER AZALTZEN DU FILMAK?

George Orwell (Eric Arthur Blair, 1903-1950) idazle britainiarraren *Animal Farm* (Abereen etxaldea) eleberrian oinarritutako animazioko lehenengo filmak literatura-egileak sistema komunistaren aurrean zuen ikus-

pegi kritikoa islatzen du. Orwellek tsarismoaren erorialdiaren, iraultza errusiarraren eta haren bilakaeraren satira egiten du.

Ageriko irakaspena duen alegia gisa sortuta dago filma, eta botereak sorrarazten duen eta mota guztietako boteretara zabal daitekeen ustelkeria aztertzen du. Secker & Warburg-ek eman zuen argitara 1945. urtean, eta urte horrexetan aliatuek Alemania nazia menderatu zuten. Jatorrizko obrak arrakasta handia izan zuen. Egilearen heriotza goiztiarra heldu aurretik, 16 hizkuntzetara itzulita zegoen, eta, hala ere, oztopo asko gainditu behar izan zituen argitara emateko, ez baitzen komenigarritzat jotzen halako une labainean Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunari kritika egitea, alegia, Munduko Bigarren Gerraren garaian, Britainia Handiak eta beste potentzia batzuek itun bat egina baitzuten nazismoaren eta faxismoaren aurkako borrokan. Hori dela-eta, hainbat argitaratzaileek atzera bota zuten eskuizkribua. Orwellek berak salatu zuen: «Jakintzu britainiar gehienek nazionalista kutsuko leialtasun-mota bat sustatu zuten Sobiet Batasunarekiko, eta, harekiko sentitzen zuten debozioak bultzatuta, biraotzat hartzen zuten Stalinen jakinduriaren inguruan zalantza pizten jardutea».



Animal Farm  
Joy Batchelor eta John Halas (1954)

*Animal Farm* eleberraren lehenengo zinemagintzako bertsioa garai hartako egoera politikoarekin konpromisoa zuen zinemaren adibide egokia da (bada beste bertsio bat, 1999. urtekoa, benetako irudiak erabili eta efektu berezi garrantzitsuak zituena), eta aurrera hartzen dio komunismoaren erorialdiari, hainbat urtez egin ere.

Oro har, filmak fideltasunez jarraitzen dio liburuaren jatorrizko kontakizunari, baina Orwellek jarri zuen bukaera aldatzen du. Literaturako testuaren amaieran jai bat dago, eta bertan txerriek eta baserritarrek bakea egiten dute, eta, itxuraz, gainerako abereak zapaltzen jarraitzea ituntzen dute. Aitzitik, filmeko testuaren bukaeran iraultza pizten da agintari berrien aurka.

Filma garai hartako haurrei zuzenduta zegoen. John Halas eta Joy Batchelor zuzendariak arrazoitu zuten, iraultza berri horrek Orwellen testua leundu zuen, «askatasunari kantu bat» egin nahi baitzioten; baina, bestalde, inoiz aditzera eman denez, Estatu Batuetako gobernuak iradoki omen zuen aldaketa, *gerra hotzean* murgilduta zegoela. Hala ere, filmak ezin du gaintetik kendu literaturako testuaren egileak bere bizi-tzan barrera sentitu zuen ezkortasuna, 1984 izeneko zientzia-fikzioko utopian ere agertzen den ezkortasun berbera.





Zuzendariek lan eskerga egin zuten alegoriazko fabula zinemagintzako mintzaerara egokitzeko. Egokitzapen honek ezohiko laztasuna du, garai hartan «Disneyren gozotasuna» baitzen jaun eta jabe animazioko merkatu ia osoan. Zakar eta mugatuak diren eta, teknika aldetik, soiltasun ikaragarria duten marren atzean, diskurtso ideologiko indartsua azaltzen da, talde oso baten gizarte eta politikako antolakuntza hizpide duena.

Boterearen izaerak —batez ere botere iraultzailearen izaerak—, edota boterea lortzeko eta gero erabiltzeko tekniken arteko digresioak leku egokia dute film honetan, filma era berean zuzenduta baitago ikuslearen adimenera eta emozioetara.

## ○ ○ ● KONTAKIZUNAREN MEMORIA

- 01 min Hasierako kredituak, eta abeletxea eta Jones jaunaren aurkezpena.
- 04 min Abereen batzarra, Old Major-ek deitutakoa.
- 06 min Old Major-en hitzaldia, iraultza egiteko aldarria dena.
- 09 min Old Major hiltzen da.
- 13 min Abereek aurre egiten diote Jonesi, etxaldetik bota nahian.
- 16 min Abereek etxaldea defendatzen dute, Jones hura berreskuratu nahian itzultzen denean.
- 18 min Abereek Jonesekin zerikusia duen guztia suntsitzen dute, baina Napoleon Jones-en etxean kokatzen da.
- 21 min Legeek idazten dituzte.
- 22 min Abereek beren burua antolatzen dute etxaldea beren kabuz aurrera ateratzeko, eta beren ospea ezagutzera ematea erabakitzen dute, era horretan, kamarada gehiagok bat egin dezan abereen iraultzarekin.
- 29 min Snowball-ek erkidegoan hezkuntza sartzeko ahaleginak egiten ditu.
- 32 min Snowball-ek proposatzen du haize-errota bat egitea, hobekuntzak lortzeko, eta Napoleonek kontrakoa esaten dio sistematikoki.
- 34 min Napoleonek trebatutako txakur batzuek Snowball hiltzen dute, eta Napoleonek etxaldeko agintea hartzen du.
- 36 min Haize-errota eraikitzen hasten dira.
- 38 min Abereak ohartzen dira txerriek luxuzko bizitza dutela, eta arauak aldatu dituztela.
- 40 min Whimper salerosleak negoziazioak egiten ditu abereekin.
- 41 min Whymperek oiloei eskatzen die arrautzak sakrifikatu ditzaten, salerosketa egiten jarraitu ahal izateko, eta oiloek aurre egiten diote.
- 45 min Napoleonek traizioa egitea leporatzen die hainbat abereri, eta hiltzeko agintzen du.
- 47 min Abereen etxaldearen eta kanpoko munduaren arteko salerosketa biziagotu egiten da.
- 48 min Gizakiek erasoia jotzen dute abereen etxaldearen aurka, eta Napoleonek etxaldea babesteko agintzen du.
- 51 min Bataila pizten da abereen etxaldean, eta haize-errota suntsitzen dute. Abereek berriz erai ki beharko dute gero.
- 55 min Txerrien belaunaldi berria agertzen da.
- 56 min Boxer-ek istripua du, eta hiltegiara eramaten dute.
- 64 min Abereek, amorratuta, zelata egiten diete txerriei, eta haien asmoen berri hartzen dute.
- 66 min Abereek txerriak garaitzen dituzte, eta boterea eskuratzen dute.

## ● ● ● AZTERKETA

*Animal Farm* filmak giza duintasuna zedarritzen duten oinarritzko eskubide unibertsalak aldezen ditu, hala nola, askatasuna, berdintasuna eta justizia. Alegatu argia da, eta aurre egiten die nagusikeriari, ustelkeriari, prozesu iraultzaileen manipulazioari, gutxi batzuen onurarako diren interes zekenen arabera ezarritako legeak moldatzeari, edota itxuraz noblea ematen duen arrazoi baten alde engainatuta lan egiten dutenen zapalkuntzari. Arbuiatu egiten ditu boterean irauteko, propaganda eta gezurra erabiliz, ahulenak zapaltzen dituzten gobernu-sistemak.

Filmean bi maila azter daitezke: bata era esplizituan dago bere garaian kokatuta; besteak, berriz, erregimen sobietarraren kasu berezia eta atze oihal politiko antiestalinista gainditzen du, eta, hala, SESBen historia ezagutzen ez duenak ere uler dezake mezua.



Animal Farm  
Joy Batchelor eta John Halas (1954)

Alegia soila da itxuraz: Berrogeiko hamarkadaren inguruan, Ingalaterrako landa zabalean dagoen etxalde bateko abereak matxinatu egiten dira jabearen aurka —Jones jaun krudelaren aurka—, bizi diren etxaldearen ardura hartzen dute, eta aurre egiten diete administrazioko arazoei eta auzoan dituzten gizakiekin dituzten harremanen ondoriozko arazoei. Ereserki bat sortzen dute, elkarrekin bizitzeko arauak ezartzen dituzte, eta beren burua babesteko sistema finkatzen dute.

Hala ere, kontakizunean sinbologia da nagusi. Pertsonaiek ezinbestez dute esleituta beren korrelatu historikoa, alegia, Errusiako Iraultzan parte hartu zuen pertsona edo gizarte-maila jakin bat. Bestalde, etxaldea Sobiet Batasunaren isla izango litzateke. Bilbeak, berez, gauzez du hasiera, eta gauzez amaitzen da; eta, hala, zikloaren kutsu ezkorra azpimarratzen da.

Old Major-ek, txerririk agurgarrienak, Marx irudikatzen du; hil aurretik abere guztiei azaltzen die beren ikuspegi iraultzailea. Jones jauna Errusiako Nikolas II. erregearen imitazio barregarri bat da. Abereen taldeak kargutik kenduko du. Bi txerri jartzen dira iraultzaren buruan, Snowball eta Napoleon. Jones baserritarra bertatik egozten dute, eta harresi batean idazten dituzte Abereen Etxalde berriko aginduak (lehen Manor Etxaldea baitzen). Snowball-ek eta Napoleon-ek Trotski eta Stalin irudikatzen dituzte, hurrenez hurren.<sup>1</sup>



Hasieran, etxaldean, denen adostasunez hartzen dira erabakiak, baina, gero, Napoleon eta Snowball izeneko txerriek elkarren aurka dauden alderdiak sortzen dituzte. Biek ala biek proposatzen dituzten gobernu-ereduek hainbat puntu dituzte batera (Old Major-en ideietan oinarrituta daude), baina, hasieratik, argi azaltzen dira desberdintasunak.

Lehenengo batzarrean, bi pertsonaiak beren burua ezagutzera ematen dute, lehen lerroan kokatuta. Era horretan, argi geratzen da zein izango den kontakizunean barrena nagusituko den jarrera; hala ere, Napoleonek jarrera hori aurrera ateratzeko duen moldea «bere kidearena bezain erabakia da, baina ez da hain adeitsua». Biak dira buruzagiak, baina Snowball ez da Napoleon bezain krudela. Napoleon, mailaz maila, etxaldeko buruzagitzaz jabetuko da, eta, azkenean, Snowball-ez libratuko da.

Napoleonek, etxaldea gobernatzeko dituen neurriak ezarriz (Snowball-en pentsamendutik jaso eta bereganatutakoak), goraldia ekarriko du, baina gutxiengo batek baizik ez du horren onura lortuko, Napoleonek bere eta bere espeziekoen egoera baizik ez baitu hobera egingo.

Beste paralelotasun historiko bat eginez, Snowball etxaldetik erbesteratuko dute. Napoleonek boterea eskuratu ondoren, arriskutsuztat jotzen diren abere guztiak hil ahal izango dituzte, Snowball-en jarraitzailea izateko salaketapean.

Txerriak dira buru den taldea, eta, hortaz, buruzagiek etxaldeko zereginak zuzentzen dituzte. Ildo horretan, filmaren bukaeran oso nabarmena da txerrien bozkarioa, eskuratutako botere horri esker loditutako txerrien poza, partekatzen duten oturuntz oparo batean ikusten denez.

Boxer zaldia langileriaren artekoa da; Benjamin astoarekin batera, maila horrek bete-betean borrokatuko du buruzagien arrazoen alde. Behiak eta oilategiko hegaztiak ere ekoizle garrantzitsuak dira. Sakrifizio gehiago egitea eskatzen dietenean, hegaztiek matxinada abiaraziko dute, baina berehala menderatuko dituzte.

Ardiak eskolagabeak eta akritikoak dira erregimenarekiko, eta nekazariak irudikatzen dituzte, hau da, erabakitzeko eskumenik ez duen herria, ahotsa eta botoa eduki arren, irainak, gezurrak eta amarruak jasoz kexarik gabe men egiten dutenak. Txakurrek aparatu zapaltzailea irudikatzen dute; hala bada, armada, isileko polizia eta haien basakeriaren isla dira: protesta egiteko eta subertsiorako ahalegin guztiak isilarazten dituzte, eta, beharrezkoa bada, errugabeak ere hiltzen dituzte. Azkenik, uso mezulariak komunikabide eta kanpoko propaganda sobietarraren isla dira.

Filmak gogortasun handiz erakusten du abereen eta gizakien arteko harremana (eremutik kanpoko planoek ez diete gordintasunik kentzen exekuzio sumarioei), abereei, batez ere txerriei, nortasun berezia ematen die, eta gizakiak —hau da, zapaltzaileak— dauden adimen-maila berean jartzen ditu. Izan ere, filmean txe-

---

1. Joaquín Labarthe George Orwelli buruz egindako lan interesgarria liburu honen barruan dago: *Cómo leer la novela*. Liburua 1996. urtean eman zuen argitara Mexikoko Unibertsitate Iberoamerikarrak (Cuadernos del Centro de Integración Universitaria, 5). Bertan, pertsonaien eta egoeren traslazioen zerrrenda zehatz bat aurkituko dugu. Google Books-en dago ikusgai, kontsultatzeko moduan.

riak dira nabarmenago ahoskatzen duen espeziea; gainerako abereek, berriz, ia ez dute hitz egiten. Pixkana-pixkanaka, txerriek haien akats guztiak barneratuko dituzte.

Eraldatze-prozesu horrek bete-betean joko ditu hasieran harresiaren gainean idatzi zituzten zazpi aginduak; horietatik, batek baizik ez du iraungo, baina behar bezala aldarazita: «Abere guztiak berdina dira, baina abere batzuk beste batzuk baino berdina dira». Aldaketa adierazten duten pintura-tantek, tanta gorriek edo zuriek (zeren gainean «berridazten» den, odolaren edo izerdiaren gainean) iraultzak egindako manipulazioa irudikatzen dute.

*Animal Farm* kontakizunean, Napoleonek historian barrena diktadoreek izan dituzten ezaugarri guztiak biltzen ditu bere baitan: haien megalomaniak, haien bilaukeria genozidak, menperatzeko zituzten tresnak, eta haien krudeltasunak zenbateraino sor ditzakeen laidoa, umilazioa eta oinazea menperatutakoengan. Bortizki desagertzeko duen modua eremuz kanpoko beste plano itxuraz apal batean adieraziko da, eta ikusmen-metafora baten bidez nabarmenduko da (koadro batean zintzilikatuta dagoen bere irudia haustean).

Eraso hori ikusita suma daiteke arraza berezi batek etxaldea gobernatzen duen bitartean zikloa errepikatu ko dela, eta, bide batez, Orwelkek liburuan adierazi zuen ideia bat nabarmenduko da: «Ortodoxia baten lekuan beste bat jartzeak ez du nahitaez aurrerapena ekartzen». Hain zuzen, filmak ideia hori azpimarratu nahi du —aldaketak ez dakarrela hobekuntza ezinbestez—, eta irudien bidez azaldu nahi du nola itxuraldatzen den prozesu iraultzaile bat diktadura bihurtu arte, nola salbatzaileak eta heroiak zirenak tirano bilakatzen diren, eta, bitartean, boterea nola metatzen den esku gutxi batzuetan abiada bizian.



jarduteko




iruzkintzeko

## ● ● ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: JOLASEAN

Hainbat aldiz egin da erregimen tiraniko baten simulazioa talde baten barruan talde barneko harremanak aztertzeko, eta horren emaitzak duda-mudazkoak eta kontraesankorrak izan dira. Izan ere, Dennis Ganselen *Die Welle* filma, Espainiako zinema-aretoan 2008. urtearen amaieran estreinatu zena, Kaliforniako Palo Alto dagoen Cubberley eskolan (Estatu Batuetan) 1967an izandako gertakarietan oinarritzen da. Ron Jones historiako irakasleak egin zuen esperimenduak abiarazi zituen gertakari horiek. Irakasle horrek, muturreko diziplina eta askatasunak murriztuta zituen erregimen baten simulazioa eginez, hobeto ulertarazi nahi zuen askatasuna hiltzen duen erregimen batek onespren-maila handia lortu ahal duela gizartean. Irakasleak halako moldez engaiatu ziren, non handik egun gutxira eraso eta jazarpenerako kasuak azaltzen hasi baitziren.

Urte horietan, antzeko beste azterketa batzuk egin zituzten, prozedura zientifikoaren mugan kokatuta, eta emaitzak zalantza-koak izan ziren (adibidez, Milgram eta Stanforden esperimenduak). Hargatik, desber-



Animal Farm  
Joy Batchelor eta John Halas (1954)

dintasunezko egoera baten simulazioa kontu handiz landu behar da, eta aurrez horren plangintza egin behar da.

Neurri horiek ez dituzte bazter utzi behar ikuspegi sozioafektibotik egiten diren jarduerak. Avon konderriko (Erresuma Batuko) Hezkuntza Sailak 1983ko azaroan egin zuen *Zinta horia* izeneko ariketan, bereizketa artifizialeko egoera bat azaltzen zen eskola-talde batean. Ariketa hori arrakasta handiz erabili dute ikas-tetxe askotan, bake eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren esparruan.

Kasu honetan, *Animal Farm* ikusi eta foroan eztabaida egin ondoren, gune bat eratu dezakegu, ahal dela atsedengune bat, txikienekin bertatik bertara esperimentatu ahal izateko boterea esku gutxi batzuetan metatzeak dakartzan ondorioak.

Horretarako, bereizgarri bat jarriko diogu pertsona bati edo biri, eta horrek aukera emango dio jolasteko zelaiak eta kirol-osagarriez berak bakarrik gozatu ahal izateko, eta, era berean, jolasak, arauak, parte-hartzaileak eta abar aukeratu ahal izateko. Beste bi laguni ere beste bereizgarri bat eman ahal diegu sari gisa, adibidez, zernahitarako elementu bat, nagusien baimena izan gabe edozein jolasetan parte hartzeko eskumena emango diena. Horrenbestez, taldeko gainerako kideek ezinbestez bete beharko dituzte buruzagiak edo buruzagiek beren apetaren arabera hartzen dituzten erabakiak.

Denboraldi batez hori saiatzen aritu ondoren —eta hainbat saio egin beharko dugu nahitaez—, taldean gertatu denari buruzko hausnarketa egingo dugu, eta prozedura berrikusiko dugu demokratikoagoa den sistema bat egituratu ahal izateko.

Jarduera hau aukera ona da sarritan ikastetxeetan ituntzen denaren eta benetan egiten denaren artean dagoen lubakia gainditzeko, hau da, legezko curriculumaren eta «abiarazitako» curriculumaren artean dagoen desberdintasuna gainditzeko, 2008ko irailean hil zen eta irakaslea eta bakerako hezkuntzako aditua zen Xesús R. Jaresek sarritan aztertu duen gisa.





ikusteko



aditzeko

## 'The Great Dictator'

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

Iraupena: 128 minutu.  
 Herrialdea: Estatu Batuak.  
 Urtea: 1940.  
 Generoa: Komedia.  
 Zuzendaria: Charles Chaplin.  
 Gidoia: Charles Chaplin.  
 Argazkia: Roland Totheroh eta Karl Struss.  
 Muntatze-lana: Willard Nico.  
 Musika: Charles Chaplin eta Meredith Wilson.  
 Ekoizpena: United Artists.  
 Aktoreen zerrenda: Charles Chaplin, Paulette

Goddard, Jack Oakie, Reginald Gardiner, Henry Daniell,  
 Carter De Haven, Grace Hayle, Maurice Moscovitch, Billy Gilbert.



### ● ● ● IRUZKINA

Charles Chaplinen maisu-lan hau ezagunenetakoa bat izango da, zuzendari britainiar handiak egin dituen lan guztien artean, eta, ziurrena, eztabaida demokratikoa aztertzeke ikasgeletan gehien erabili den horietako bat ere bai.

Gertakizuna oso ezaguna da. Lehen Mundu Gerran, Charles Chaplinek antzezten duen izengabeko borrokalari batek bizia salbatzen dio ofizial bati. Ofiziala onik ateratzen da, kalterik gabe; baina soldadua ospitale batean sartu behar dute, eta hogeitau urte eman behar ditu hor, inguruan izaten diren aldaketek ohartu gabe. Denboraldi horretan, Hynkel herrialdeko diktadorea izatera iristen da, eta errukirik gabe jazartzen ditu juduak (eta antz fisiko harrigarria du soldaduekin). Ospitaletik irtetean, amnesia jotzen dagoen soldadua bere auzoko bizartegi zaharrera itzultzen da. Hor, neska gazte umezurtz bat ezagutzen du, Hannah,

eta hartaz maitemintzen da. Hainbat gorabehera izan ondoren, diktadorea bere azken konkista ospatzen ari den bitartean, bizarginak eta ofizialak ihes egitea lortzen dute (zeukan uste ona galdu baitu ofizialak). Akatsez, bere tropako soldaduek berek atxilo hartzen dute Hynkel; gero, nahasmenez, bizargina diktadorea dela uste dute, eta, horren ondorioz, hitzaldi garrantzitsua egin beharko du.



## ● ● ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: HIZKUNTZAKO LANA

Hitzaldi hori mila aldiz errepikatu behar izan zen, zuzendaria gustura geratu zen arte. Antzerkiko «bazter solas» gisa sortuta dago hitzaldia, hartzaile zehatz bati zuzenduta dago esplizituki (diktadoreari entzuten ari diren ikusleei), baina inplizituki beste hartzaile batzuei dago zuzenduta (filma ikusten ari diren horiei), eta interes nabarmena du hizkuntza aldetik. Aberastasun handikoa da, literaturako figura ugari baitu, esate baterako, hauek: antitesiak («Zoriontasuna lortzeko bizi nahi dugu, ez besteen miseria izateko»); «Makineria baino gehiago gizateria behar dugu. Adimena baino gehiago adeitasuna eta jendetasuna behar ditugu») edo paradoxak («Abiadura azkartu dugu. Baina geure burua itxi dugu hor barruan»; «Oparotasuna ematen duen makineriak behartasunean utzi gaitu»).

Hizkuntzako forma horietako gehienak irudi patetikoaren azpimultzoak dira, hartzailearengan eragin afektiboa izan nahi dutenak. Ezin dugu ahaztu filmak demokrazia europarren aldeko esku-hartze militarra bultzatzen zuela. Hala, filmeko testua galdera erretorikoz, oihuz, hizlarien sentipen sakonen adierazpidez edo haren desiren agerraldi suharrez beterik dago: «Ez gorrotatu!».

Sarritan, Chaplinek beste hitz batez ordezkatzen du hitz egokia, eta metafora eta alegoria ugari dituen diskurtsoa egiten du: «Hegalak jarri dizkiote gizonaren arimari, eta, azkenean, hegaldatzen hasi da! Ortzadarrerantz egiten du hegan, itxaropenaren argirantz!»; «Zekenkeriak gizonen arimak pozoitu ditu, gorrotzko barrikadak altxatu ditu munduan, antzararen urratsean eraman gaitu behartasun gorrirantz eta sarraskirantz».

Hizkuntzako jarduera honetan, ikasleak argi sumatuko du diktadorearen lekua betetzen ari den iruzurrezko ordeztailaren hitzaldiak duen kutsu alegorikoa, zekenkeria pozoiz eta oztopo bilakatzen baita, eta, azkenik, harremanetan jartzen baita garai hartako gertakari politikoen garapenarekin, nazien urrats militarren analogia eginez.

Era berean, argi antzeman daiteke oro har izaera diegetikoa gailendu egiten dela izaera mimetikoaren gaitetik; hau da, hizlariak kontatzen du, bestelako planorik erakutsi gabe. Hala ere, eszena horretako azken sekuentzietan dagoen norabide-aldaketak Chaplinek erabilitako zinemagintzako mintzairaren berariazko





izaera berresten du, bizarginaren andregai den umezurtz juduari dei egiten dionean, eta, amaieran, eremutik kanpora egindako begirada baliatzen du, zuzendari britainiarrak aldarrikatzen duen «mundu berri» horretara egina.



The Great Dictator Charles Chaplin (1940)

#### 'The Great Dictator' filmeko azken hitzaldiaren transkripzioa

Sentitzen dut, baina ez dut enperadorea izan nahi. Ez naiz horretarako iaioa. Ez dut inoren gobernari izan nahi, ez dut inor menderatu nahi. Laguntza eman nahiko nioke mundu guztiari —ahal izango balitz—: juduei, paganoei, beltzei, zuriei. Guk denok laguntza eman nahi diogu elkarri. Gizakiak horrelakoak dira. Zoriontasuna lortzeko bizi nahi dugu, ez besteen miseria izateko. Ez dugu elkar gorrotatu nahi, ez eta elkar arbuiatu nahi ere. Mundu honetan guztiontzako adina toki dago. Eta lur ona emankorra da, eta denok hornitzeko balio du.

Bizitzaren bidea askea eta ederra izan daiteke; baina bidea galdu dugu. Zekenkeriak gizakien arimak pozoitu ditu, gorrotozko barrikadak altxatu ditu munduan, antzararen urratsean eraman gaitu behartasun gorrirantz eta sarraskirantz. Abiadura azkartu dugu. Baina geure burua itxi dugu hor barruan. Oparotasuna ematen duen makineriak behartasunean utzi gaitu. Gure zientziak ziniko bihurtu gaitu; gure adimenak, gogor eta bihozgabe. Gehiegi pentsatzen dugu, eta gutxiegi sentitu. Makineria baino gehiago gizateria behar dugu. Adimena baino gehiago adeitasuna eta jendetasuna behar ditugu. Ezaugarri horiek eduki gabe, bizitza bortitza izango da eta dena galduko da.

Abioiak eta irriak elkarrengandik hurbilago jarri gaituzte. Aurrerapen horien benetako izaerak oihu egiten du gizakia- ren ontasunaren alde, adeitasun unibertsalaren eta gu guztion arteko batasunaren alde. Orain ere, nire ahotsa mundu osoko milioika izakirengana heltzen ari da, milioika gizon, emakume eta haur etsitirengana, gizonak torturatzen dituen eta pertsona errugabeak espetxeratzen dituen sistema baten biktima baitira. Entzun ahal didaten horiei, zera esaten diet: «Ez etsi».

Gainera erori zaigun zoritxarra giza aurrerapenaren beldur diren zekenkeriaren eta gizakien samintasunaren urratsa baizik ez da. Gizonen gorrotoa igaroko da, diktadoreak hilko dira, eta herriari eskuetatik erauzitako boterea herriaren eskuetara itzuliko da. Eta gizonak hiltzen diren bitartean, askatasuna ez da sekula galduko.

Soldaduak! Ez zaitezte errenditu basapiztia horien aurrean, mespretxatzen baitzaituztete, esklabo egiten baitzaituztete, zuen bizitza gobernatzen baitute; esaiezue zer egin behar den, zer pentsatu behar den eta zer sentitu behar den! Soldaduzkoa egitera behartzen zaituztete, errazio erdia baizik ez dizuete ematen, azienda bazinete bezala hartzen zaituztete, eta kanoi-bazka bazinete bezala baliatzen. Ez zaitezte errenditu berezko izaera galduta duten gizon horien aurrean, adimena eduki arren makinaren bihotza duten makina-gizon horien aurrean. Zuek ez zarete makinak! Gizonak zarete! Gizateriaren maitasuna duzue zuen bihotzetan! Ez ezazue gorrotatu! Maitatuak ez diren horiek baizik ez dute gorrotatzen, maitatuak ez direnek eta berezko izaera galdu duten horiek!

Soldaduak! Ez ezazue borroka egin esklabotzaren alde! Borrokatu ezazue askatasunaren alde!

San Lukaren hamazazpigarren kapituluan idatzita dagoenez, Jainkoaren erreinua gizonaren baitan dago; ez gizon baten edo gizon-multzo baten baitan, baizik eta gizon guztien baitan! Zuengan! Zuek, herria zaretenez, boterea duzue, makinak sortzeko boterea. Zoriontasuna sortzeko boterea! Zuek, herria zaretenez, boterea duzue bizitza hau askea eta ederra izan dadin lortzeko, bizitza hau abentura zoragarria izan dadin lortzeko. Hortaz, demokraziaren izenean, erabil dezagun botere hori, batu gaitezen guztiok. Mundu berri baten alde egingo dugu borroka, mundu duin baten alde, gizonen lan egiteko aukera emango dien mundu baten alde, gazteriarri etorkizuna eta zaharrei segurtasuna emango dien munduaren alde.



The Great Dictator Charles Chaplin (1940)

Hori guztia lortuko genuela hitz emanda, basapiztiek boterea eskuratu dute. Baina, gezurretan ari dira! Ez dute agindutakoa bete. Ez dute beteko! Diktadoreek beren burua askatzen dute, baina esklabo bihurtzen dute herria. Orain, batu gaitezen mundua askatzeko, nazioen arteko hesiak botatzeko, zekenkeria, gorrotoa eta tolerantzia eza ezabatzen. Egin dezagun borroka arrazoiak gidatutako mundu baten alde, zientzia eta aurrerapenaren bidez guk denok zoriontsu izango garen munduaren alde. Soldaduak, batu gaitezen demokraziaren izenean!

Hannah, entzuten al didazu? Nonahi zaudelarik ere, altxa begiak! Begira ezazu, Hannah! Hodeiak desagertzen ari dira! Eguzkia azaltzen ari da haien artetik! Iluntasunetik ateratzen ari gara, eta argitan sartzen! Mundu berri batean sartzen ari gara, atseginagoa den mundu batean, eta, bertan, gizonak gailenduko dira beren zekenkeriaren, gorrotoaren eta basakeriaren aurrean Begira ezazu, Hannah! Hegalak jarri dizkiote gizonaren arimari, eta, azkenean, hegaldatzen hasi da! Ortzadarrerantz egiten du hegan, itxaropenaren argirantz! Altxa itzazu begiak, Hannah! Altxa itzazu begiak!



ikusteko



aditzeko

## ‘Judgment at Nuremberg’

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

Iraupena:	178 minutu.
Herraldea:	Estatu Batuak.
Urtea:	1961.
Generoa:	Drama.
Zuzendaria:	Stanley Kramer.
Gidoia:	Abby Mann.
Argazkia:	Ernest Laszlo.
Muntatze-lana:	Frederic Knudtson.
Musika:	Ernest Gold.
Ekoizpena:	Metro-Goldwyn-Mayer/United Artists.
Aktoreen zerrenda:	Spencer Tracy, Burt Lancaster, Richard Widmark, Maximilian Schell, Marlene Dietrich, Montgomery Clift, Judy Garland, Edward Binns, William Shatner.



### ● ● ● IRUZKINA

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, erregimen nazian izandako arduradunen aurkako prozesu juridikoak izan ziren, Nurenbergeko epaiketak deitutakoak. 1948. urtean, Estatu Batuetako epaile erretiratu bat arduratu zen prozesu horietako bat zuzentzeaz, zehazki, «epaileen epaiketa» izenez ezagutu zen horretaz, Hirugarren Reich-eko lege arrazistekin eta eugenesiako politikekin izan zuten gaizkidasuna dela-eta lau magistratuen aurka egin zenaz. Bistak egiten diren bitartean, erregimen naziaren aurkako etsaitasunezko giroak behera egin zuen, hasita zegoen *gerra hotzaren* eraginez.

Kennedyren garaian askatasunaren alde piztu zen mugimenduaren bultzadaz, Kramer-ek egindako film honek sakon aztertzen du nazien estatuko krimenen aurrean norbanakoek izan zuten elkar-aditzea, eta ez ditu ezkututzen mendebaldeko demokrazientzat aski zailak ziren auzi batzuk, hala nola, Estatu Batuetako Gorte Gorenak jardun eugenesikoei eman zien laguntza, besteak beste.



Judgment at Nuremberg  
Stanley Kramer (1961)

Zehazki, egiazko gertakizunetan oinarrituta dauden bi kasu aztertzen dira, hogeita hamarreko hamarkadaren hasierako lege arrazistak garatzen dituztelako eta baliagarriak direlako filmaren ardatz nagusia irudikatzen: alde batetik, Estatuko botereen bereizketa; bestetik, legeak eta zuzenbidea, herritarren askatasuna bermatzen duten tresna gisa eta askatasun eta eskubide guztiak ezabatzen dituen erabateko botere baten asmoak geldiarazteko galga gisa ulertuta.



pentsatzeko

## ● ● ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: KALKULUKO ARIKETAK

*Judgment at Nuremberg* (Nurenbergeko epaiketa) filmeko eszena nabarmenen artean, Rudolph Petersen izeneko okindegi alemaniarren lekukotasuna dugu (Montgomery Clift-ek antzeztutako pertsonaiarena), «buruz ez gaitzat» jo ondoren, esterilizatu baitzuten, legeria nazia ezarrita.

Hargatik, filma ikusi aurretik interesgarria izan daiteke ikusleek orri batean esaldi bat idatz dezaten, *erbia*, *ehiztaria* eta *soroa* hitzak erabiliz (naziek pertsonaiaren buru-garapena epaitzeko erabili zuten testa), eta balioetsi dezaten zer egin behar den pertsona heldu bat ez ariketa zuzen egiteko bada gai. Filmak erakutsiko du Hirugarren Reich-aren garaian aski zela ezintasun hori izatea giza duintasuna galtzeko.

Nahi izanez gero, *Amen* filmaren hasierako eszenak ere proiektatu ahal dira (Costa-Gavras, 2002), film horrek, lehenik eta behin, nazien erregimenak ezgaiekin erabili zituen eugenesia eta eutanasiako programak aztertzen baititu. Programa horiek Alemaniako gizartea baliatzen zuten, eta eskolako ikasleek etxetan egiten zituzten jardueretan ere agertzen ziren.

Costa-Gavrasen filmeko sekuentzia batean (12. minutuan), protagonistaren alabak problema hau argitu behar du: «Langileen familia batentzako etxe bat eraikitzeko 15.000 marko behar ditugula jakinda, eta psi-



kiatriko bat eraikitzeko 6 milioi marko behar direla kontuan izanik, zenbat etxe egin ahal izango genuke langileen familientzat psikiatriko batek duen prezioarekin?».

Zinemagintza-arlokoa ez den Hans-Jochen Gamm irakasle alemaniarraren lekukotasun batean, nazien garaiko eskolako beste ariketa hau agertzen da:

Gaixo mental bat zaintzeko 4 marko behar dira eguneko, gaixo bat zaintzeko 5,50 marko, eta kriminal bat zaintzeko, berriz, 3,5 marko.

1. Egin grafiko bat kopuru horiekin.
2. Zenbatespen zehurraren arabera, Alemanian 300.000 gaixo mental, epileptiko eta antzeko daude, eta etengabeko zainketak jasotzen dituzte. Kalkula ezazue zenbat balio duen urtean 300.000 gaixo mental eta epileptiko horiek zaintzeak. Ez itzultzekoak ez diren 1.000 markoko zenbat mailegu egin ahal izango litzateke senar-emazte gazteentzat, diru hori aurreztu ahal izanez gero?

Nazien garaiko Alemanian ohikoak ziren horrelako ariketak lantzea jarduera egokia izan daiteke erregimen totalitario batean irakaskuntzak dituen ezaugarriari eta asmoei buruz hausnarketa egiteko. Jarduera hori beste batzuekin osatu ahal da, hala nola, hauek: justizia-jauregietara joatea, entzunaldiren batera joatea, administrazioko zereginak eta eginkizun judizialak nola egiten diren ikustea, edota jauregiko gelak ere ezagutzea.





ikusteko



aditzeko

## 'Das Leben der Anderen'

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA


Iraupena:	137 minutu.
Herrialdea:	Alemania.
Urtea:	2006.
Generoa:	Drama.
Zuzendaria:	Florian Henckel-Donnersmarck.
Gidoia:	Florian Henckel-Donnersmarck.
Argazkia:	Hagen Bogdanski.
Muntatze-lana:	Patricia Rommel.
Musika:	Gabriel Yared eta Stéphane Moucha.
Ekoizpena:	Max Wiedemann eta Quirin Berg.
Aktoreen zerrenda:	Ulrich Mühe, Martina Gedeck, Sebastian Koch, Ulrich Tukur, Thomas Thieme, Hans-Uwe Bauer, Volkmar Kleinert, Matthias Brenner, Charly Hübner.

### ● ● ● IRUZKINA

Wiesler kapitaina (Ulrich Mühe), Alemaniako Errepublika Demokratikoko polizia politikoko eskumen handiko poliziakide eraginkorra da, eta ikertzen dituen lagunen bizitza pribatuko xehetasun guztiak kontrolatzen ditu. Harentzat, Christa-Maria Sieland aktore ospetsua (Martina Gedeck) eta George Dryeman dramaturgo ezaguna (Sebastian Koch) txosten bat baizik ez dira hasieran, nagusiei egunero eman beharreko txostena; baina, halako batean, begitartea duten eta suntsitu behar diren pertsona bilakatuko dira.

Stasik eta lankideen sareak (100.000 poliziakidek eta 200.000 salarik baino gehiagok) herrialdeko herritar guztien kontrol ia erabatekoa lortu zuten, legeria zapaltzaileak baimentzen zuen zigorgabetasunean oinarrituta. Sare hori ehunduz joan zen, estatu totalitarioak egiten zuen presiopean, eta herritarren artean gogo-kidetasuna lortuz, maiz mehatxuak jaso ondoren, herritarrek hautu hori egiten baitzuten, lana edo

lanbidea ez galtzeagatik (edota lortzeagatik). Ildo horretan, oso adierazgarria da ikertutako lagunaren auzoko emakume batek mehatxua nola jasotzen duen erakusten duen eszena, mehatxu egitean haren alabak Medikuntzako ikasketak galtzeko duen aukera ere aipatzen baitiote.



Hainbat sari irabazi zituen film honek alemaniar askok mende Erdiz bizi izan zuten historia pertsonala ekar-tzen digu gogora. Aktore protagonista nagusiak, orain dela gutxi hil den Ulrich Mühe, hezur eta mami nozitu zuen poliziaren jazarpena, eta bere lehenengo emazteak, Jenny Gröllmannek, erregimenarekin izan zuen lankidetzatza.

Sortzen den iluntasunak filmaren bilbea eta kontakizuna inguratzen ditu (filmaketako kolore-sorta bera murriztu egiten da, askatasunaren murrizketa areagotzeko), baina, hala ere, filmak ate bat uzten du zabalik, baikortasunera irekita. Guztiz desberdinak diren jatorrikoak izan arren, bi pertsonaiek, hala poliziak nola dramaturgoak, azkenean aurre egingo diote diktadurari, duintasun demokratikoko jarrera erakutsiz.



## ikasteko

### ● ● ● FILMA IKUSI ONDOKO JARDUERA: TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILTZEN

Gazteei kezka gehien pizten dien gaietako batek zerikusi handia du beren intimitatearen babesarekin. Hargatik, alderdi hori nabarmentzen duen *Das Leben der Anderen* (Besteen bizitza) filma ikusi ondoren, proposamena egin ahal diegu beren nortasuna babesteko arazoa aztertzeko, informatikako teknologien eta intimitaterako giza eskubidea lantzen duen legeriari jarraiki babesteko dauden tresnen gaiarekin lotuta.





Das Leben der Anderen  
Florian Henckel-Donnersmarck (2006)

Adibidez, zein urrats egin beharko litzateke Tuenti gizarte-sarean haien baimenik gabe lortutako haien irudi bat ikusiz gero, edota YouTube-n haien duintasunaren aurka doan bideo bat aurkituz gero?

Garrantzitsuena da gazteenak jakitun izatea, eta segurtasuneko tresna soil batzuen berri izatea, adibidez, Tuenti sareko «argazkia salatu» izeneko tresna, edota YouTube-ko *copyright* eta pribatutasuneko orriak, hau da, segurtasunari buruzko politika. Jarduera honen bidez, hobeto jakingo dute zein urrats egin behar den senide edo lagunengandik laguntza lortzeko, edota salaketa bat jartzeko, auzibideetatik edo polizia-rengana joz, zehazki, Delitu Telematikoen Brigadarengana edo polizia autonomikoen antzeko erakundee-tara joz, beren intimitatea babesteko eskubideak eraso dituztenean edota beren irudia babesteko.



# ‘Post-it’ bat foroan



pentsatzeko



jarduteko

Lehenbiziko zenbakian azaldu genuenez, Zuzen Zinemara izeneko bilduman egin ditugun proposamenen abiaburua ikuspegi estrategiko bat da, giza eskubideekiko errespetuari eta ikus-entzunezkoen arloko alfa-betatze kritikoari buruzko ikuspegi estrategikoa.

Bildumari hasiera eman zion alean nabarmentzen genuenez, jarduera-eredu hau hainbat urtez jarrita egon den arren, izaera berritzailea du. Taldeka ikusitako filma baten ikuspegia du, eta filmari buruzko eztabaida egiten da, bakardadez osatutako mundu batean, halaxe deitu izan baitzaio gaur egungo gizarteari.

Mota honetako jardueri normalean zineforum esaten zaie. Emozioak eta ideiak partekatzen dira (zinemak aukera ematen baitu egoera desberdinak era bikarioan bizitzeko, eta foroaren bidez hausnarketa egin ahal baitugu bizipen horiei buruz), eta ezinbestekoa da hemen egin ditugun proposamenak garatzeko.

Hori dela-eta, zineforumean ezin da bat-batean aritu. Filmak taldearen aurrean erakusteko, eta talde horretan eztabaidatzeko eta hausnartzeko jarduerak antolatzeko, aurrez, ondo antolatu behar da dena, baldintzak ahalik eta onenak izan daitezen, bileraren erosotasunari eta ekarpenari dagokienez.



The Man Who Shot Liberty Valance  
John Ford (1962)

Baldintza horietako asko bilduma honetako aurreko aleetan eta beste argitalpen batzuetan jasota daude. Azkenik, nabarmendu behar dugu oso baliagarria dela zineforum horretan jarduera dinamikoak egitea, alde batetik, filma erakutsi aurretik eta erakutsi ondoren, demokraziaren gai garrantzitsu horri buruz ikasleek zer zekiten, zer pentsatzen zuten eta zer sentitzen zuten ebaluatzeko, oso gai zaila eta konplexua baita, eta, bestetik, jakintza, pentsamendu edo sentsazio horien adierazpena eta eztabaida bideratzeko.

Horiek horrela, oso erabilgarria da jarduerak antolatzea ikuslea filmetan azaltzen diren gai garrantzitsuen aurrean kokatzeko, maiz, proiektatutako filmaren plano jakin batean islatu egiten baitira gai horiek. Adibidez, *The Man Who Shot Liberty Valance* filmeko horma-irudi txiki baten modura handiagotutako fotograma bat, jatetxeko aurrez aurreko liskarra erakusten duena, baliagarria izan daiteke ikusleek beren burua koka dezaten, filmeko pertsonaia bakoitzak irudikatzen dituen balioen inguruan, trokelatutako onespeneko *post-it* bat jarritz, hautatutako pertsonaiaren ondoan (gorantz egiten duen hatza, gezia...). Ildo horretan, hainbat aukeraren artean hautatutako ohar autoitsaskor bat ere baliatu daiteke *Animal Farm* filmeko pertsonaiek hartzen dituzten jarrera desberdinak identifikatzeko; edo euskarri berean jarritako izen-zerrenda bat erabil daiteke *High Noon* filmean Kane *sheriffaren* alde agertzen diren lagunak eta alde agertzen ez direnak zehazteko, pertsonaia nagusiaren bakardadea areago nabarmentze aldera.

Zerrenda areago luza dezakegu, erakusketako edo eztabaidako antolatzaileen irudimenak horretarako aukera ematen duen heinean, eta parte-hartzaileek egindako ekarpenak baliatuz. Kontua da ikusleek beren ideiak aditzera eman ditzaten modu dinamiko batean, eta, aldi berean, ikusleek ideia horiek azkar ikuskatu ahal izan ditzatela. Era horretan, elkarreragin handiagoa egongo da, eta, bestalde, inpaktu kognitiboen eta emoziozkoen ebaluazioa errazago egin ahal izango da.

# AZKEN HITZA

Orri hauen idazketa bukatu dugunean, bi urteurren hauek ospatzen ari ginen: alde batetik, Giza Eskubideen Deklarazioaren 60. urtemuga (orain dela gutxi hil den Suso Jaresen esanetan, «gizarteko eraikuntzarik garrantzitsuen» dugu hori [*Educar para la paz en tiempos difíciles*, Bilbo, Bakeaz, 2004, 49. or.], eta, hargatik, bihotz-bihotzez ekarri nahi dugu gogora), eta, bestetik, Espainiako Konstituzioaren onespeneren 30. urtemuga.

Gertakari horiek mugarriak dira, inguruan dugun eta lortu nahi dugun demokrazia ulertzeko: berdin arteko parte-hartzea eta adostasuna oinarritzat hartzen dituen erregimen politikoa, giza eskubideen harian zentzua hartzen duten legeek mugatu eta kontrolatutakoa, eta boterea baliatzeko giza eskubideak errespetatzen dituen, inork boterea eskusibotasunez erabil dezan baimendu gabe.


## Bakerako hezkuntza eta giza eskubideei buruzko Bakeaz erakundearen argitalpen batzuk

### Cuadernos Bakeaz • Bakerako hezkuntza

- Xabier Etxeberria, *Antirracismo*. Erref.: CB02.
- Xabier Etxeberria, *Sobre la tolerancia y lo intolerable*. Erref.: CB04.
- Xesús R. Jares, *Los sustratos teóricos de la educación para la paz*. Erref.: CB08.
- Juan José Celorio, *La educación para el desarrollo*. Erref.: CB09.
- Angela Mª Da Silva Gomes, *Educación antirracista e interculturalidad*. Erref.: CB10.
- Pedro Sáez Ortega, *La educación para la paz en el currículo de la reforma*. Erref.: CB11.
- Xabier Etxeberria, *Objeción de conciencia e insumisión*. Erref.: CB13.
- Xabier Etxeberria, *Ética de la desobediencia civil*. Erref.: CB20.
- Luis Alfonso Aranguren Gonzalo, *Educación en la reinención de la solidaridad*. Erref.: CB22.
- Xabier Etxeberria, «*Lo humano irreductible*» de los derechos humanos. Erref.: CB28.
- Xesús R. Jares, *Educación y derechos humanos*. Erref.: CB29.
- Xabier Etxeberria, *La educación ante la violencia en el País Vasco*. Erref.: CB31.
- Xabier Etxeberria, *La no violencia en el ámbito educativo*. Erref.: CB37.
- Martín Alonso, *Universales del odio: resortes intelectuales del fanatismo y la barbarie*. Erref.: CB40.
- Xabier Etxeberria, *Ignacio Ellacuría: testimonio y mensaje/Ignacio Ellacuría: testigantza eta mezua*. Erref.: CB47.
- Xesús R. Jares, *Educación para la paz después del 11/09/01*. Erref.: CB49.
- Johan Galtung, *Conflicto, guerra y paz, a vista de pájaro. Y cómo los aborda el grueso de los políticos y periodistas*. Erref.: CB54.
- Carmen Magallón, *Las mujeres como sujeto colectivo de construcción de paz*. Erref.: CB61.
- Martín Alonso, *Relatos exclusivos, políticas excluyentes. El patrón de Oriente Próximo*. Erref.: CB74.
- F. Javier Merino, *El espejismo revolucionario: la izquierda radical ante ETA*. Erref.: CB94.
- Martín Alonso eta María Pardo, *Una ética para el debate. Condiciones, fondo y formas en el uso de la discusión*. Erref.: CB100.



### Serie General



- Kepa Aulestia, Xabier Etxeberria, Carlos Martínez Gorriarán eta Demetrio Velasco, *Razones contra la violencia. Por la convivencia democrática en el País Vasco*, I. liburuki. Erref.: SG04. Prezioa: 12,00 euro.
- Aurelio Arteta, Demetrio Velasco eta Imanol Zubero, *Razones contra la violencia. Por la convivencia democrática en el País Vasco*, II. liburuki. Erref.: SG05. Prezioa: 12,00 euro.
- Antonio Beristain, Xabier Etxeberria, Tomás Fernández Aúz eta José María Mardones, *Razones contra la violencia. Por la convivencia democrática en el País Vasco*, III. liburuki. Erref.: SG06. Prezioa: 12,00 euro.
- Leah Levin, *Derechos humanos: preguntas y respuestas*. Erref.: SG07. Prezioa: 12,00 euro.
- Xabier Etxeberria, *La educación para la paz ante la violencia de ETA*. Erref.: SG12. Prezioa: 10,00 euro.
- Martín Alonso, *Universales del odio. Creencias, emociones y violencia*. Erref.: SG13. Prezioa: 12,00 euro.
- Xesús R. Jares, *Educación para la paz en tiempos difíciles*. Erref.: SG14. Prezioa: 10,00 euro.
- Galo Bilbao eta Xabier Etxeberria, *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Erref.: SG15. Prezioa: 8,00 euro.
- Xabier Etxeberria, *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Erref.: SG17. Prezioa: 8,00 euro.
- Xabier Etxeberria, *Por una ética de los sentimientos en el ámbito público*. Erref.: SG19. Prezioa: 12,00 euro.
- F. Javier Merino Pacheco, *La izquierda radical ante ETA. ¿El último espejismo revolucionario en Occidente?* Erref.: SG20. Prezioa: 16,00 euro.

# Escuela de Paz

Xesús R. Jares, *La educación para la convivencia como proceso de alfabetización en conflictos. Propuestas de formación.* Erref.: EP01. Prezioa: 4,00 euro.

Susana Fernández Sola, *Actitudes y comportamientos hacia la educación para la paz en Euskadi.* Erref.: EP02. Prezioa: 4,00 euro.

Pedro Sáez Ortega, *El otro en la construcción de una cultura de paz.* Erref.: EP03. Prezioa: 4,00 euro.

Luis A. Aranguren Gonzalo, *Educación en el sujeto solidario.* Erref.: EP04. Prezioa: 4,00 euro.

Juan José Celorio, *Educación para la paz y el desarrollo en épocas de globalización.* Erref.: EP05. Prezioa: 4,00 euro.

Anna Bastida, *Educación para la paz desde la guerra.* Erref.: EP06. Prezioa: 4,00 euro.

Xabier Etxebarria, *Sobre la tolerancia y la neutralidad del educador ante la violencia terrorista.* Erref.: EP07. Prezioa: 4,00 euro.

Ricardo Arana, *Respuestas educadoras frente a la intolerancia.* Erref.: EP08. Prezioa: 4,00 euro.

Jesús Casquete, *Las organizaciones cívicas y la educación para la paz.* Erref.: EP09. Prezioa: 4,00 euro.

Xabier Etxebarria, *Sobre la tortura: perspectiva ética y propuesta pedagógica.* Erref.: EP10. Prezioa: 4,00 euro.

Ricardo Arana, Susana Harillo eta Jesús Prieto, *Historias que nos marcan. Las víctimas del terrorismo en la educación para la paz.* Erref.: EP11. Prezioa: 6,00 euro.

Xabier Etxebarria, *La participación social y política de las víctimas del terrorismo.* Erref.: EP12. Prezioa: 4,00 euro.

Galo Bilbao, *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco.* Erref.: EP13. Prezioa: 4,00 euro.

Xabier Etxebarria, *Educación sentimental en la ciudadanía.* Erref.: EP14. Prezioa: 4,00 euro.

Galo Bilbao Alberdi, *Por una reconciliación asimétrica. De la «geometría» del terror a la de su superación.* Erref.: EP15. Prezioa: 4,00 euro.

Teo Santos, *El miedo social en el País Vasco en relación con el terrorismo de ETA.* Erref.: EP16. Prezioa: 4,00 euro.

Galo Bilbao Alberdi, *Jano en medio del terror. La inquietante figura del victimario-víctima.* Erref.: EP17. Prezioa: 4,00 euro.

Martín Alonso, *La razón desposeída de la víctima. La violencia en el País Vasco al hilo de Jean Améry.* Erref.: EP18. Prezioa: 4,00 euro.

Joseba Arregi, *El pesimismo histórico de Walter Benjamin y las víctimas.* Erref.: EP19. Prezioa: 4,00 euro.


Xabier Etxebarria, *Identidad como memoria narrada y víctimas del terrorismo.* Erref.: EP20. Prezioa: 4,00 euro.

Xabier Etxebarria, *La educación para la paz vertebrada por las víctimas.* Erref.: EP21. Prezioa: 4,00 euro.

Galo Bilbao, Cristina de la Cruz eta Pedro M. Sasia, *Víctimas: todas iguales, todas diferentes.* Erref.: EP22. Prezioa: 4,00 euro.

Izaskun Sáez de la Fuente Aldama, *La opinión pública vasca ante la violencia de ETA.* Erref.: EP23. Prezioa: 6,00 euro.

Xabier Etxebarria, *Virtudes para la paz.* Erref.: EP24. Prezioa: 6,00 euro.



## Eskaera buletina

Jaso nahiko nuke/nituzke honako Bakeaz erakundearen argitalpenak:

Cuadernos Bakeaz: \_\_\_ aleak \_\_\_\_\_ (erreferentziak jarri), 4,00 euro ale bakoitzeko.

Serie General liburua: \_\_\_ aleak \_\_\_\_\_ (erreferentziak jarri).

Escuela de Paz koadernoak: \_\_\_ aleak \_\_\_\_\_ (erreferentziak jarri).

### Eskatzailearen datuak

Abizenak \_\_\_\_\_  
Izena \_\_\_\_\_ IFZ/IFK \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_  
Herria \_\_\_\_\_ PK \_\_\_\_\_ Probintzia \_\_\_\_\_  
Telefonoa \_\_\_\_\_ Faxa \_\_\_\_\_  
Posta elektronikoa \_\_\_\_\_

Ordaintzaren modua: jasotzean ordaintzeko (guztirako zenbatekori 5,00 euro gehitu behar da, bidaltze-gastuak moduan).

ISBN: 978-84-92804-07-8



Balioetan oinarritutako hezkuntza eta komunikatzeko dauden molde berriak era praktikoa batean bateratu nahian, horixe baita, izan ere, Zuzen Zinemara izeneko bilduma honen helburu nagusia, ale honetan, demokrazia hartu dugu ardatz gisa, alegia, pertsonaren garapena eta duintasuna lortzeko aukera ematen duen sistema politikoa. *Demokrazia zuri-beltzean* zenbakiaren bidez, arin hurbildu ahal izango gara sistema horretara, eta hainbat filmetara ere bai, gazteek (eta hain gazte ez direnek) hobeto ulertu eta aintzat har dezaten. Era berean, zenbaki honetan, sakonago aztertuko dugu demokraziaren interpretazioa, haren garapen historikoa, haren barreneko esanahia eta izan ditzakeen ahalmenak landuz. Hemen taldeka ikusteko proposatzen ditugun filmekin batera, hainbat iradokizun metodologiko egin ditugu, demokrazian oinarritutako eta demokrazia lortzeko hezkuntza eta ikus-entzunezkoei buruzko alfabetizazio kritikoa uztartuta.

**Ricardo Arana Mariscal** maisua eta kazetaria da. Bizkaiko Barakaldo herriko ikastetxe publiko batean ematen ditu eskolak. Irakasleen sindikatuko ordezkaria, eta Euskadiko Langile Batzordeen komunikazio konfederalaren arloko eta irakaskuntzako federazioko arduraduna izan da. Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kidea eta Giza Baliabideen Batzordeko burua izan da. Hainbat herri-ekimenetan eta jardueratan parte hartzen du, balioetan eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatzeko eta etorkinak gizarteratzeko. Bere hausnarketetan, komunikazioaren teknologia berriek gizartean duten eragina aztertu du. Lankidetzan aritu da euskal prentsako iritzi-orrietan, eta argitalpen profesional batzuekin, esate baterako, *Trabajadores de la Enseñanza* eta *Escuela*, argitalpenekin.

**Hernán Echevarría Calvo** maisua, eta Geografia eta Historian lizentziaduna da. Irakaskuntza-lanetan aritu da Euskal Herriko hainbat ikastetxe pribatu eta publikotan, hala Lehen nola Bigarren Hezkuntzan; horrez gain, irakasleen ordezkari sindikala izan da. Gaur egun, irakasle-lanetan ari da pertsona helduen hezkuntzara zuzenduta dagoen Bizkaiko zentro publiko batean, eta,aldi berean, zentro horretako zuzendaria da. Arteak eta historiak pizten dute bere arreta. Irakaskuntza-lanetan, zinemagintza erabiltzeko egiten diren ikerketetan hartzen du parte.

